



zergak

Errenta 98ko
Eskuliburua

Urratsez urrats



Bizkaiko Foru
Aldundia

Ogasun eta Finantza
Saila

Diputación Foral
de Bizkaia

Departamento de Hacienda
y Finanzas

PFEZ'1998ko
JARRAIBIDEEN GIDALIBURUA

© Bizkaiko Foru Aldundia

Ogasun eta Finantza Saila

Bizkaiko Foru Aldundiak ez ditu bere gain hartzen gidaliburu honen interpretazio, berridazketa edo inprimaketan egon daitezkeen okerrak.

AURKIBIDE OROKORRA

I. KAPITULUA. GAI OROKORRAK	9
Nork aurkeztu behar duen aitordpena	9
Ohiko egoitza	9
Zerga ordainketa: aukerak	12
Zer aitortu behar den	13
Non aitortu behar den.....	19
Zergaldia eta zergaren sortzapena.....	19
Non aurkeztu behar den aitordpena	20
Nork sinatu behar duen aitordpena	20
Aurkeztu beharreko agiriak.....	21
Aitordpena aurkezteko epea	22
Zerga aitortzeko aurkeztu beharreko inprimaki ereduak.....	23
Nork aurkez dezakeen eredu erraztua.....	23
Hainbat hariketa labur	24
II. KAPITULUA. LAN ETEKINAK.....	27
Zer diren	27
Kontraprestazio edo onurak. Sarrerak.....	27
Ken daitezkeen gastuak.....	36
Etekin garbia	37
Bakoitzari dagozkion etekinak	37
Lan etekinen atzerakinen zioz hartutako kopuruaren aitordpena (20/92 FD, 14.art. seigarren idatz-zatia).....	37
III. KAPITULUA. HIGIKORREN KAPITALAREN ETEKINAK.....	39
Zer diren	39
Etekin osoak	39
Zergan ken daitezkeen gastuak eta legezko txikipen orokorra.....	46
Bakoitzari dagozkion etekinak	47

IV. KAPITULUA. HIGIEZINEN KAPITALAREN ETEKINAK.....	49
Zer diren	49
Bakoitzari dagozkion etekinak	50
V. KAPITULUA. ENPRESA NAHIZ LANBIDE JARDUEREN ETEKINAK.....	53
Zer diren	53
Etekin garbia zehazteko moduak.....	54
Ukoa.....	60
Kontabilitate eta erregistroari buruzko betebeharrak	61
VI. KAPITULUA. ZUZENeko ZENBATESPENAREN ARAUBIDE ETA KOEFIZIENTEKAKO ZENBATESPEN OBJEKTIBOAREN ARAUBIDEA.....	63
1. Zuzeneko zenbatespenaren araubidea (D ₁ eranskina)	63
<i>Sarrerak</i>	63
<i>Zergan ken daitezkeen gastuak</i>	64
<i>Etekin garbia</i>	66
<i>Lotutako ondasunen ondoriozko ondare gehikuntza eta urripenak (zenbatespen modalitate guztiei ezarriko zaie)</i>	66
<i>Zerga-pizgarriak, norbanakoek interes orokorreko jardueretan esku har dezaten</i>	70
2. Koefizientekako zenbatespen objektiboaren araubidea (D ₂ eranskina)	77
<i>Sarrerak</i>	77
<i>Zergan ken daitezkeen gastuak</i>	77
<i>Etekin garbia</i>	78
<i>Lotutako ondasunen ondoriozko ondare gehikuntza eta urripenak</i>	79
VII. KAPITULUA. ZEINU, INDIZE EDO MODULUKAKO ZENBATESPEN OBJEKTIBOAREN ARAUBIDEA, ABELUR JARDUERAK, BASOZAINZAKOAK, BAXURAKO ARRANTZA IZAN EZIK (D ₃ ERANSKINA).....	82
Zeinu, indize edo modulukako zenbatespen objektiboaren araubidea, abelur jarduerak, basozaintzakoak, baxurako arrantza izan ezik (D ₃ eranskina)	82
<i>Zeinu, indize edo modulukoak</i>	82

<i>Moduluei dagozkien unitateen kalkulua</i>	91
<i>Indize zuzentzaileak.....</i>	97
<i>Indize txikitzaileak</i>	104
VIII. KAPITULUA. ABELURGINTZA, BASOZAINNTZA ETA BAXURAKO ARRANTZA ZEINU, INDIZE EDO MODULUKA EGITEN DEN ZENBATESPEN OBJEKTIBOAN (D ₄ ERANSKINA).....	110
Abelurgintza, basozaintza eta baxurako arrantza zeinu, indize edo moduluka egiten den zenbatespen objektiboan (D ₄ eranskina).....	110
<i>Indize txikitzaileak</i>	114
<i>Bakoitzari dagozkion etekinak.....</i>	119
<i>Europako Batasunaren nekazaritzako politikako diru-laguntzak..</i>	119
IX. KAPITULUA. ZERGA-GARDENTASUNAREN ARAUBIDEAN DAUDEN OINARRI POSITIBOEN EGOZKETA.....	123
Kontzeptua eta sailkapena	123
Zerga-gardentasunaren araubideko sozietateen zerga ordainketa.....	125
Zerga-gardentasunaren araubide berezia	127
Bakoitzari dagozkion errentak	127
X. KAPITULUA. ETEKIN IRREGULARRAK EDO URTEBETETIK GORAKO ZIKLOKOAK.....	129
Zer diren	129
Zelan beteko den PFEZ'1998 inprimakia	130
XI. KAPITULUA. ONDARE GEHIKUNTZA ETA URRIPENAK	133
Zer diren	133
Erregela orokorrak, ondare gehikuntza eta urripenak kalkulatzeko	134
<i>Zelan zehaztuko diren eskuraketa balioa eta eskualdaketa edo besterentze balioa</i>	134
<i>Zelan kalkulatuiko diren ondarearen gehikuntza eta urripenak....</i>	137

<i>Ondarearen gehikuntza eta urripen motak. Zelan ezarriko diren araubide orokorra eta iragankorra kasuen arabera</i>	139
Besterentze eta eskuraketako balioak zehazteko erregela bereziak.....	142
Bakoitzari dagozkion ondare gehikuntza eta urripenak	147
Zelan bete behar den PFEZ'1998 inprimakia.....	147
XII. KAPITULUA. ONDARE GEHIKUNTZA ETA URRIPENEN OSAKETA ETA KONPENTSAZIOA	156
XIII. KAPITULUA. LIKIDATUKO DEN OINARRIA: LIKIDATUKO DEN OINARRI ERREGULARRA ETA LIKIDATUKO DEN OINARRI IRREGULARRA. KUOTA OSOAREN KALKULUA.....	171
Zerga oinarri erregularra guztira.....	171
Likidatuko den oinarri erregularra guztira, konpentsazioa egin ondoren	172
Zerga oinarri irregularra / likidatuko den oinarri irregularra guztira	174
<i>Likidatuko den oinarria guztira</i>	174
Kuota osoaren zehaztapena.....	175
Zelan bete behar den PFEZ'1998 inprimakia.....	180
XIV. KAPITULUA. KUOTATIKAKO KENKARIAK. ZERGA ZORRA	185
Famili kenkariak	185
Gaixotasun gastuak	188
Norberak dituen gastu batzuk	188
Inbertsioen ziozko kenkariak.....	189
Bizitza aseguruaren primak.....	190
<i>Kapital geroratuen aseguru mistoko kontratuak (kenkariaren muga: 50.000 pta.)</i>	190
<i>Ken litezkeen beste aseguru kontratu batzuk</i>	190
Inbertsioa etxebizitzan.....	191
<i>Zer den ohiko etxebizitza</i>	191

<i>Zer den etxebizitzaren birgaikuntza</i>	191
<i>Zer den etxebizitza erostea</i>	191
Kultur intereseko ondasunak	195
Lehentasuneko jarduera eta egitarauak [9/95 FA-ko 33. art. ko Bat c)]	196
Emari edo donatiboak	197
Zenbait kenkariren mugak	199
Inbertsioa jardueretan (ZZ) edota inbertsioa zerga-gardentasuneko sozietateetan	199
Gainerako kenkariak	204
1º <i>Hirilurren balioaren gehikuntzaren gaineko zergako kuotaren %75</i>	204
2º <i>Ceuta eta Melillako etekinak</i>	204
3º <i>Norberak egin ditzakeen atxikipenak</i>	204
4º <i>Lan etekinak</i>	205
5º <i>Sozietateen dibidenduak</i>	206
Kenkaria nazioartean zergapean bi bider jartzeagatik.....	209
Onuren galeren ziozko gehikuntza	210
Kuota likidoaren zehaztapena.....	210
Atxikipenak eta kontura egindako sarrerak	210
Diferentziazko kuotaren zehaztapena.....	212
8/88 Foru Arautik egiteko dagoen zerga-kreditua, 1998an erabilia.....	212
Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako zerga zorraren lorpena.....	212
 INPRIMAKI ERREZTUAREN ALDAKIA.....	 214
 INPRIMAKI ARRUNTAREN ALDAKIA	 220

I. KAPITULUA

GAI OROKORRAK

NORK AURKEZTU BEHAR DUEN AITORPENA

Honako hauek aurkeztu beharko dute aitortpena: zergapeko etekin nahiz ondare gehikuntzak lortzen dituzten subjektu pasiboek. Hala ere, zerga norberaren betebeharraren zioz ordaindu behar duten subjektu pasiboek ez dute aitortpenik egin behar-ko:

1. Baldin urteko 1.200.000 pezeta gordin baino gutxiagoko errentak lortzen badituzte, betiere hurrengo iturburuetakook bakar-bakarrik direnean:
 - a) Lanaren etekinak eta beraiekin berdinetsitakoak, baldin eta enpresa edo lanbide etekinak ez badira.
 - b) Zergaren menpean dauden higikorren kapitalaren etekinak eta ondare gehikuntzak, betiere batera urteko 250.000 pezeta gordinak gainditzen ez dituztenean.
2. Baldin eta lan etekinak jasotzen badira pentsioak eta hartzeko pasiboak hartzeagatik, edo zerga batera aitortzea aukeratzen denean, muga urteko 1.250.000 pezeta gordinekoa izango da.

Aitortzeko betebeharraren mugari dagokionez, subjektu pasiboaren edo, bestela, famili unitatearen ohiko egoitza den etxebizitzaren etekinak ez dira kontuan hartuko. Hala ere, aurkeztu beharrik ez duten subjektu pasiboek aurkeztu ahal izango dute aitortpena, baldin eta aurretik atxikiak zaizkien nahiz zerga honen kontura ordainduak dituzten kopuruak itzuli behar bazaizkie.

Bizkaiko Foru Aldundiak du eskumena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagokiolarik, kasu hauetan:

- a) *Norberaren betebeharrarengatik*: pertsona fisikoek euren ohiko egoitza Bizkaian dutenean.
- b) *Betebehar errealararengatik*: egoitza espainiar lurraldean ez duten pertsona fisikoek errentak Bizkaiko Lurralde Historikoan lortzen dituztenean. Egoitza Bizkaian duen pertsona fisikoa edo juridikoa izendatu beharko dute subjektu pasibo hauek, Bizkaiko Foru Aldundiari begira, zerga honi dagozkion betebeharretan ordezkatuak izateko.

OHIKO EGOITZA

1. Kasu orokorra:

Pertsona fisikoak egoitza espainiar lurraldean duelarik, beraren ohiko egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan dagoen ala ez zehazteko, ondoko arauak ondoz ondo eta hierarkiaren arabera ezarriko dira:

1go.) Zergaldiko egunik gehienak Euskal Autonomia Erkidegoan ematen dituelarik, epealdi horretako egun gehiago ematen badu Bizkaiko Lurralde Historikoan, gainerako lurralde historikoetan baino. Bizkaian zenbat denbora ematen duen zehazteko, kontuan hartuko dira lurralde horretan aldian-aldian egiten dituen absentiak.

- Bizkaiko Lurralde Historikoan irauten duen egun kopurua = Bizkaian ematen dituen egunen kopurua + Aldian-aldian falta dituen egunen kopurua.
- Zelan zehazten den pertsona fisiko batek Bizkaiko Lurralde Historikoan irauten duen epealdia, baldin eta hark egoitza atzerrira aldatzen badu: frogatu beharko du egoitza beste lurralde baten duela, egutegiko 183 egunetan gutxienez; horri dagokionez, Bizkaiko Lurralde Historikoan lan-tzean behin egiten dituen absentiak ez dira kontuan hartuko.
- Zenbat dirauen Bizkaiko Lurralde Historikoan: pertsona fisikoak Bizkaiko Lurralde Historikoan dirau, baldin eta ohiko egoitza lurralde horretan finkatzen badu.

2gn.) Bere interesen gune nagusia Bizkaiko Lurralde Historikoan duenean; horri dagokionez, pertsona fisikoak bere interesen gune nagusia Bizkaian du, baldin eta, bere zerga oinarriaren zati nagusia Euskal Autonomia Erkidegoan lortu duelarik, zati horren zenbatekorik handiena Bizkaian lortu badu; zerga oinarri bi horiek kalkulatzeko, ondokoak ez dira kontuan hartuko: higikorren kapitaleko errentak eta ondare gehikuntzak; eta zerga-gardentasunaren araubidean egotzitako oinarriak, salbu eta profesionalen araubideari dagozkionak.

3gn.) Subjektu pasiboak aitortutako azken egoitza, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagokionez, Bizkaiko Lurralde Historikoan dagoenean.

2. Kasu bereziak:

a) Egoitza espainiar lurraldean duten pertsona fisikoak, baldin eta lurralde horretan 183 egun baino gehiago irauten badute: egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan dutela ulertuko da, baldin eta ondoko inguruabarretarik baten bat gertatzen bada:

- gune nagusia edo haien enpresa edo lanbide jardueren oinarria Euskal Autonomia Erkidegoan datzanean, edo
- haien ekonomi interesen gune nagusia Euskal Autonomia Erkidegoan datzanean.

Horrenbestez, idatz-zati honetara bildutako inguruabarretarik bat dela-bide egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten pertsona fisikoek egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan izango dute, baldin eta ondoko inguruabarretarik baten bat gertatzen bada:

- gune nagusia edo haien enpresa edo lanbide jardueren oinarria Bizkaiko Lurralde Historikoan datzanean, edo
- haien ekonomi interesen gune nagusia Bizkaiko Lurralde Historikoan datzanean.

- b) Pertsona fisikoa, baldin eta beraren ezkontideak, legez bananduta ez bada-go, eta ezkontidearen menpean dauden adingabeko seme-alabek ohiko egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan badute: horrelakoetan egoitza espainiar lurraldean duelako presuntzioa dago eta haren ohiko egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan dagoela ulertuko da.

3. Ohiko egoitza lurralde erkidetik foru lurraldera aldatzea, eta foru lurralde batetik beste batera aldatzea:

Egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan duten subjektu pasiboek ohiko egoitza foruko beste lurralde batera edo lurralde erkidera aldatzen badute edo, ohiko egoitza beste lurralde baten, forudunean edo erkidean, dutelarik, ohiko egoitza Bizkaiko Lurralde Historikora aldatzen badute, orduan, subjektu pasibo horiek euren zerga betebeharrak beteko dituzte euren egoitza berriaren edura, baldin eta egoitza berri hori lotunea bada.

Egoitza aldatu dela ulertzen da, baldin eta egoitza berriak, etengabe, hiru urteko epealdian zehar irauten badu gutxienez.

Egoitza aldatzen bada ere, hori ez da aintzat hartuko, ondoko inguruabarrak gertatzen direnean:

1go.) Egoitza berriak, etengabe, hiru urtean gutxienez ez irautea.

2gn.) Egoitza aldatzen den urtean edo hurrengoan, zergaren zerga-oinarria, gutxienez, egoitza aldatu zen urtearen aurrekoan egon zenaren %50ean handiagoa izatea.

3gn.) Bigarren inguruabarra gertatzen den urtean, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zioz egiten den benetako zerga ordainketa txikiagoa izatea, erabili beharreko arautegiaren arabera izan beharko zatekeena baino.

4gn.) Egoitza hasierako lurraldean berriro izatea.

Idatz-zati honetan ezarritako inguruabarrak direla-bide egoitza aldatu ez dela ulertzen bada, subjektu pasiboek aitorten osagarriak aurkeztu beharko dituzte, berandutza korrituak sartuta.

Zerga honi dagokiolarik, Bizkaiko Lurralde Historikoko egoiliar gisa, honako hauek hartuko dira: espainiar naziotasuneko pertsonak; beraien ezkontideak, baldin eta legez bananduta ez badaude; beraien seme-alaba adingabekoak, Bizkaiko zerga arautegiaren menpean daudela, euren ohiko helbide edo egoitza atzerrira aldatzen badute, eta zioa honako hauetarik bat bada:

- a) Espainiar mandatalgo diplomatikoetako kideak, direla mandatalgoburu gisa, direla haren menpeko langile diplomatiko, administratibo, tekniko edota zerbitzuetako kide gisa.
- b) Espainiar bulego kontsularretako kideak, direla beraien buru gisa, direla beraien atxikitako zerbitzuen menpeko funtzionario edo langile gisa, salbu eta

ohorezko kontsulordeak zein ohorezko agente kontsularrak eta berauen menpeko langileak.

- c) Espainiar estatuko kargu edo enplegu ofizialen titularrak, bai nazioarteko erakundeetan egiaztatuta dauden eskuordetza eta ordezkari-tza iraunkorretako kide gisa, bai atzerrian dauden sogileen eskuordetza edota mandatalgoetako kide gisa.
- d) Jarduneko funtzionarioak, zeinek atzerrian diplomazia edo kontsul izaerarik gabeko kargu edo enplegu ofizialetan diharduten.
- e) Funtzionarioak edo lan-kontratuko langileak, Euskal Herri-administrazioaren zerbitzuplean badaude eta lanlekua Euskadik atzerrian dituen eskuordetzetan badute.

Dena den, ondokoak ez dira Bizkaiko Lurralde Historikoko egoiliar gisa hartuko: funtzionario publiko edo kargu edo enplegu ofizial bateko titularrak izan barik, ohiko egoitza atzerrian dutenak, idatz-zati honetan adierazitako letretako baldintzeta-rik edozein eskuratu baino lehen.

Atzerritar funtzionarioak Bizkaiko Lurralde Historikoan. Nazioarteko itunbenetatik, zeinetako kide Espainia baita, etortzen diren arau bereziak ezin aplika daitezkeenean, ez dira norberaren betebeharraren zioz zergapean hartuko Bizkaian egoiliar-rrak diren atzerritar menpekoak elkarrekikotasunaren arabera, baldin eta ingurua-
bar hau aurreko a) letratik d) letrara jasotako baldintzen baten ondorio bada. Era berean, zerga arautegi hori Europako erkidegoetako funtzionario eta beste agente batzuei ezarriko zaie, baldin eta hori izateagatik badute egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan.

ZERGA ORDAINKETA: AUKERAK

Oro har, PFEZren zergadun guztiek aurkeztu beharko dute aitortpena banan-banan. Hala ere, famili unitateko kideek aitortpen bakarra aurkeztea aukeratu ahal izango dute, eta horretarako beraren kide guztiek erabaki beharko dute zerga sistema horren bitartez ordaintzea. Zerga honi dagokionez, famili unitatearen osakideak honako hauek dira:

- a) *Ezkontza:* legez bananduta ez dauden ezkontideak eta, honelakorik dagoenean:
 - adingabeko seme-alabak, salbu eta gurasoen baimenaz hauengandik aske bizi direnean, eta
 - adin nagusiko seme-alabak, baldin eta epaileak ezgaitu baditu eta luzaturik dagoen gurasoen ahalgopean badaude.
- b) *Gainerako kasuetan:* aita edo ama ezkongabea, alarguna, dibortziatuta dagoena, legez bananduta dagoena eta, honelakorik dagoenean:
 - adingabeko seme-alabak, salbu eta gurasoen baimenaz hauengandik aske bizi direnean, eta

- adin nagusiko seme-alabak, baldin eta epaileak ezgaitu baditu eta luzaturik dagoen gurasoen ahalgopean badaude.
- Famili izaerako beste edozein elkartzetara, idatz-zati honetan zehaztutakoetarik aparte badago, ez da famili unitatetzat hartuko PFEZri dagokionez, edozein direlarik ahaidetasunaren aldetik dauden loturak, eta egoitza berean elkarrekin bizi badira ere.

Aitorpena ekitaldi baten batera aurkeztuagatik, famili unitatea ez da lotzen ondorengo ekitaldietan aitorpena batera aurkezteko.

Famili unitateko kideetarik batek aitorpena berak bakarrik aurkezten badu, orduan famili unitate horretako gainerako kideek ere modu berean aurkeztu beharko dute aitorpena.

Likidazio egokiak egitean, Administrazioari aurkeztu ez bazaio aitorpenik, orduan zerga banaka aurkezteko erregelak ezarriko dira, salbu eta subjektu pasiboek beren beregi horren aurkakoa adierazten badute hamar eguneko epean, behin Administrazioak horretarako agindeia egin eta gero.

Inork ezin du aldi berean famili unitate bitan egon.

ZER AITORTU BEHAR DEN

- Norberaren betebeharra duten subjektu pasiboek* errenta osoa izango dute zergapean, errenta hori zein tokitan lortu den eta haren ordaintzaileak egoitza non daukan kontuan hartu barik.
 - Aitorpena banaka egiten badu, aitortzaileak bakarrik lortutako errentak aitortu beharko dira.
 - Famili unitate bateko pertsonak izan eta aitorpena batera egitea aukeratzeko bada, familiakide guztiek lortutako errentak aitortu beharko dira.
- Betebehar erreala duten subjektu pasiboek* zerga beti bakarrik aitortuko dute, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 7/1991 Foru Arauko III. tituluko III. kapituluaren dauden arau berezien arabera. Zergapean egongo dira, Euskal Autonomia Erkidegoan lorturiko ondareekin eta gehikuntza edo urripenen zenbatekoaren neurrian.

Ondoko errentak ez dira 1998ko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpenaren barruan sartuko:

Ondoko errentak salbuetsita egongo dira 1998ko ekitaldiari dagokionez:

- Terrorismo ekintzen zioz ematen diren aparteko prestazio publikoak. Zerbitzuko ekintzetan edo antzeko baten hiltzearen ziozkoak ez daude letra honen barruan.
- Gizarte Segurantzak edo beraren ordezkari erakundeek subjektu pasiboari aintzatesten dizkieten prestazioak, betiere erabateko ezgaitasun iraunkorren edo elbarri larriaren ondoriozkoak direnean. Ezintasun partzialarengatik

edo ezintasun iraunkor eta osoarengatik hartzen diren prestazioak ez daude atal honen barruan; hortaz, oso-osorik aitortu behar dira.

- c) Herri administrazioetako funtzionarioek zerbitzurako ezereztasun edo ezintasun iraunkorraren zioz jasotako pentsioak, baldin eta ezereztasun edo ezgaitasuna ekarri duen lesio edo gaixotasunak pentsioaren hartzailea erabat ezgaitzen badu edozein lanbide edo ogibide egiteko.
- d) Langilea kalera bota edo lanari uztarazi behar izan zaiolako, ematen zaizkion kalte-ordainak, Langileen Estatutuan, berau garatzen duten araudietan edo, bestela, epaien betearazpena arautzen duen arautegian nahitaez ezarritako zenbatekoan, baina ezin izango da horretakotzat hartu hitzarmen, itun edota kontratu bitartez ezartzen dena.

Enplegu erregulazioko espedienteen ondorioz irazpen edo lan-uzteren bat gertatzen bada, espediente horiek Langileen Estatutuan ezarritakoaren arabera tramitatu badira eta eskudun agintaritzak onespina aurretik eman badu, orduan jasotako kalte-ordainaren zati bat salbuetsita geratuko da, alegia, estatutu horretan, bidegabeko irazpenerako nahitaez ezarrita dauden mugak gainditzen ez dituen zatia.

Kalte-ordainetik zenbat geratzen den salbuetsita zehazteko, enplegu erregulazioko espedientea zein egunetan onetsi zen hartu beharko da kontuan, betiere, ondoko erregala hauek beteaz:

- 1997ko abenduaren 31 igaro eta gero onetsitako enplegu erregulazioko espedienteak: jasotako kalte-ordainaren zati bat geratuko da salbuetsita, alegia, bidegabeko irazpenerako ezarritako mugak gainditzen ez dituen zatia.
- 1998ko urtarrilaren 1a baino lehen onetsitako enplegu erregulazioko espedienteak: Langileen Estatutuetan bidegabeko irazpenerako nahitaez ezarritako mugak erabiliko dira, baina 1998ko urtarrilaren 1az gero jasotako diru-kopuruei dagokienez. Horrenbestez, eta data horretaz gero salbuetsita gera daitekeen zenbatekoa kalkulatzeko, egun hori baino lehen jasotako kopuru guztiak deskontatu beharko dira, nahiz eta diru-kopuru horiek zergapean egon, garaian-garaian indarrean zegoen arautegia ezartzeagatik.

Letra honetan jasotako salbuespenari dagokionez, ulertuko da langilea ez dela kalera bota edo lanpostutik kendu, baldin eta subjektu pasiboa berriro kontratatzen badu enpresa berberak edo, eskumendeko eta jatorrizkoaren arteko harremanak dirrela bide, harekin loturiko beste enpresa batek kontratatzen badu lanetik bota edo kargutik kentzen denetik ondorengo hiru urteetan.

Erakunde jatorrizkoaren eta eskumendekoaren arteko harremanak daudela ulertuko da, lehenengoak, zuzenean edo zeharka, bigarrenaren sozietate kapitalaren ehuneko hogeita bosteko partaidetza duenean edo, horrelakorik eduki gabe, erakunde batek bestean erabakitzeko ahalmenaren eginkizun betearazleak erabiltzen ditue-nean. Harreman horiek ere badaude, aurreko arauaren arabera, jatorrizko beraren eskumendekoak diren erakundeen artean.

Lanetik bota edo kargutik kentzearen zioz salbuetsita dauden kalte-ordainen artean, besteak beste, ondoko hauek nabarmendu litezke:

- *Bidegabeko irazpenaren ziozko kalte-ordaina*: kontzeptu honen zioz salbuetsita egongo dira zerbitzu-urteko alokairuaren 45 eguneko zenbatekorainoko diru-kopuruak, eta urtebetekoak baino laburragoak diren epealdiak hilabeteka lainduko dira, 42 hilekotaraino.

8/1997 Errege Dekretu-legearen xedapen gehigarrietako lehenengoan eta 63/1997 Legean ezarritakoaren arabera, lan-kontratu mugagabeak suspertzeko kontratuen bidegabeko irazpenak gertatzen direnetan, zerbitzu-urteko alokairuaren 33 eguneko zenbatekorainoko kopuruak salbuetsita geratuko dira, eta urtebetekoak baino laburragoak diren epealdiak hilabeteka lainduko dira, 24 hilekotaraino.

- *Kalte-ordainak, nork bere gogoz kargua uztearen ziozkoak*:

- Lan baldintzak funtsean aldatzen badira, baina ez badiote kalterik egiten lanbide heziketari, edo lanaren duintasunari eraso egiten ez badiote, orduan kontzeptu horren zioz salbuetsita dauden diru-kopuruak hauexek izango dira: zerbitzu-urteko alokairuaren 20 eguneko zenbatekorainokoak, eta urtebetekoak baino laburragoak diren epealdiak hilabeteka lainduko dira, 9 hilekotaraino.
- Salbuetsita dagoen diru-kopurua zerbitzu-urteko alokairuaren 45 eguneko zenbatekoraino igoko da, eta urtebetekoak baino laburragoak diren epealdiak hilabeteka lainduko dira, 42 hilekotaraino, baldin eta karguari bere gogoz uzten badiu, eta karguari uzteko zio edo arrazoiak ondokoetarik baten bat bada:

1go.) Lan baldintzak funtsean aldarazten badira, eta aldarazpen horiek kalte egiten badiote lanbide heziketari, edo eraso egiten badiote langilearen duintasunari.

2gn.) Itundutako alokairua ez ordaintzea edo bera txitean-pitean berandu ordaintzea.

3gn.) Enpresarioak bere betebeharratarik edozein larri ez betetzea, ezinbestekoetan izan ezik.

Nork bere gogoz lanari uztearren hartzen diren kalte-ordainak zergaren menpean daude oso-osorik, baldin eta lanari uzteko arrazoiak ez badaude goiko zerrendaren barruan.

- *Teknologia edo ekonomiaren aldetiko arrazoiengatik eta ezinbestekoengatik lanari utzi beharraren ondoriozko kalte-ordainak*:

- Oro har: kontzeptu honengatik zerga ordaintzetik salbuetsita dagoen zenbatekoa lan egindako urteko alokairuaren 20 eguneko zenbatekoa beste izango da, gehienez, 12 hilabeteoraino.
- Salbuespen gisa, zerga ordaintzetik salbuetsita dagoen zenbatekoa zerbitzu-urte bakoitzeko alokairuaren 45 eguneko izango da, gehienez, 42 hilabeteoraino, baldin eta horrekin batera ondoko inguruabarrok gertatzen badira:

1go. Enplegu erregulazioko espediente egokia tramitatua izatea, Langileen Estatutuaren 51. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2gn. Agintari eskudunak espediente hori 1992ko urtarrilaren 1a baino lehen baimendua izatea.

- *Lan harremanak enpresarioaren heriotza, jubilazio edo ezintasunaren zioz eteten badira, hortik sortzen diren kalte-ordainak salbuetsita egongo dira, baldin eta kalte-ordainon zenbatekoa ez bada laneko hilabeteko diru-kopurukoa baino handiagoa.*

Letra honetan zehaztu diren diru-kopuruen gaindikinak zergapeko errenta gisa hartuko dira, oro har, lan etekinen atalaren barruan; izan ere, langileak zerbitzuan egindako urteen neurrian ezarrita daude; hori dela eta, salbuespenak salbuespen, errenta irregular gisa hartu behar dira.

- e) Pertsoneri egindako gaitz fisiko zein psikikoen ziozko kalte-ordainak, ondoan azalduko diren diru-kopuruen arabera:
 - *Zenbatekoa lege bidez ezarrita duten kalte-ordainak edota judizio bidez aintzatesten direnak:* ezarrita dagoen kalte-ordainaren zenbateko osoa egongo da salbuetsita. Kalte-ordainen mota horren barruan, ondokoak nabarmenduko dira:
 - Goren mugako ordainketak; pagamendu horiek maiatzaren 28ko 9/1993 Errege Dekretu-legearen 2. artikuluko 1. idatz-zatiko a) lerroaldean daude ezarrita; arau horrek, bere aldetik, hartutako inmuno eskasiaren sindromeak (HIESak) jotakoentzako laguntzak ematen ditu, baldin eta kutsatzea osasun sistemaren jarduketan ondorioz gertatzen bada.
 - Gaitz edo kalteak zirkulazio istripuengatik gertatzen badira, erakunde aseguratzaileek euren aseguratuaren erantzukizun zibilaren ondorioz ordaintzen dituzten diru-kopuruak; betiere, Aseguru Pribatuaren Antolamendu eta Gainikuspenari buruzko azaroaren 8ko 30/1995 Legearen zortzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.
 - *Gaitz eta kalte berdinen zioz, aseguru kontratuen ondorioz hartzen diren kalte-ordainak:* kontzeptu honen zioz hartzen diren kalte-ordainak salbuetsita egongo dira, harik eta 25 milioi pezetako diru-kopurura iritsi arte. Diru-kopuru horretatik gainerakoa ondarearen gehikuntza legez hartuko da.
- f) Estatuko Loteria eta Apustuen Erakunde Nazionalaren loteria, joko eta posturetatik edota autonomi erkidegoek antolatzen dituztenetatiko sariak.
- g) Honako erakundeek antolatutako zozketetako sariak:
 - Gurutze Gorriarenak.
 - Itsuen Erakunde Nazionalarenak.
- h) Literatur, arte edota zientzi sari garrantzitsuak, baldin eta Zerga Administrazio organo eskudunak salbuetsita daudela adierazi badu.
- i) Ikasketak, hezkuntza sistemako maila eta gradu guztietan, harik eta lizentziatura edo beraren baliokidera heldu arte, egiteko hartzen diren beka publikoak.

- j) Epailerearen erabaki bat dela bide, gurasoei mantentzeko hartzen zaizkien urtekoak.
- k) Minusbaliatuak edota 65 urtekoak baino nagusiagoak hartzeagatik, herri erakundeei hartzen zaizkien kopuruak.
- l) 1936/1939ko gerra zibilaren zioz edo ondorioz kalteak edo mozketak jasan zituztenentzat, Estatuko Klase Pasiboaren araubidearen edo berariaz emandako legeriaren babesean (35/1980 Legea), aitorturiko pentsioak.
- m) Ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzazko Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren testu bateginaren II. tituluko IX. kapituluaren araupetutako kargurako seme-alabaren ziozko famili prestazioak.
- n) Erakunde kudeatzaileak aintzatetsitako langabeziaren ziozko prestazioak, ordainketa bakarrek langabeziaren ziozko prestazioaren ordainketa araupetu zuen ekainaren 19ko 1.044/1985 Errege Dekretuaren ezarritako ordainketa bakarrean jasotzen direnean, betiere jasotako kopuruak arau horretan xedatutako egoeretan eta xedeetarako erabiltzen direnean.

Horri dagokionez, errege dekretu horren 1. artikulua ezarri duenez, behin eta betiko euren lan jardura utzi dutelako, ordaineko langabezi prestaziorako eskubidea duten titularrek ordainketa bakarrean jaso ahal izango dute egindako kotizazioen araberrako zenbatekoaren egungo balioa, behin INEMen, lan elkartuko kooperatibako edo lan-sozietate bateko lan autonomo edo bazkide langile gisa lanbide jardueraren bat egingo dutela egiaztatutakoan.

Letra honetan araututako salbuespenak badu baldintza bat: akzio edo partaidetzari bost urteko epean eustea.

Salbuespen hau ez da ondoko kasuetan ezarriko:

- Langabeziaren ziozko prestazioa, ordainketa bakarrek modalitatean, 1996an jaso bazen, eta 1996. urtean eta 1997. urtean urteko zatien zerga-ordainketa etekin erregular gisa egitea aukeratu bazen, orduan 1998. urtean ekitaldi horri dagokion zatia aitortu beharko da, lan etekin erregular gisa, eta salbuespen esku-biderik gabe.
- Langabeziaren ziozko prestazioa, ordainketa bakarrek modalitatean, 1997an jaso bazen eta urte horretako zatien zerga-ordainketa etekin erregular gisa egitea aukeratu bazen, orduan 1998. urtean ekitaldi horri dagokion zatia aitortu beharko da, lan etekin erregular gisa, eta gehienez 500.000 pezetako salbuespena egiteko eskubidea du, baldin eta salbuespena 1997an agortu ez bada.
- ñ) Kanarietako Zerga eta Ekonomi Araubidea aldarazi zuen uztailaren 6ko 19/1994 Legeko 75. artikulua aipatu Ontzi eta Itsas Enpresen Erregistro Berrean izena eman eta betebeharraren edo norberaren betebeharraren zioz Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren menpekoak diren ontzietan egin izandako nabigazioaren zioz sortutako norberaren lanaren ondoriozko etekinen 100eko 50 zergatik salbuetsitakotzat joko da.

Ondoko errentak ere ez dira aitortu behar izango:

- o) Lanak egin behar direnean ohiko lantokitik kanpo, eta toki batetik bestera joateko sari eta diru-esleipenak jasotzen badira bidai gastuak egiteko, orduan lege bidez ezarrita dauden diru-kopuruak ez dira aitortu behar izango (ikus LAN ETEKI*Nei* buruzko II. kapitulua).
- p) Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren menpean dauden ondare gehikuntzak. Letra honetan aipatzen diren ondare gehikuntzak hauexek dira: aitortzaileak jaraunspen, legatu edo dohaintza dela-bide hartzen dituen ondasun edota eskubideen ondorioz agerian jartzen direnak (ez daude PFEZren menpean).
- q) Subjektu pasiboaren heriotzaren ziozko dohainezko eskualdaketengatik agertzen diren ondare gehikuntzak eta urripenak. "Hildakoaren gainbalioa"ri dagokio hau.
- r) Kostubidezko eskualdaketen ondorioz agertzen diren ondare gehikuntza garbiak; beraien kostu osoa egutegiko urtean zehar 500.000 pezetakoa baino handiagoa ez denean, salbu eta inbertsio kolektiboko erakundeen sozietate-kapitala edo ondarea ordezkatzan duten akzio zein partaidetzen eskualdaketak edota itzulketen zenbatekoaren zatia.
- s) Ondasun eta eskubideen eskualdaketaren ondoriozko gehikuntzak; baldin eta beraien titulartasuna subjektu pasiboari badagokio; horrezaz gainera, ondasun eta eskubide horiek ez dute lotuta egon behar subjektu pasiboak enpresario edo profesional gisa egiten duen jarduerarekin, eta haren ondarean irauten duten denborak ondoan azalduko diren urteena baino laburragoa izan behar du:
 - 10 urtekoa, erosi diren unetik 1996–12–31 arte zenbaturik, baldin eta ondoak badira:
 - Ondasun higiezinak.
 - Ondasun higiezinaren gaineko eskubideak.
 - Sozietate edo erakunde batzuen sozietate-kapitalaren edo ondarearen zatiak ordezkatzan dituzten baloreak; sozietate horien aktiboa, berriz, espainiar lurraldean dauden higiezinak osatu behar dute %50ean, gutxienez, salbu eta higiezin-inbertsioiko sozietate edo fondoaren sozietate-kapitala edo ondarea ordezkatzan duten akzio edota partaidetzak.
 - 5 urtekoa, erosi diren unetik 1996–12–31 arte zenbaturik, bigarren mailako merkatu ofizialetarik baten negoziazioan onartuta dauden balore higikorrek badira; merkatu horiek Baloreen Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legean ezarritakoak dira, bai eta baloreen bigarren merkatuak ere, apirilaren 4ko 710/1986 Errege Dekretuan xedaturikoarekin bat etorritik. Horri dagokio-larik, higikorren eta higiezinaren inbertsioiko sozietateen sozietate-kapitala ordezkatzan duten akzioak salbuetsita daude.
 - 8 urtekoa, erosi diren unetik 1996–12–31 arte zenbaturik, gainerako ondasun edota eskubideak badira.

- t) 65 urtekoak baino nagusiagoak diren pertsonak euren ohiko etxebizitza bizi arteko errenta baten truk eskualdatzearen ondorioz, ondarean agerian jarzen diren gehikuntza eta urripenak.
- u) Hainbat erakunderi dohaintzak egiten zaizkienean, eta horiengatik eskubidea badago kuotan kenkaria egiteko, orduan ondarean agerian jartzen diren gehikuntzak eta urripenak.
- v) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga ondare historikoaren zati diren ondasunak emanaz ordaintzen bada, orduan horren ondorioz ondarean agerian jartzen diren gehikuntza eta urripenak.
- w) Amnistiari buruzko 1977ko urriaren 5eko Legean (46/1977 Legean) araututako kasuen ondorioz atxilotuta egon zirenek hartutako kalte-ordainak.

NON AITORTU BEHAR DEN

- a) Ezein famili unitateren barruan ez dauden pertsona fisikoentzat: eskuduna Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saila da, baldin eta pertsonak euren ohiko egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan badute.
- b) Famili unitatearen barruko pertsona fisikoentzat:
 - Famili unitateko kideek zerga banaka aitortzen badute: eskuduna Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saila da, ohiko egoitza Bizkaian duten famili unitateko kideei dagokienez.
 - Famili unitateko kideek zerga batera aurkeztea aukeratzen badute: zerga Bizkaian aitortuko dute, baldin eta likidatuko den zerga oinarri handiena duen kideak ohiko egoitza Bizkaian badu; izan ere, oinarri hori zehaztuko da, zelan eta zergan norberari zein oinarri dagokion ezartzeko erabiltzen diren arauen arabera.
- c) Egoitza espainiar lurraldean ez duten pertsona fisikoentzat: Bizkaian aitortuko dute zerga, zerga ordainketa errealararen arabidean, betiere banaka errentak lurralde horretan lortzen dituztenean.

ZERGALDIA ETA ZERGAREN SORTZAPENA

Orokorrean, zergaldia egutegiko urtekoa da eta Zerga urtean urteko abenduaren hogeita hamaikan sortuko da. Horren ondorioz, 1998. urteko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpenaren barruan 1998. urtean zehar lortu, eratziki eta egotzi diren errenta guztiak sartu beharko dira; horiezaz gainera, zerga horri dagokiolarik, denboraldi horretan zehar gertatu eta zergari eragina izan dioten egitateak gogoan hartu beharko dira.

Salbuespen gisa, honako kasuetan zergaldia egutegiko urtekoa baino laburragoa da:

- a) Subjektu pasiboak zerga banaka aurkezten badu, bera abenduaren 31 ez den egun baten hiltzeagatik. Horrelakoetan, zergaldia urtarilaren 1etik heriotza gertatzen den egunerakoa izango da.

b) Zerga batera ordaintzen duten zergadunak:

- Lege bidez bananduta ez dauden ezkontideek eta, honelakorik dagoenean, 18 urtetik beherako seme-alabek eta epaileak ezgaitu eta luzaturik dagoen gurasoen ahalgopean dauden adin nagusiko seme-alabek eratutako famili unitateak:
- Ezkontza desegitearen ziozkoa; ezkontza bi arrazoiengatik desegin daiteke: ezkontideetarik bat hiltzeagatik edo dibortzioagatik.
- Ezkontzaren deuseztasunaren ziozkoa.
- Senar-emazteak banatzearen ziozkoa, epailearen epai bat dela bide.
- Aita edo ama ezkongabeak, alargunak, dibortziatuak edo bananduak eraturako famili unitateak, eta aita edo ama hiltzearen zioz eratutakoak.

Kasu horietarik edozein dela eta, zergaldia eten egiten da. Horrenbestez, lehenengo zergaldiari dagokiolarik, baterako aitortpena aurkeztu beharko da, bai eta bigarren eta, behar izanez gero, ondorengo zergaldiei dagozkienak ere.

c) Kode Zibilaren xedapenen arabera ekitaldian zehar ezkontzen diren zergadunak:

- Ezkontideek aitortpena batera egitea aukeratzen dutenean, ezkondu diren egunetik egutegiko urtea amaitu arteko denboraldiaren zioz, horrelakoetan, hauxe egin beharko da: egutegiko urtearen hasieratik ezkontza egiten den egunaren bezpera arte banaka egindako aitortpenak aurkeztu beharko dira; ondorik, ezkontza egiten den egunetik egutegiko urtea amaitu arteko epealdiaren zioz, batera egindako aitortpena egin beharko da.
- Famili unitate berriak zerga banaka aurkeztea aukeratzen duenean, zergaldia ez da geldiarazten.

NON AURKEZTU BEHAR DEN AITORPENA

Aitortpena finantza erakunde laguntzaileetara aurkeztu ahal izango da (banku, aurrezki kutxa eta abarretara) edo Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailera.

NORK SINATU BEHAR DUEN AITORPENA

- Zerga banaka aurkeztea aukeratzen denean: aitortpena zergadunak edo beraren ordezkariak sinatu beharko du.
- Famili unitateak zerga batera aurkeztea aukeratzen duenean, aitortpena hauek sinatuko dute:
 - a) Berton ezkontide biak daudenean, biek egingo dute, bietariko bat ezgaia denean edo batak besteari ordezkari emana dionean izan ezik.
 - b) Bertako kidea, ezkontide alarguna edo legez banandua denean, edo aita zein ama ezkongabea denean, horiek egingo dute.

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Zerga honen aitortpenarekin batera, honakook ekarri beharko dituzu:

1. Ez baduzu identifikazio etiketarik, aitortzailearen eta, egotekotan, ezkontidearen NANen fotokopiak erantsi beharko dituzu.
2. Jarraian adieraziko diren jatorrizko agiriak:
 - a) Norberaren lanaren atxikpenak direnean, 10-T eredia, behar bezala beteta. Lan harreman bereziak badaude, harreman horiek egiaztatzen dituen lan kontratua erantsi beharko da.
 - b) Norberaren lanaren etekinetan, gastu frogagaitzengatik %15eko kenkaria eginga bada, Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskudunak luzatu eta minusbalioa egiaztatzen duen ziurtagiria.
 - c) Higikorren kapitalaren etekinen konturako atxikpenak direnean, pertsona edo erakunde ordaintzailearen ziurtagiria, honako agirioi dituen:
 - Hartzailearen izen-deiturak eta egoitza.
 - Hartzailearen IFZ.
 - Etekinak ordaindu dituen pertsonaren edo enpresaren izen-deiturak edo sozietatearen izena, egoitza eta IFZ.
 - Urteko laburpenaren aurkezpen data eta hartzaileak laburpen horretan duen zenbakia. Aipatutako laburpen hori aurkezten ez denean, orduan hori egin ez dela agertaraziko du pertsona edo erakunde atxikitzaileak.
 - Ordainsarien zenbateko osoa.
 - Atxikitako kopurua.

Higikorren kapitalaren etekinak banketxeek edo aurrezki kutxek ordainduak direnean, aurreko ziurtagiriaren ordean, erakunde horiek interesatuei ordaindutako eta atxikitako kopuruak adierazteko igorri ohi dizkieten berriemateak erabili ahal izango dira.

- d) Higiezinaren kapitalaren atxikipenei dagokienez, 10-I eredia, behar bezala beteta.
 - e) Zergaren kontura zatikako ordainketak egin badira, sarrera horiek frogatzen dituzten ordain gutunak.
 - f) Gauzako ordainketei dagozkien konturako sarreraren ziurtagiria.
3. Ondasun higiezinaren erosketan edo hobekuntzan inbertituriko besteren kapitalen korrituen frogagiria.
 4. Uztailaren 5eko 96/1989 Foru Dekretuko 3. artikulua aipatzen dituen pentsio planei, borondatezko gizarte aurreikuspenarako erakundeei edo hautabideko sistemei egindako ekarpenen ziurtagiria.
 5. Konpentsaziozko pentsioak: epaia edo epailearen erabakia, bai eta kendu diren kopuru ordainduak egiaztatzen dituen frogagiria ere.

6. Kuotan eginiko kenkari guztien frogagiriak:
 - Famili liburuaren fotokopia (senar-emazteak, seme-alabak).
 - Elbarritasunaren zioz oinarrian bezala kuotetan kenkari eskubidea ematen duen minusbalioaren maila egiaztatzen duen ziurtagiria. Ukituriko pertsona Gizarte Segurantzak babesturik dagoenean, Lan eta Gizarte Segurantza Ministerioak edota autonomi erkidegoetan haren ordezkodirenek igorria izan beharko du. Ukituriko pertsona Gizarte Segurantzak babesturik ez dagoenean, ospe handiko mediku erakundeek edota alorreko espezialista den mediku batek baino gehiagok igorria izan beharko du. Frogagiri hau aurreko urteetan egin ez denean bakarrik aurkeztu beharko da.
 - Kenkari eskubidea duten aurrekoen erroldaketaren ziurtagiria.
 - Seme-alabak zaintzeagatik egon diren gastuen frogagiria.
 - Ohiko etxebizitzaren alogeragatik ordaindutako zenbatekoaren frogagiria.
 - Gaixotasun gastuen frogagiriak.
 - Inbertsioen frogagiriak.
 - Emari edo donatiboen frogagiriak.
 - Etab.
7. Erkideak ondasun erkidegoan duen partaidetzaren portzentajearen frogagiria.

AITORPENA AURKEZTEKO EPEA

Aitorpen mota guztietarako, positiboak, negatiboak zein itzultzeko eskubidedunak izan, 1999ko apirilaren 19tik ekainaren 25a artekoa da.

ZERGA AITORTZEKO AURKEZTU BEHARREKO INPRIMAKI EREDUAK

Zerga aitortzeko, bi eredu ezberdin daude:

- *Erraztua*: aitortenaren inprimaki honek lau orri ditu, eta hurrenez hurreneko zenbakiak dituzte orriek. Lehenengo orriak identifikazio datuak dauzka; bigarren eta hirugarren orriak zergaren aitorten-likidazioarenak dira; azkenik, laugarren orria eranskin modura ageri da, identifikazio etiketan dauden edo egon behar-ko luketen datuak aldarazi edo sartzeko.
- *Arrunta*: aitortenaren inprimaki arruntak hamahiru orri ditu, eta hurrenez hurreneko zenbakiak dituzte orriek. Lehenengo orriak identifikazio datuak dauzka, bigarren orritik zortzigarreneara bitartekoak zergaren aitorten-likidazioarenak dira; bederatzigarren orritik hamabigarreneara bitarteko orriak enpresa edota lanbide jardueren etekinen eranskinak dira; azkenik, hamahirugarren orria eranskina da, identifikazio etiketaren datuak aldarazteko.

NORK AURKEZ DEZAKEEN EREDU ERRAZTUA

Zergadun guztiek aurkez dezakete aitortpena eredu erraztuan; hala eta guztiz ere, ondoko hauek ezin izango dute eredu errazturik erabili:

- Enpresa, lanbide edota arte jardueren etekinak lortu dituztenek.
- Zergaldian errenta irregularrak lortu dituztenek:
 - a) Etekin irregularrak: subjektu pasiboak, denboran zehar irregulartasun handiarekin, lortzen dituen harako etekin guztiak edota, nahiz eta lorpen erregularra izan, ekoizpen zikloa urtebetetik gorakoa dutenak.
 - b) Ondarearen gehikuntza eta urripenak, baldin eta agertzen badira ondare elementuen eskualdaketan zioz, eta elementu horiek eskuratu badira gehikuntza edo urripena lortzen den data baino urtebete baino gehiago aurretik; bai eta ondarearen gehikuntza eta urripenak, baldin eta agertzen badira aurrekuntza berberarekin eskuratu diren baloreetatiko harpidetza eskubideen eskualdaketaren zioz.
- Berrinbertsioaren zioz osorik edo zati baten salbuetsita dauden ondare gehikuntzak lortu dituztenek.
- Zergaldian zehar, zerga-gardentasunaren araubideko zerga ordainketaren menpeko etekinak edo errentak lortu dituztenek.
- Zerga oinarri erregularra negatibo dutenak.
- Likidatuko den oinarri erregularra negatibo dutenak.
- Aurreko ekitaldietatik kopuruak konpentsatu barik dituztenek.
- Kenkariak kultur intereseko ondasunetan egindako inbertsioengatik izan dituztenek.

- Kenkariak lehentasuneko jarduera eta egitarauen inbertsioengatik izan dituztenek.
- Kenkariak, zerga-pizgarri edota kredituengatik, egin ditzaketenek.
- Kenkariak, Ceuta eta Melillan lortutako sarrerengatik, dituztenek.
- Nazioarte mailan, zergapean bi bider egoteagatik, kenkaria egin dezaketenek.

HAINBAT ARIKETA LABUR

1. Maria andrea 68 urteko alarguna da, eta 1998. urtean zehar errenta gordin hauek jaso ditu:

- Alarguntasun pentsioa 750.000 pezeta.
- Ondare gehikuntza garbia, ohiko etxebizitza bizi arteko errentaren truk eskualdatzeagatik lortutakoa 2.000.000 pezeta.

Ba al du betebeharrrik 1998ko ekitaldiko PFEZren aitortpena aurkezteko?

Ez, izan ere, aitortpena egiteko betebeharraren muga zehazteko, ez da kontuan hartu behar ondarean lortu den gehikuntza, gehikuntza hori ez baitago PFEZren menpean; gainera, pentsioaren zenbatekoak ez du gainditzen 1998ko ekitaldian aitortpena egiteko ezarrita dagoen muga, alegia, 1.250.000 pezeta gordin urtean, pentsio eta hartzeko pasiboetarako.

2. MM jaunak eta beraren ezkontide ÑÑk 1998an zehar ondoko errenta gordinok jaso dituzte:

MM jauna:

Higikorren kapitalaren etekinak	100.000
Ezgaitasun iragankorra	340.000
“Merkatugaiaren garraioa” ren jardueraren etekin garbia (Zeinu, indize eta modulukako zenbatespen objektiboa)	5.500.000

ÑÑ andreak:

Higikorren kapitalaren etekinak	100.000
---------------------------------------	---------

Zerga batera aurkeztea aukeratzen badute, 1998ko ekitaldiko PFEZren aitortpena aurkeztu behar ote dute?

Bai; izan ere, ez dituzte mugak gainditzen, norberaren lanerako, ez eta higikorren kapitalerako, baina ekonomi jarduera egite hutsak berez dakar aitortpena nahitaez aurkeztu beharra.

3. Epai baten bidez bananduta dagoen ama bat bere seme-alabekin biziz da; seme-alabok 14 eta 13 urtekoak dira, hurrenez hurren. Aitortpena aurkeztu ahal du, zerga-ordainketa batera eginda?

Bai; hain zuzen ere, famili unitatearen ereduatarik bat da, arautegiak jasotzen duenez: aita edo ama, dibortzizatuta dagoena, legez bananduta dagoena eta adingabeko seme-alabak, salbu eta gurasoen baimenarekin bakarrik bizi direnak.

4. Bikote bat egitez bizi da, legez ezkondata egon barik; bikote horrek aitortpena aurkeztu ahal du, baterako zerga-ordainketa aukeratuz?

Ez; izan ere, legez ezkondata ez dagoen bikotea ez da sartzen famili unitatearentzat ezarritako balizkoetarik ezeinetan ere.

5. Aitor eta Miren 1998ko abuztuaren 8an ezkondu ziren, zelan aurkeztu beharko lukete euren aitortpena PFEZri buruz?

Zerga aurkezteko aukera bi dituzte:

- a) Beraietarik bakoitzak bere aitortpena banaka aurkeztea, 1998ko ekitaldi oso-rako.
- b) Beraietarik bakoitzak bere aitortpena aurkeztea 1998ko urtarrilaren 1etik 1998ko abuztuaren 7rako epealdirako (219 egun); eta baterako aitortpena egitea, ezkondu ziren egunetik (abuztuaren 8tik) urtea amaitu arte (146 egun).

6. Ana andrea Felix jaunaren alarguna da, 1998ko martxoaren 13az gero, eta bere seme Aritz eta Jonekin bizi da; semeak 15 eta 19 urtekoak dira, hurrenez hurren. Ze aukera du zerga aurkezteko?

- a) Famili unitateko kideetarik bakoitzak aitortpena banaka egitea aukeratu ahal du, modu honetara:
 - Ana andreak eta beraren semeek aitortpena banaka aurkeztuko dute urte oso-rako.
 - Felix jaunaren (zenduaren) izenean, banakako aitortpena aurkeztuko da 1998ko urtarrilaren 1etik 1998ko martxoaren 13a arte (egun hau barne delarik).
- b) Aitortpena batera aurkeztu ahal izango dute, ondoko aukera hauek dituztelarik:

1. aukera:

- Senar-emazteak eta bere seme Aritzek: baterako aitortpena, Felix jauna hil zen eguna arte (1998-1-1etik 1998-3-13ra).
- Ana andreak eta beraren semeek banakako aitortpena aurkeztuko dute heriotzaren egunaren biharamunetik 1998ko abenduaren 31 arte.

2. aukera:

- Senar-emazteak eta bere seme Aritzek: baterako aitortpena, Felix jauna hil zen eguna arte (1998-3-13ra).
- Ana andreak eta beraren seme Aritzek aitortpena batera aurkeztu ahal izango dute heriotzaren egunaren biharamunetik (1998-3-14tik) 1998. urteko azken eguna arte. Beste semeak, Jonek banako aitortpena aurkeztuko du.

7. QQ jaunak hainbat lesio pairatu du istripu baten ondorioz; izan ere, istripu hori 1998ko abuztuan gertatu zen oporren bueltan zetorrelarik. Istripua sortu zuen

garraiolariaren bazkun aseguratzaileak 30.000.000 pezeta ordaindu dizkio. Kalte-ordain hori epai bidez finkatu zen.

Kalte-ordain hori 1998ko PFEZren aitortpenean sartu behar da?

Ez; egin-eginean ere, PFEZri buruzko 7/91 Foru Arauaren 9. artikuluko e) idatz-zatiaren arabera, pertsonai egiten zaizkien buru zein gorputzeko gaitzen ziozko kalte-ordainak salbuetsita daude, legez edo epai bidez aintzatetsita dauden kopuruari dagozkionez.

Kalte-ordaina QQ jaunaren bazkun aseguratzaileak ordaindu balu, istripu aseguru sinatzearen ondorioz, orduan, 25.000.000 pezeta salbuetsita egongo lirateke eta gainerako 5.000.000 pezetak ondare gehikuntza gisa aitortu beharko lirateke.

8. Zergadun batek, 1998ko ekitaldian, ezgaitasun iraunkor eta osoaren ziozko pentsioa jaso du, 950.000 pezetakoa. Horrezaz gain, 36.000 pezetako famili prestazioa jaso du, bere pentzuan duen seme batengatik.

Diru-kopuru horiek 1998ko PFEZren aitortpenaren barruan sartu behar al dira?

Norberaren lanaren etekinen artean, ezgaitasun iraunkor eta osoaren ziozko pentsioa sartu beharko du, ezik erabateko ezgaitasun iraunkorraren ziozko pentsioa eta elbarritasun handiarena bakarrik daude salbuetsita.

Bere pentzuan duen semearengatik jaso dituen famili prestazioak 1997az gero salbuetsita daudela dago adierazita.

II. KAPITULUA LAN ETEKINAK

ZER DIREN

Lan etekin osotzat, kontraprestazio edo onura guztiak hartzen dira, edozein dela euren izendazio edo jitea, zeintzuk subjektu pasiboaren beraren lanetik zuzenean edo zeharka sortu baina enpresa nahiz lanbide etekinak ez diren. Horri dagokionez, kontraprestazio edo onurek diruzkoak nola gauzaz lortutakoak hartuko dituzte, betiere subjektu pasiboaren beraren lanetik ordaindu edo sortzen direnean, edo lan harreman ondoriozkoak direnean.

Horrenbestez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 7/1991 Foru Arauaren 24. artikulua etekin mota horri emandako definizioa erabiliz, ondokoak izango dira etekin horien ezaugarriak:

- a) Subjektu pasiboak hartzen dituen kontraprestazio edo onura guztiak sartzen dira, edozein dela euren izendazio edo jitea. Horrenbestez, diruzko hartukizunak bezala gauzaz lortutakoak sartuko dira.
- b) Subjektu pasiboaren beraren lanetik sortu behar dira, zuzenean edo zeharka, edo lan harremanen ondorioz sortu behar dira. Horrenbestez, pentsio eta hartzeko pasiboek lan harremanen ondoriozko etekinen barruan egon behar dute.
- c) Ez dute enpresa edo lanbide etekinak izan behar. Hori dela eta, subjektu pasiboak ekoizbideak eta giza baliabideak edo horietarik bat bere kasa antolatzeko prozesuetan esku hartzea bada, orduan hortik ateratzen diren etekinak hemendik kanpo geldituko dira.

KONTRAPRESTAZIO EDO ONURAK. SARRERAK

Lan etekinen artean, bereziki, honako hauek sartuko dira:

- a) Soldadak eta euren osakinak.
- b) Lansari eta alokairuak.
- c) Haborokinak, pizgarriak, plusak eta aparteko ordainketak.
- d) Zerga honetako errenta salbuetsien barruan ez dauden sari eta kalte-ordainak.
- e) Langabeziaren ziozko prestazioak. Langabeziaren ziozko prestazioa ordainketa bakarreko modalitatean jasotzen denean, lanaren errenta erregular gisa egotzi ahal izango zaio (eskuliburu honetako I. kapituluaren zehaztutako kasuetan izan ezik), ordainketa bakarragatik izan ez balitz, prestaziorako esku-

bidea izango zuketean zergaldietako bakoitzari. Egozketa hori zergaldi bakoitzean, ordainketa bakarragatik egon ez balitz, prestaziorako eskubidea egongo zatekeen denboraldiaren heinean egingo da.

- f) Ordezkaritza gastu gisa egiten diren ordainketak.
- g) Pentsioak eta hartzeko pasiboak, edozein dela eurak hartzeko eskubidea sortu duen pertsona, eta zerga honetako errenta salbuetsien barruan ez daudelarik.
- h) Familientzako laguntza edo sorospenak eta beka, zerga honetako errenta salbuetsien barruan ez daudelarik.
- i) Bidai gastuetarako sari eta diru-esleipenak, salbu eta lokomoziokoak eta osalaritza establezimenduetako egonaldiarenak, arau bidez ezarrita dauden mugekin.
- j) Sozietate baten fundatzaile edota sustatzaileek euren zerbitzuen ordainketa gisa gordetzen dituzten diruzko eskubide bereziak. Horri dagokionez, beraien balorazioa, gutxienez, mozkinetako partaidetzarako eskubide horiei aintzatetsi zaien partaidetza berdina hartzeko bide ematen duen sozietate-kapitalaren balioaren %35ean.
- k) Ekainaren 30eko 6/1988 Foru Arauak eta zerga araubidea araupetzen duten gainerakoek aipatzen dituzten borondatezko gizarte aurreikuspenetarako erakunde onuradunek hartzen dituzten prestazioak, bai eta pentsio plan eta ekainaren 8ko 8/1987 Legeak araupetzen dituen hautabidezko sistemenak ere, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga ordaindu behar dutenean izan ezik.
- l) Izaera bereziko lan harremanek eratorritako ordainketak.
Langileen Estatutuan ezarritakoaren arabera, ondokoak hartuko dira lan harreman berezizat:
 - Merkataritzako ordezkariak.
 - Goi zuzendaritzakoak.
 - Familien etxeetako zerbitzukoak.
 - Kirolari profesionalak.
 - Presondegiako zigortutakoak eta abar.
- m) Gorte Orokorretako diputatu eta senadoreei, autonomia legegintza batzarretako kideei, Batzar Nagusietako ahaldunei, foru diputatuei, udaletako alkate nahiz zinegotziei eta probintzietako diputazioetako nahiz beste udal erakundeetako kideei, euren kargua dela eta, ordaintzen zaizkien kopuruak; nolana ere den, erakunde horiek kopuru horietatik bidai eta lekualdaketa gastuetarako esleitzen duten zatia alde batera utziko da.
- n) Europako Legebiltzarreko espainiar diputatuei euren kargua dela eta ordaintzen zaizkien kopuruak; erakunde horiek kopuru horietatik bidai eta lekualdaketa gastuetarako esleitzen duten zatia alde batera utziko da, nazioarteko hizarmen nahiz itunbenetan ezarritakoaren kalterik gabe.

- ñ) Espainiar funtzionarioek nazioarteko erakundeetan hartzen dituzten ordainketak, nazioarteko hitzarmen nahiz itunbenetan ezarritakoaren kalterik gabe.
- o) Legez aintzatetsita dauden erlijio sinesbideetako ministro edo apaizarenak egiteagatik lortzen diren kopuruak.
- p) Administrazio kontseiluetako edo berauen ordezko batzetako kideen ordainketak.
- q) Ezkontidearentzako konpentsazio pentsioak eta mantenurako urtekoak, judizio baten ondorioz gurasoek jasotzen dituztenak izan ezik.

ADIBIDEA:

Francisco jauna langabezia dago 1995eko martxoaren 17az gero; izan ere, egun horretan baxa hartu zuen enpresan, 35 urtetan lan egin eta gero; eta baxa hartu zuen, 1994ko abenduaren onetsitako enplegu erregulazioko espediente baten ondorioz. Enpresak 16.000.000 pezetako zenbatekoko kalte-ordaina finkatu zion, eta kalte-ordain hori zatika hartuko du ondorengo urteetan. Francisco jaunaren hileroko soldata 270.000 pezetakoa zen.

Kalte-ordain horren zioz jasotako kopuruak honako hauek dira:

1995. urtea: 2.450.000
 1996. urtea: 3.500.000
 1997. urtea: 3.500.000
 1998. urtea: 3.500.000
 1999. urtea: 3.050.000

Ebazpena:

- a) Bidegabeko irazpena gertatzen denean, langileari, Langileen Estatutuan ezarritakoaren arabera, laneko urte bakoitzeko alokairuaren 45 eguneko kalte-ordaina dagokio, muga 42 hilekoa delarik.
 - 1. 45×9.000 (alokairuaren 45 egun) = 405.000 pezeta
 - 2. Lanean egindako urteen kopurua \times alokairuaren 45 egun = $35 \times 405.000 = 14.175.000$ pezeta
 - 3. Gorengo muga, 42 hileko = $42 \times 270.000 = 11.340.000$ pezeta
 - 4. Salbuetsitako kalte-ordaina = 11.340.000 pezeta
- b) 1997ko abenduaren 31 arte hartutako kopuruak: 9.450.000
- c) 1998rako salbuetsita dagoen kalte-ordaina: $11.340.000 - 9.450.000 = 1.890.000$
- d) Kargapean dagoen kalte-ordaina, norberaren lanaren errenta erregular legez: $3.500.000 - 1.890.000 = 1.610.000$ pezeta

Joan-etorri eta bidai gastuen ziozko dietak:

Lanaren etekintzat, bidai gastuetarako sari eta diru-esleipenak hartuko dira, lokomozio gastuei, eta ostalaritzako establezimenduetako mantenu eta egonaldiaren ziozko gastu arruntei dagozkienak izan ezik.

Zergapetik salbuetsita dauden bidai gastuetarako sari eta diru-esleipenen berezitasunak:

- 1° Jatetxe, hotel eta ostalaritzako gainerako establezimenduetako mantenu eta egonaldiaren ziozko gastu arruntak izan behar dira, eta ondoko laukiko mugen barruan egon.

TOKIALDAKETEN ZIOZKO SARIAK

Ohiko lanlekuaren udalerria ez beste batera joatea			
Tokialdaketa-egun eta tokia egiaztatuz, bai eta horren arrazoi edo zioa			
Mantenu eta egonaldiaren ziozko zenbatekoa frogatuaz			
Espainiar lurraldea		Atzeritar lurraldea	
36.900 pezeta eguneko		61.000 pezeta eguneko	
Mantenu eta egonaldiaren ziozko gastuen zenbatekoa frogatu barik			
Espainiar lurraldea		Atzeritar lurraldea	
Gaua emanaz	Gaua eman barik	Gaua emanaz	Gaua eman barik
13.000 pezeta eguneko	3.600 pezeta eguneko	22.600 pezeta eguneko	7.700 pezeta eguneko
Aire bazkuretako hegaldiko langileak			
Mantenu eta egonaldiaren ziozko zenbatekoa frogatuaz			
Ez da zertan frogatu mantenu gasturik			
Espainiar lurraldea		Atzeritar lurraldea	
7.200 pezeta eguneko		13.100 pezeta eguneko	

Muga horien gainean dagoen gairikina kargapean egongo da.

- 2° Hartzailearen ohiko lanlekua ez beste bateko udalerrian egindako gastuen ziozko diru-esleipenak.
- 3° Zerbitzugintza lantoki higikor edo ibiltariak dituzten enpresetan bereziki emateko kontrataturik dauden langileen kasuan, langilearen ohiko egoitza den udalerrira ez beste batera egin beharreko joan-etorriei dagozkien diru-esleipenak zergapetik salbuetsita egongo dira.
- 4° Ohiko lanlekua ez beste udalerrira batera joan-etorri edo bertako egonaldia ez da ehun eta laurogeita hiru eguneko baino luzeagoa izango. Ehun eta laurogeita hiru eguneko epea honelaxe kontatuko da:
 - a) Udalerrira baten irauten duen epealdiaren zenbaketa ez da etengo, oportuntan, gaixotasunagatik edo destinoa aldarazten ez duten beste inguruabarreregatik ematen den denbora dela bide.
 - b) Egunak zenbatzen berriro hasiko da, langilearen ohiko lanlekuarena ez den beste udalerrira batera joaten den bakoitzean.
 - c) Udalerrira baten 183 egun egon eta gero, lekualdaketa hori dela-eta, bidai gastuetarako sari eta diru-esleipenen zioz, jasotako diru-kopuruak zergaren menpean egongo dira oso-osoan.

Kargatik salbuetsita dagoen saritzat hartuko da, destinoa Espainian edukiz gero lortuko zituzketen ordainsari osoen gainean hartu duten gaindikina, baldin eta zerga norberaren betebeharraren zioz ordaintzen dutenak destinoa atzerrian duten pertsona hauek badira:

- Espainiako funtzionario publikoak.
- Herri Administrazioaren zerbitzupeko langileak.
- Enpresen langileak, baldin eta destinoa atzerrian badute.

Ondokoak kargatik kanpo egongo dira: enplegatu edo langilearen tokialdaketa gastuak konpentsatzeko erabiltzen diren kopuruak, baldin eta langile hori fabrika, lan-tegi, bulego eta abarretatik kanpora joaten bada bere lana beste toki baten egiteko, ondorik azalduko den laukiko baldintza eta zenbatekoen arabera.

TOKIALDAKETA GASTUAK

Ohiko lanlekuaren lekua ez beste batera joatea	
1. Enpresak beren beregi ordaindu du egindako gastua	
a) Langileak herri garraiobideak erabili ditu	
Zenbatekoa faktura edo agiri baliokide batez frogatu da	
b) Gainerako kasuak	
Tokialdaketa benetan egin dela frogatuaz	
Gastuaren zenbatekoa frogatuaz	Gastuaren zenbatekoa frogatu barik
Beraren zenbatekoa	24 pezeta km-ko
2. Enpresak langileari medeapena egin dio, ordainsari oso eta orokorra emanaz	
Tokialdaketa benetan egin dela frogatuaz	
Gastuaren zenbatekoa frogatuaz	Gastuaren zenbatekoa frogatu barik
Ordaindutako zenbatekoa, baldin eta zenbateko hori bat badator, gutxi gorabehera, tokialdaketen ziozko gastu guztien zenbatekoarekin.	24 pezeta km-ko

Muga horien gainean dagoen gaindikina kargapean egongo da.

** Lan harreman bereziak*

Subjektu pasiboak lan etekinak lortzen baditu, eta beraien jatorria inoren menpeko lan harreman berezietan badago, orduan, subjektu pasiboak bere sarreretatik ondoko laukiko kopuruak kendu ahal izango ditu, bere etekin garbiak zehazteko; horretarako, ostera, zerbitzuak egiten dituen enpresak tokialdaketa, mantenu eta egoaldiaren ziozko gastuak ez dizkio beren beregi medeatu behar.

Tokialdaketa gastuak: 24 pezeta egindako kilometro bakoitzeko			
Mantenu eta egonaldiaren ziozko gastuak			
Ohiko lanlekuaren udalerria ez beste batera joatea			
Espainiar lurraldea		Atzerritar lurraldea	
Gaua emanaz	Gaua eman barik	Gaua emanaz	Gaua eman barik
13.000 pezeta eguneko	3.600 pezeta eguneko	22.600 pezeta eguneko	7.700 pezeta eguneko

Edozelan ere, langileak frogatu beharko du tokialdaketak benetan egin dituela.

**Lanpostua tokitik aldatzea*

Subjektu pasiboari lanpostua tokitik aldatzen bazaio beste udalerrri batera eta horregatik diru-kopuru batzuk ordaintzen bazaizkio, orduan kopuru horiek salbuetsita daude bidai gastuetarako emandako esleipen gisa hartzen baitira; horretarako, baldintza hauek bete behar dira:

- Lekualdatzeak egoitza aldatu beharra ekarri behar du.
- Hartzen diren kopuruak honako hauetarako bakarrik izan behar dira:
- Subjektu pasiboaren eta beraren senideen tokialdaketa eta mantenurako gastuetarako, lekualdaketa egin bitartean.
- Altzari eta tresnak lekutik aldatzeko gastuetarako.

ADIBIDEA:

Eleuterio Rodríguez jauna XX S.A. enpresaren langilea da; enpresa horren egoitza Bilbon dago; langileak 1998. urtean zehar hainbat lekutara joan behar izan du, enpresa horretan egiten duen lanarekin loturik dauden arazo batzuk direla medio. Horregatik, dieta edo sari batzuk sortarazi ditu; sari horien zenbatekoak ondoko zerrendan azalduko dira, bai eta bidaia horiek egiteko eman zituen egunak ere:

- Bidaia Oviedora: urtarrilaren 15etik 25era bitartean, egun biak barne (11 egun): 275.000 pezeta (eguneko, 25.000 pezetako saria). Mantenu eta egonaldiaren ziozko zenbatekoa frogatu da.
- Bidaia Gasteizera, otsailaren 1etik 5era bitartean, egun biak barne (5 egun): 50.000 pezeta (eguneko, 10.000 pezetako saria). Ez du mantenu eta egonaldiaren ziozko zenbatekoa frogatu.
- Bidaia Zaragozara, otsailaren 9tik 16ra bitartean, egun biak barne (8 egun): 120.000 pezeta (eguneko, 15.000 pezetako saria). Ez du mantenu eta egonaldiaren ziozko zenbatekoa frogatu.
- Bidaia Valentziara, otsailaren 20tik 24ra arte, egun biak barne (5 egun): 200.000 pezeta (eguneko, 40.000 pezetako saria). Mantenu eta egonaldiaren ziozko zenbatekoa frogatu da.
- Bidaia Sevillara, martxoaren 12tik urriaren 15era, egun biak barne (218 egun): 5.450.000 pezeta (eguneko, 25.000 pezetako saria). Mantenu eta egonaldiaren ziozko zenbatekoa frogatu da.

Ebazpena:

- Ovisedoko bidaia: guztia dago kargapetik salbuetsita.
 - Gasteizko bidaia: guztia dago kargapetik salbuetsita.
 - Zaragozako bidaia: 16.000 pezeta kargapean daude (2.000 x 8 = 16.000; 2.000 pezeta hartutako sariaren zenbatekoari dagozkio, betiere kargapetik salbuetsita dagoen sariaren zenbatekoaren gaindikinari dagokionez; 8, berriz, bidaiaren egunen kopuruari dagokio).
 - Valentziako bidaia: 15.500 pezeta kargapean daude (3.100 x 5 = 15.500; 3.100 pezeta hartutako sariaren zenbatekoari dagozkio, betiere kargapetik salbuetsita dagoen sariaren zenbatekoaren gaindikinari dagokionez; 5, berriz, bidaiaren egunen kopuruari dagokio).
 - Sevillako bidaia: 5.450.000 pezeta kargapean daude (langilea udalerrri berean, eta etenik gabe, 183 egun baino gehiagoko denboran egon da).
- Sari gisa, lanetik hartu dituen sarrera osoak guztira = 16.000 + 15.500 + 5.450.000 = 5.481.500.

Gauzako ordainsariak. Kontzeptu eta balorazioa

Gauzako ordainsariak honako hauek dira: nor bere xedeetarako ondasun, esku-bide nahiz zerbitzuak dohainik edota merkatuko prezio arrunta baino gutxiagokoan erabiltzea, kontsumitzea zein lortzea, emailearentzat benetako gastua ez bada ere.

Pertsona batek gauzako ordainsariak hartzen baditu, zerga aitortzean, lanaren sarrera osoen artean, ordainsari horien balorazioa eta kontura egindako sarrera baturatu, eta batura horixe jarri beharko du: Sarrera osoak = gauzako ordainsaria + kontura egindako sarrera. Edozelan ere, kontura egindako sarrera langilearen pentzuan izan denetan, lanaren sarrera osoen artean, gauzako ordainsarien balorazioaren diru-kopurua bakarrik jarri beharko du.

Besteak beste, honako hauek hartuko dira gauzako ordainsaritzat:

- a) Etxebizitzaren erabilpena, karguaren zioz, enplegatutako publiko edo pribatua izateagatik.

Balorazioa:

- Errentan hartutako etxebizitza, subjektu pasiboaren eskura jarritakoa: ordaindutako alojeraren zenbatekoa, baldin eta alojera enpresak ordaindu badu.
- Gainerako kasuetan:
 - Oro har, katastroko balioaren %2.
 - Higiezinak izan eta beraien katastroko-balioak berrikusi edo aldarazi badira, Toki Ogasunak araupetzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 70 eta 71. artikuluan araupetutako prozesuen arabera, eta balio horiek 1994ko urtarrilaren 1az gero jarri badira indarrean, orduan katastroko balioaren %1,1.
 - Higiezinak, zerga sortzen den egunean katastroko baliorik ez dutenak, edo titularrari jakinarazi ez zaion balioa dutenak: %1,10 x (%50 x ondare balioa).

Horrela lortutako balioak ezin du handiagoa izan, ordainsari hau sortarazi duen kargu edo enpleguaren zioz subjektu pasiboak berak hartutako lanaren gainerako kontraprestazioen %10ekoa baino.

b) Ibilgailu automobilen erabilpena edo ematea.

Balorazioa:

- Entrega denean, enplegatzailearentzako eskuraketa kostua, eragiketa kargatzen duten zergak barne.
- Erabilera denean:
 - Ibilgailua enpresarena bada: enplegatzaileak eskuratzeko ordaindu kostuaren 100eko 15.
 - Bestelakoetan: enpresak erabiltzeko ordaindu duen zenbatekoan.
- Erabili eta gero entregatzen bada, honelaxe jokatuko da: erabilera, lehen zehaztu den bezalaxe; eta entrega, berriz, merkatuko balio arruntean hartuko da.

Enpresak bere kontura hartzen baditu automobilaren erabilerearen ziozko gastu guztiak, hala nola, mantenimendua, erregaiak, konponketak, etab., orduan, horiek guztiak gauzako ordainsari lokabe edo independente izango dira, eta beraien balorazioa beraien zioz ordaindutako zenbatekoa izango da.

c) Diruaren legezko korritua baino txikiagoko maileguak, salbu eta 1992ko urtarriaren 1a baino lehen itundu direnak, beraien printzipala mailegu-hartzailearen eskura jarri bada egun hori baino lehen.

Balorazioa: ordaindu den korrituaren eta epealdian indarrean dirauen diruaren legezko korrituaren arteko kendura (1998. urtea = %5,5).

d) Mantenu, ostatu, turismoko bidaiak eta antzekoengatik egindako prestazioak.

Balorazioa: enplegatzailearen kostua, eragiketa kargatzen duten zergak barru daudelarik.

e) Enpresak aseguru kontratu edo antzeko beste bat dela-eta ordaindutako sari edo kuotak, salbu eta lan istripuko edo erantzukizun zibileko aseguruetakoa.

Balorazioa: enplegatzailearen kostua, eragiketa kargatzen duten zergak barru daudelarik.

f) Borondatezko gizarte aurreikuspenen eraundeen bazkide babesleek eta pentsio planen sustatzaileek ordaintzen dituzten kontribuzioak, bai eta enpresarioek pentsio planen ordezkotako gizarte aurreikuspeneko sistemarako ordaindu dituzten kopuruak ere, betiere berauek prestazioak lotuta dituzten pertsonen egozten zaizkienean.

Balorazioa: bazkide babesle edo sustatzaileak ordaindutako zenbatekoan. Horrelakoetan, eta salbuespen gisa, zenbateko hori lanaren etekin garbieraren atalean sartuko da; edozelan ere, zenbateko hori zerga oinarri erregularra txikitzeko erabili ahal izango da.

- g) Subjektu pasiboaren edo beronekin senidetetasunaz lotuta dauden beste pertsonen ikasketa eta mantenuen gastuak ordaintzeko diren kopuruak. Hala eta guztiz ere, gauzako ordainsarien kontzeptutik kanpo ondokoak daude: erakunde, enpresa edo enplegatzaileek xedatutako ikasketak, eta beraiek zuzenean ordaindu badituzte, eta helburua langileen egunerapen, gaikuntza edo birziklapena bada, jardueren garapenak edota lanpostuen ezaugarriek horretara behartzen dutenean; eta hori horrela izango da, ikastaroak pertsona edo erakunde espezializatuek ematen dituztenean ere.

Balorazioa: enplegatzailearen kostua, eragiketa kargatzen duten zergak barru daudelarik.

- h) Ekonomi edukia duten eskubide bereziak, baldin eta sozietate baten fundatzaile edo sustatzaileek euren buruarentzat euren zerbitzuen ordainsari gisa gorde badituzte.

Balorazioa: eskubideak erakundearen mozkinen gaineko portzentaje bat direnean, gutxienez, mozkinetako partaidetzarako eskubide horiei aintzatetsi zaien partaidetza berdina hartzeko bide ematen duen sozietate-kapitalaren balioaren %35ean baloratuko dira.

- i) Gainerako kasuetan.

Balorazioa: merkatuko balio arruntean.

Ondokoak ez dira gauzako ordainsaritzat hartuko:

- Ekoizkinen entregak, prezio merkatuetan, baldin eta enpresetako taberna eta jantokietan edo gizarteko ekonomatuetan egiten badira.
- Enpresetako jantokietan prezio merkatuetan burutzen diren ekoizkin-entregak, baldin eta entrega horiek zuzeneko formulen bidez egin badira.
- Enpresetako jantokietan prezio merkatuetan burutzen diren ekoizkin-entregak, baldin eta entrega horiek egin badira zerbitzuak emateko zeharkako formulen bidez eta zenbatekoa 1.100 pezetakoa baino handiagoa ez bada egunean.
- Langileen gizarte eta kulturaren arloko zerbitzuetarako erabilitako ondasunen erabilpena.
- Sozietatean lanean diharduten langileei dohainik edo merkatuko balio arrunta baino txikiagoa den prezioan ondoko zerrendako sozietateen akzioak edo partaidetzak ematea, 500.000 pezetarainoko zatian, urtean, edo 1.000.000 pezetaraino, azken bost urteetan:
- Langileek zerbitzuak egiten dituzten zerbitzuen sozietatea.
- Taldeko sozietate nagusia edo azpitalde bereko beste edozein sozietate, baldin eta haien zerbitzuak hartzen dituen sozietatea sozietateen taldekoa bada.

Kasu biotan entrega sozietateak berak egin dezake, bai eta taldeko beste edozein sozietatek, edo akzioen titularrak den herri izaki, edo estatuaren sozietate edo herri administrazioak.

Betiere, hurrengo baldintzok bete behar dira:

- 1go.) Eskaintza sozietatearen edo sozietateen langile guztientzat baldintza berberetan egitea.
- 2gn.) Langile horiek, beraien ezkontideek edo bigarren gradurainoko senideek batera 100eko 5 baino gehiagoko partaidetzarik ez izatea zuzenean edo zeharka, zerbitzuak egiten dituzten sozietatean edo taldeko beste ezein sozietatetan.
- 3gn.) Tituluei gutxienez hiru urtez eustea. Epe hori betetzen ez bada, berez aitorten-likidazio osagarria aurkeztu beharko da, berandutza korritu egoiak eta guzti, beharkizuna betetzeari utzi zaion unetik eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko hurrengo urteko aitortpena egiteko epea amaitu arteko tarte horretan.
- 4gn.) Sozietateen taldeentzat ezarritako entregei dagokienez, entrega horiek talde horrentzat ezarritako ordainsari-politikaren esparruan gertatzea.

KEN DAITEZKEEN GASTUAK

Honako hauek bakarrik kendu ahal izango dira gastu legez:

1. Gizarte Segurantzari edota funtzionarioen nahitaezko mutualitate orokorreari egiten zaizkien kotizazioak.
2. Eskubide pasiboen ziozko murrizpenak.
3. Zurtzen erakundeei nahiz antzeko erakundeei egiten zaizkien kotizazioak.
4. Sindikatuei ordaintzen zaizkien kuotak.
5. Bestelako gastu gisa:
 - a) Oro har, sarrera osoen zenbatekoaren gainean %5 ezartzearen ondoriozko diru-kopurua; zenbateko horretan ez dira bazkide babesleek borondatezko gizarte aurreikuspenarako erakundeei egindako kontribuzioak sartu behar, ez eta pentsio planen sustatzaileek egindako ekarpenak ere. Honengatik gehienez ken daitekeena 250.000 pezetako diru-kopurua da.
 - b) Salbuespen gisa, portzentaje hori %15eraino igoko da, 600.000 pezetako gehieneko mugarekin, baldin eta langileak itsu, mutilatu, elbarri fisiko edota psikikoak badira, jatorrizkoak bezala gertaerabidezkoak, eta legez %33ko edo gehiagoko mailako minusbaliatua bada, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuaren 148.1. artikuluko baremoaren arabera; horrezaz gainera, minusbalio hori Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskudunak luzatutako ziurtagiri baten bidez egiaztatuta behar dute.

ETEKIN GARBIA

Lanaren etekin garbia lortzeko, eragiketa hau egingo da: sarrera osoei gastu kengarriak kenduko zaizkio, eta eragiketa horren emaitza izango da etekin garbia.

1. Oro har:

Etekin garbia = sarrera osoak – zergan ken litezkeen gastuak – sarrera osoen %5 + bazkide babesleak BGA Eri edo sustatzaileak pentsio planei egindako ekarpenak.

- Sarrera osoen %5 ≤ 250.000 pezeta.

2. Salbuespen gisa, %33ko edo gehiagoko mailako minusbalioa duten langileak:

Etekin garbia = sarrera osoak – zergan ken litezkeen gastuak – sarrera osoen %15 + bazkide babesleak BGA Eri edo sustatzaileak pentsio planei egindako ekarpenak.

- Sarrera osoen %15 ≤ 600.000 pezeta.

BAKOITZARI DAGOZKION ETEKINAK

Subjektu pasiboak famili unitatearen barruan badaude, baina aukeratzen badute PFEZren aitortpena banaka aurkezteko, orduan, lan etekinak, eurak hartzeko eskubidea sortu duenari bakarrik dagozkie.

Hala ere, pentsioak eta hartzeko pasiboak aintzatetsita dituzten pertsoneri dagozkie.

LAN ETEKINEN ATZERAKINEN ZIOZ HARTUTAKO KOPURUEN AITORTPENA (20/92 FD, 14. ART., SEIGARREN IDATZ-ZATIA)

Zergadunari ez dagozkion inguruabarrak direla eta, aurreko ekitaldietako lan etekinak hartu badira atzerakin legez, orduan zenbateko horiek ekitaldi egokirako edo egokietarako egotzi beharko dira; horretarako, aitortpen-likidazio osagarria aurkeztu beharko dute, zehapenik jaso gabe, eta errekar gurik jasan gabe. Aitortpena aurkezteko epea honako hau izango da: atzerakinak jasotzen dituzten egunetik PFEZren aitortpenak aurkezteko dagoen hurrengo epearen amaiera artekoa.

KASU PRAKTIKOA

Antonia Lekue andrea ezkondua da, baina ez du seme-alabarik; 1998. urtean zehar, kimika enpresa batentzat egin du lan eta ondoko etekin hauek lortu ditu:

Diru-sarrerak = 5.400.000 pezeta.

Enpresaren jabetzapeko etxebizitzan du egoitza; haren katastroko balioa ez da berriz ikusi eta 2.750.000 pezetakoa da.

Enpresak 180.000 pezetako ekarpena egin du, Antonia andrearentzat, BGAE baten bazkide babesle gisa.

Egindako atxikipena eta gauzako ordainsarien gainean egindako sarrerak %20koak izan dira.

Gizarte Segurantzaren zioz, 290.000 pezeta ordaindu ditu.

Ebazpena:

- Diruzko ordainsariak:

Diru-sarrerak = 5.400.000 pezeta

- Gauzako ordainsariak:

Enpresaren jabetzapeko etxebizitzaren erabilera: %2 x 2.750.000 = 55.000 pezeta

Gauzako ordainsarien kontura egindako diru-sarrera: %20 x 55.000 pezeta = 11.000 pezeta.

- Gauzako ordainsariak guztira: 55.000 + 11.000 = 66.000 pezeta

Enpresak BGAERI egin dion ekarpena lanaren etekin garbi gisa hartuko da; ez dago derrigorrik kontzeptu horren zioz kontura diru-sarrerarik egiteko.

Sarrera osoak = 5.400.000 + 66.000 = 5.466.000 pezeta

Ken daitezkeen gastuak:

Gizarte Segurantzaren = 290.000 pezeta

Sarrera osoen %5 = 250.000 pezeta (5.466.000 x %5 = 273.000, 250.000 pezetako gehieneko muga gainditzen duenez gero, zergari dagokionez, azken zenbatekoa ken daiteke)

Gastuak guztira: 290.000 + 250.000 = 540.000

Etekin garbia = 5.466.000 - 540.000 + 180.000 = 5.106.000 pezeta.

IFZ		Lehen delitura				Bigarren delitura				Izena		1998
A	Norberaren lanaren etekinak											
Hartzaillea (A, E, 1, S-A, 2, S-A)...	1		A	16		31				46		
Atxikipenak	2	1.080.000		17		32				47		
Lang. jasan. konturako sarrerak ..	3			18		33				48		
Diru-sarrerak	4	5.400.000		19		34				49		
Gauzako ordainsariak	5	55.000		20		35				50		
Lang. jasan gabeko kont. sar.	6	11.000		21		36				51		
Sarrerak guztira	7	5.466.000		22		37				52		
Sindikatuaren kuotak	8			23		38				53		
Gizarte Segurantzaren	9	290.000		24		39				54		
Lan harreman bereziak	10			25		40				55		
Minusbaliatuak (%15)	11			26		41				56		
Sarrera osoen %5	12	250.000		27		42				57		
Gastuak guztira	13	540.000		28		43				58		
Enpresaren ekarpena BGAE eta PIRrental	14	180.000		29		44				59		
Etekin garbia	15	5.106.000		30		45				60	61	5.106.000

III. KAPITULUA

HIGIKORREN KAPITALAREN ETEKINAK

ZER DIREN

Higikorren kapitalaren etekin osotzat, onura nahiz kontraprestazio osoak hartuko dira, baldin eta zuzenean edo zeharka subjektu pasiboaren titulartasunpeko ondare elementu, ondasun nahiz eskubideetatik badatoz eta hark egiten dituen enpresa edo lanbide jardueri loturik ez badaude.

Ondokoak ez dira higikorren kapitalaren etekin legez zenbatuko:

- Hartzen diren akzio askatuen balioa.
- Harpidetza eskubideak saltzeagatik hartzen den zenbatekoa.
- Enpresa edo lanbide jardueretan barrena eragiketak geroratu edo zatitzeagatik lortutako zenbatekoa.

ETEKIN OSOAK

Higikorren kapitalaren etekin osotzat, honako hauek hartuko dira:

A. Edozein erakunderen fondoetan parte hartzeagatik lortzen diren etekinak

Kategoria honen barruan sartzen dira:

- Dibidenduak eta, orokorrean, sozietate eta elkarten mozkinetako partaidetzak.
- Batzetara joateagatik primak.
- Kooperatiben itzulkinak. Ez dira higikorren kapitalaren etekintzat hartuko, baldin eta
 - Kapitalerako erabiltzen badira.
 - Galerak konpentsatzeko erabiltzen badira.
 - Batzarrak araupetutako fondo berezirako erabiltzen badira.
- Aktiboen klase guztietatik datozen etekinak, salbu eta estatutuetan edo sozietatearen organoaren erabaki batez askaturik dauden akzioen entrega; horrezaz gainera, akzio horiek ahalmena eman behar dute parte hartzeko norberaren lanaren ordainsaria ez beste kari baten zioz, sozietate edo elkarte baten mozkin, salmenta, eragiketa, sarrera edo antzeko kontzeptuetan.
- Bazkide, akziodun edo elkartua izateagatik, erakundeari hartzen zaion beste edozein onura.

Zerga oinarriaren osagaiak (ZO).

Egoitza espainiar lurraldean duten erakundeak	Portzentajea hartutako zenbateko osoaren gainean	
	Zerga oinarrian sartzea	Kenkaria kuotan
Oro har	%140	%40
Aseguru orokorretako mutuak	%125	%25
Gizarte aurreikuspeneko erakundeak	%125	%25
Gizarte Segurantzaren lan istripuetako eta lanbide gaixotasunetako mutuak	%125	%25
Elkarrekiko berme sozietateak eta fidantza-menduko sozietateak, martxoaren 11ko 1/1994 Legeak araupezen dituenak	%125	%25
Kreditu sozietate kooperatibak eta baserriarren kutxak	%125	%25
Elkargoak; enpresa elkarteak; ganbera ofizialak; hiri jabetzaren ganbera ofizialak; merkataritza, industria eta nabigazio ganberak; nekazaritza ganberak; arrantzaileen kofradia; langileen sindikatuak; alderdi politikoak	%125	%25
Fundazioak, eta irabazasmorik ez duten establezimendu, erakunde eta elkarteak, baldin eta abenduaren 5eko 9/1995 FAn ezarritako zerga araubidea lortzeko betekizunak ez badituzte.	%125	%25
Enplegua sustatzeko fondoak	%125	%25
Kooperatiben batasun, federazio eta konfederazioak	%125	%25
Bilboko Balore Burtsako kide diren legezko baldintza duten balore eta burtsako sozietate eta agentziak	%125	%25
Bilboko Balore Burtsan negoziatorako lehenengoz onartuak diren baloreak dituzten sozietateak	%125	%25
Kooperatiba babestuak (kooperatiben itzulkinak)	%100	%10
Babes berezia duten kooperatibak (kooperatiben itzulkinak)	%100	%5
Higikorretako inbertsiorako sozietateak, baldin eta beraien sozietate-kapitala ordezkaten duten baloreak Balore Burtsan negoziatorako onartuta badaude	%100	%0
Higikorretako inbertsiorako fondoak eta moneta-merkatuko aktiboetako inbertsio-fondoak	%100	%0
Higiezinetak inbertsioko sozietate eta fondoak, baldin eta beraien xede bakarra ondokoa bada: hiri-higiezinetan inbertsioa egitea, errentatzeko, baldin eta etxebizitzak erakunde horien aktibo osoaren %50 edo gehiago badira	%100	%0
Higiezinetak inbertsioko sozietate eta fondoak, baldin eta beraien sozietate-xede bakarra etxebizitzetan inbertsioak egitea bada, ondorik errentatzeko	%100	%0
Hipoteka-merkatuko herri izaerako araupeketa-fondoa	%100	%0

Egoitza espainiar lurraldean duten erakundeak	Portzentajea hartutako zenbateko osoaren gainean	
Kasu bereziak	Zerga oinarrian sartzea	Kenkaria kuotan
Akzio edota partaidetzen dibidenduak, baldin eta haiek eskuratu badira dibidenduak ordaindu eta ondorengo bi hilabeteetan, eta epe berberaren barruan, hau da, ondorengo bi hilabeteetan, balore homogeenak eskualdatu badira	%100	%0
Kapitala txikitzearen ondoriozko dibidenduak, baldin eta txikipena egiteko, ekarpenak itzuli eta jaulkipen prima banatu bada	%100	%0
Espainiar lurraldean egoitzarik ez duten erakundeak	%100	%0

B. Norberaren kapitalak gainontzekoei lagatzeagatik lortutako etekinak

Horrelakotzat hartuko dira edozelako kontraprestazioak, izan diruzkoak, izan gauzakkoak, edozein dela beraien izendazioa, baldin eta norberaren kapitalak gainontzekoei lagatzeagatik lortu badira.

Kategoria honen barruan sartzen dira:

a) *Etekin implizituak*. Horretakotzat, jaulkipen, lehen ezarpen edo endosuan ordaindutako zenbatekoaren eta, besteren baliabideak lortzeko erabili ohi diren balore higikorretarik edozeinen bidez osotoro edo zati batez euren etekina implizituki ezarria duten harako eragiketen amaieran berreskuratzeko hitz emandakoaren arteko diferentziaren bidez sortutakoak jotzen dira. Etekin implizituen barruan, besteak beste, ondoko hauek sartuko dira:

- Jaulkipen, amortizazio eta itzulketa primak.
- Igorpena egiteko edozein tresna, bai eta merkataritzako eragiketetan endosua edo eskualdaketa egiten den uneaz gero sortarazitakoak ere, salbu eta endosu edo lagapena hornitzaileentzako kreditu baten ordain gisa egiten denean.
- Altxorreko letrak.
- Altxorreko ordaindukoak.
- "Zero kupoi" aren obligazioak.

Zelan zenbatuko diren etekin implizituak, zeintzuk diren beraien osagaiak eta konpentsazioa:

1. Etekinak banan-banan zenbatuko dira, titulu edo aktibo bakoitzeko.

- Izaera honetako finantza-aktiboak mugaeguneratzen direnean, zergari dago-kionez zenbatu daitekeen zenbatekoa berau izango da: itzulketa edo amortizazio balioaren eta eskuraketa edo harpidetzan ordaindutakoaren arteko diferentzia positiboa:

Etekin implizitua= itzulketa balioa – eskuraketa edo amortizazio balioa > 0

- Aktiboak mailegu-emailearen edo inbertsiogilearen karteran irauten badu bere indarraldi osoaren denboraldia baino laburragoa den epean zehar, orduan etekina honelaxe zenbatuko da: eskualdaketa balioaren eta eskuraketa edo harpidetza balioaren arteko kenduran:

$$\text{Etekin implizitua} = \text{eskualdaketa balioa} - \text{eskuraketa edo itzulketa balioa} > 0$$
2. Etekin implizitu positiboak zerga oinarriaren barruan sartuko dira.
 3. Etekin implizitu negatiboak ez dira zerga oinarrian sartuko.
 4. Eskuraketa eta besterentzearen gastu gehigarriak zenbatu egingo dira, etekina zenbatekotzeko, baldin eta behar bezala frogatzen ez badira.
- b) *Etekin esplizituak*. Horrelakotzat hartuko dira aldian-aldian hartzen diren korrituak, bai eta gainontzekoei norberaren kapitalak lagatzearen ziozko ordainsari gisa beren beregi ituntzen den beste edozein kontraprestazio ere:
- Mailegu orokor, herri zor, obligazio, bonu eta antzeko tituluen korrituak; kontu korronteko gordailu, eperako kontu, finantza kontu edota antzeko forma juridikoetako korrituak.
 - Kooperatiben kapitalera egindako ekarpenaren korrituak.
 - Norberaren kapitalak gainontzekoei lagatzearen kontraprestazio gisa itundutako ordainsarietarik beste edozein, baldin eta etekin implizituen barruan ez badago sarturik.
- Etekin esplizituak sortarazten dituzten baloreak saltzen direnetan, hauxe nabarmendu behar da: lortutako errenta ez da higikorren kapitalaren etekin gisa hartuko, ezpada ondare gehikuntza edota urripen gisa.

Zelan zenbatuko diren etekin esplizituak:

- Diruzko ordainsariak direnean, zenbatu behar den zenbateko osoa ekitaldian eska daitekeen zenbateko osoa izango da, beronen barruan atxikipenaren zenbatekoa barruan delarik.
- Gauzako ordainsariak direnean, zenbatu behar den zenbateko osoa hauxe izango da: merkatuko balioa gehi kontura egindako sarreraren %25. Horri dagokionlarik, merkatuko balioa izango da, ordaintzailearentzako eskuraketa edo kostuaren balioa gehi %25:

Gauzako ordainsariaren merkatuko balioa = ordaintzailearentzako eskuraketa balioa edo kostua + %25 x ordaintzailearentzako eskuraketa balioa edo kostua.

Gauzako ordainsariaren kontura egindako sarrera = %25 x gauzako ordainsariaren merkatuko balioa.

Gauzako ordainsariari zenbatu behar zaion zenbateko osoa = gauzako ordainsariaren merkatuko balioa + gauzako ordainsariaren kontura egindako sarrera.

c) *Etekin mistoak*

- Etekin esplizituak: nork bere kapitalekin gainontzekoei egindako lagapena ordezkatzan duten baloreetatiko etekinak etekin esplizituen araubideari jarraituko zaizkio, baldin eta urtean ekoizten duten jite honetako eskudirua, jaulkipe-

na egiten den ekitaldiari dagokion Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauan honetarako finkatzen den korritu tasa edo, beronen ezean, egun horretan indarrean dirauen diruaren legezko korritu tasa bezain handia edo handiagoa bada, nahiz eta jaulkipen, amortizazio edo itzul-keta baldintzetan osotara edo zati batez, inplizituki, beste etekin gehigarri bat finkatu.

- Etekin inplizituak: nork bere kapitalekin gainontzekoei egindako lagapena ordezkatzan duten baloreetatiko etekinak etekin inplizituen araubideari jarraituko zaizkio, urtean ekoizten duten jite honetako eskudirua lehen aipatutako tasak ezartzearen ondorioz aterako litzatekeena baino txikiagoa denean.

1986. ekitalditik 1998kora artean jaulkitako finantza-aktiboentzat aintzat hartu beharreko tasak:

TITULUA JAULKITZEKO DATA	JAULKIPEN EPEA		
	≤ 4 urte	> 4 urte eta ≤ 7	> 7 urte
1986. Urte osoa	10,5	10,5	10,5
1987. Urte osoa	9	9	9
1988. Urte osoa	9	9	9
1989. 1. hiruhilekoa	9	9	9
1989. 2. hiruhilekoa	10,763	10,763	10,763
1989. 3. hiruhilekoa	11,042	11,042	11,042
1989. 4. hiruhilekoa	11,212	11,212	11,212
1990. 1. hiruhilekoa	11,316	11,316	11,316
1990. 2. hiruhilekoa	12,486	12,486	12,486
1990. 3. hiruhilekoa	12,505	12,152	10
1990. 4. hiruhilekoa	12,442	12,268	11,498
1991. 1. hiruhilekoa	12,445	12,296	12,296
1991. 2. hiruhilekoa	10,610	10,499	11,411
1991. 3. hiruhilekoa	9,300	9,199	9,201
1991. 4. hiruhilekoa	9,718	9,677	9,665
1992. 1. hiruhilekoa	9,638	9,465	9,350
1992. 2. hiruhilekoa	9,532	9,175	8,758
1992. 3. hiruhilekoa	9,700	9,375	8,891
1992. 4. hiruhilekoa	10	10	10
1993. 1. hiruhilekoa	11,296	10,958	10,494
1993. 2. hiruhilekoa	10,502	10,210	9,912
1993. 3. hiruhilekoa	8,591	8,624	8,624
1993. 4. hiruhilekoa	6,542	6,748	7,016

TITULUA JAULKITZEKO DATA	JAULKIPEN EPEA		
	≤ 4 urte	> 4 urte eta ≤ 7	> 7 urte
1994. 1. hiruhilekoa	5,650	5,725	6,126
1994. 2. hiruhilekoa	5,272	5,366	5,862
1994. 3. hiruhilekoa	7,537	8,082	8,358
1994. 4. hiruhilekoa	8,398	8,830	8,881
1995. 1. hiruhilekoa	9,160	9,516	9,764
1995. 2. hiruhilekoa	9,733	10,340	10,380
1995. 3. hiruhilekoa	9,458	9,671	9,829
1995. 4. hiruhilekoa	8,375	8,676	8,969
1996. 1. hiruhilekoa	7,206	7,426	7,793
1996. 2. hiruhilekoa	6,961	7,433	7,994
1996. 3. hiruhilekoa	5,957	6,387	7,243
1996. 4. hiruhilekoa	5,668	6,096	6,879
1997. 1. hiruhilekoa	3,854	4,276	5,111
1997. 2. hiruhilekoa	3,910	4,299	5,146
1997. 3. hiruhilekoa	3,152	3,634	4,842
1997. 4. hiruhilekoa	3,178	3,581	4,528
1998. 1. hiruhilekoa	2,893	3,294	4,011
1998. 2. hiruhilekoa	2,310	2,682	3,458
1998. 3. hiruhilekoa	2,348	2,643	3,298
1998. 4. hiruhilekoa	1,959	2,339	3,102

Etekin aldakor edo flotakorra duten finantza-aktiboak jaulkitzen direnetan, beraiek etekin esplizitua edo implizitua diren zehazteko, eragiketaren benetako korritu gisa barne etekinaren tasa hartuko da, eta jite esplizituko etekinak bakarrik hartuko dira kontuan eta, behar izanez gero, tasa kalkulatu sortzen diren etekin behin betiko zenbatekoa aldian-aldian finkatzeko dagoen parametroaren hasierako balorazioaren arabera.

ADIBIDEA

Kasimiro Garmendia jaunak 1997ko abuztuan 20 obligazioen harpidetza egin zuen urtebeterako; obligazio bakoitzaren balio izendatua 100.000 pezetakoa izan zen; korritua, beziriz, %4,5ekoa izan zen, mugaegunean ordaintzekoa; jaulkipen prima, azkenik, %3koa izan zen.

Ebazpena

Obligazio horien etekinak mistoak dira, eta ondoko emaitzak izan dituzte:

Esplizituak: korrituak = $20 \times 100.000 \times \%4,5 = 2.000.000 \times \%4,5 = 90.000$ pezeta

Inplizituak: jaulkipen prima, $2.000.000 - 1.940.000 = 60.000$ pezeta

Jaulkipena egin zenean, 1997. urteko hirugarren hiruhilekoan, indarrean ziraueen tasa, aipagunekoa, %3,152koa zen. Itundu den etekin esplizitua, %4,5ekoa, handiagoa denez aipaguneko tasa hori baino, lortu diren etekin guztiek etekin esplizituen araubidean dira.

Horrenbestez, Kasimiro jaunak 90.000 pezetako zenbatekoa hartu beharko du, higikorren kapitalaren etekin esplizituen korritu gisa, ezik erakunde ordaintzaileak zenbateko horren gainean egin dute %25eko atxikipena ($90.000 \times \%25 = 22.500$ pezetak). Jaulkipenaren baldintzen artean jarri zen mugaeguneratzea urtebetera joango zela; hori dela eta, korritu horiek errenta erregular gisa hartuko dira.

Obligazioak amortizatueran lortu den mozkina, jaulkipen primari dagokiona, ondare gehikuntza erregularizat hartuko da, amortizazioa urtebetekoa baita:

Ondare gehikuntza erregularra = $2.000.000 - 1.940.000 = 60.000$ pezeta

C. Higikorren kapitalaren bestelako etekinak

- a) Jabetza intelektualetikoak, subjektu pasiboa egilea ez denean. Jabetza intelektualeko etekinak, egileek eurek jasotzen badituzte, lanbide edo arte jardueretatikako etekin gisa hartuko dira.
- b) Subjektu pasiboak egiten dituen enpresa edo lanbide jardueri loturik ez dagoen jabetza industrialetikoak.
- c) Laguntza teknikoa ematekoak, salbu eta enpresa jardueraren baten barruan ematen denean.
- d) Enpresa jarduera ez diren ondasun higikor, negozio edota meatzeak errentatze-tikoak.
- e) Sorburutzat kapitalen ezarpena duten bizi arteko errentak edota aldi baterako beste batzuk, betiere beraien eraketa Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren menpean ez dagoenean.

Bizi arteko errentak: zerga honen menpeko bizi arteko errentei dagokienez, higikorren kapitalaren etekin osotat, urteko bakoitzari portzentaje batzuk ezartzetik ateratzen den emaitza hartuko da; izan ere, portzentaje horiek errentadunaren adinari dagozkio, errenta eratzen den unean:

Urtekoaren gainean zenbatu beharreko etekina	Hartzailearen adina haiek eratzean
%70	50 urtekoa baino gazteagoa
%50	50 urtetik 59ra bitartekoa
%40	60 urtetik 69ra bitartekoa
%30	69 urtekoa baino nagusiagoa

Portzentaiek errentaren indarraldian zehar iraungo dute.

Aldi baterako errentak badira, etekintzat haien zenbatekoaren %60 hartuko da.

f) Kapitalizazio eragiketetatikoak.

g) Higikorren kapitalaren etekinak, alegia, aseguru kontratuetatik datozenak, baldin eta aurrerabizirako prestazio aseguratua, heriotzarako edo elbarritasunerako beste edozeinekin konbinatzen badute, eta ondorengo ezaugarrietarik baten bat badute:

- Urtebete baino gutxiagoko iraupena.
- Urtebeteko iraupena edo luzeagokoa, zeinetan heriotzarako lehenengo hiru urteetan zehar ezarri den prestazio osoa epealdi berean aurrerabizirako ezarri denaren %150ekoa baita.
- Urtebeteko iraupena edo luzeagokoa, zeinetan lehen urtearen barruan jazo-kizun honetarako ezarritako prestazioen %50 baino gehiagoko zenbatekoa duen aurrerabizirako aseguraturako prestazioen zatietarik bat ordaintzen baita, elbarritasunaren ziozko kapitalak edo errentak direnean izan ezik.
- Urtebeteko iraupena edo luzeagokoa, aldi aldiko kopuruak eskudiruz edo ta gauzaz ematen direnean, lehenengo hiru urteen barruan, korrituengatik, mozkinetako partaidetzarengatik edo aurrekoen beste baliokide batengatik, hartzen duten itxura kontuan hartu gabe.

h) Kudeatzailea ez den bazkideak partaidetzako kontuetan jasotzen dituen emaitzak.

ZERGAN KEN DAITEZKEEN GASTUAK ETA LEGEZKO TXIKIPEN OROKORRA

1. Orokorrean. Higikorren kapitalaren etekin garbia zehazteko, administrazio eta zaintzaren ziozko gastuak bakarrik kendu ahal izango dira gastu legez.
2. Laguntza teknikoa eman eta ondasun higikorren, negozio zein meatzeak errentatetik datozen etekinak. Etekin osoetatik berauek lortzeko behar diren gastuak kenduko dira, bai eta sarrerak sortarazten dituzten ondasunek jasaten duten nariaduraren zenbatekoa ere.

Atal honetan ken daitezkeen gastuak behin kendu eta gero, higikorren kapitalaren etekinak 29.000 pezetan txikituko dira urtean, hala eta guztiz ere, txikipen hori egin da, etekin garbia ezin da negatiboa izan:

- a) Diru-sarreraren eta zergan ken daitezkeen gastuen arteko kendura 29.000 pezeta-koa baino txikiagoa bada, ezar daitezkeen atxikipena kendura hori beste izango da.
- b) Diru-sarreraren eta zergan ken daitezkeen gastuen arteko kendura 29.000 pezeta-koa edo handiagoa bada, ezarriko den txikipena 29.000 pezeta-koa izango da.

BAKOITZARI DAGOZKION ETEKINAK

Subjektuak famili unitatearen barruan badaude, eta zergaren aitortpena banakako zerga-ordainketara aurkezten badute, orduan higikorren kapitalaren etekinak ondare-osagaien, ondasun edota eskubideen subjektu pasibo titularrek lortu dituztela ulertuko da, eta ondoko arauok hartuko dira kontuan:

- Kasuan-kasuan, titulartasun juridikoari buruz dauden arauak.
- Subjektu pasiboek ekarritako frogak.
- Administrazioak aurkitutako frogak.
- Ezkontzaren araubide ekonomikoa arautzen duten xedapenak.
- Famili unitatearen kideen arteko ondare harremanei ezartzen zaizkien legeria zibileko manuak.

Ondasun eta eskubideen titulartasuna, ezkontzaren araubide ekonomikoa dagozkion xedapenen arabera haiek ezkontide bienak direnean, erdibana eratzikiko zaie.

KASU PRAKTIKOA

Jesús Martínez jaunak baloreen kartera bat du. Erakunde gordailuzainak emandako urteko laburpenaren arabera, ondoko datu eta kopuruok atera dira:

- Sozietateen gaineko Zerga ordaintzen duten akzioen dibidenduak, hobari eta txikipenik ez dutenak: Sarrera osoa = 100.000 pezeta; atxikipena = 25.000 pezeta; administrazio eta zaintzako gastuak = 2.500 pezeta.
- Kooperatiba babestu baten itzulkinak: Sarrera osoak = 50.000 pezeta; atxikipena = 12.500 pezeta.
- Babes berezia duen kooperatiba baten itzulkinak: Sarrera osoak = 250.000 pezeta; atxikipena = 62.500 pezeta.
- Hobaridun bonuen korrituak: Sarrera osoa = 200.000 pezeta; egindako atxikipena = 2.400; eratziki dakioken atxikipena = 45.600 pezeta; administrazio eta zaintzako gastuak = 5.000 pezeta.
- Obligazioen korrituak: Sarrera osoak = 150.000 pezeta; atxikipena = 37.500 pezeta; administrazio eta zaintzako gastuak = 3.500 pezeta.
- Kontu korrante baten korrituak = Sarrera osoak = 25.000 pezeta; atxikipena = 6.250 pezeta.
- Eperako ezarpenaren korrituak: 250.000 pezeta; atxikipena = 62.500 pezeta.

Era berean, gauzako ordainsari gisa, erloju bat eman diote; bera eskuratzeko erakundeak ordaindu duen balioa 75.000 pezeta-koa izan zen; kontura egindako sarrera = 23.438 pezeta.

- 1998-XII-1ean Altxorrek letra batzuk mugaeguneratu ziren; letra horiek 1997-XII-1ean harpidetu ziren. Harpidetza prezioa 2.750.000 pezeta-koa izan zen, eta urtebete geroago 3.000.000 pezeta jaso zituen. Eragiketaren gastuak 25.000 pezeta-koa izan ziren.

Ebazpena:**Sarrera osoak:**

- Sozietateen dibidenduak: Sarrerak = $100.000 \times \%140 = 140.000$; atxikipena = 25.000
- Kooperatiba babestu baten itzulkinak: Sarrerak = 50.000; atxikipena = 12.500
- Babes berezia duen kooperatiba baten itzulkinak: Sarrerak = 250.000; atxikipena = 62.500

Dibidenduak eta sozietateen mozkinetako partaidetza guztira = 440.000; atxikipena = 100.000

- Hobaridun bonuen korrituak: Sarrerak = 200.000; atxikipena = $200.000 \times \%1,2 = 2.400$
- Obligazioen korrituak: Sarrerak = 150.000; atxikipena = 37.500

Obligazio, bonu eta etekin implizituen korrituak guztira = 350.000; atxikipena = 39.900

- Kontu korrontearen korrituak: Sarrerak = 25.000; atxikipena = 6.250
- Eperako ezarpenaren korrituak: Sarrerak = 250.000; atxikipena = 62.500

Ageriko, aurrezko eta eperako k/k.en korrituak, eta gordailu ziurtagiriak guztira: Sarrerak = 275.000; atxikipena = 68.750

- Gauzako ordainsariak: Merkatuko balioa = 75.000 + 18.750 = 93.750; Konturako sarrerak = 23.438; gauzako ordainsariak guztira = 93.750 + 23.438 = 117.188
- Atxikipenik gabeko etekinak: Eskuraketa balioa = 2.750.000; balio izendatua - eragiketaren gastuak = 3.000.000 - 25.000 = 2.975.000; Atxikipenik gabeko etekinak = 225.000

Sarrerak guztira = 440.000 + 350.000 + 275.000 + 117.188 + 225.000 = 1.407.188

Atxikipenak eta konturako sarrerak guztira = 100.000 + 39.900 + 68.750 + 23.438 = 232.088

Gastuak guztira = 2.500 + 5.000 + 3.500 = 11.000

Aurretiazko etekin garbia = 1.407.188 - 11.000 = 1.396.188

Etekin garbia guztira = 1.396.188 - 298.000 = 1.367.188

Kenkariak: Akzioen dibidenduen zioz = 40.000; kooperatiba babestuen itzulkinengatik = 5.000; babes berezia duten kooperatiben itzulkinengatik = 12.500. Dibidenduen ziozko kenkariak guztira = 40.000 + 5.000 + 12.500 = 57.500

Eratxiki daitezkeen atxikipenak = $200.000 \times \%22,8 = 45.600$

B	Higikorren kapitalaren etekinak	Atxikipenak / Konturako sarrerak		Sarrerak	
	Dibidenduak, sozietateen mozkinetako partaidetza	75	100.000	81	440.000
	Obligazio, bonu eta etekin implizituen eta abarren korrituak	76	39.900	82	350.000
	Ageriko, aurrezko eta eperako k/k.en korrituak, eta gordailu ziurtagiriak	77	68.750	83	275.000
	Higikorren kapitalaren beste etekin batzuk	78		84	
	Gauzako ordainsariak (79)ko zenbatekoa sarrerren zutabeko zenbaki berekora eroango da)	79	23.438	85	93.750
	Gauzako ordainsarien konturako sarrerak			79	23.438
	Atxikipenik gabeko etekinak			86	225.000
	Atxikipenak / Konturako sarrerak guztira eta Sarrerak	80	232.088	87	1.407.188
	Administrazio eta zainza gastuak			88	11.000
	Ken litezkeen beste gastu batzuk			89	
	Gastuak guztira (88) + (89)			90	11.000
	Aurretiazko etekin garbia (87) - (90)			91	1.396.188
	Etekin garbi txikitua: (91) - 29.000 pta.			92	1.367.188

IV. KAPITULUA HIGIEZINEN KAPITALAREN ETEKINAK

ZER DIREN

Landa eta hiri-ondasun higiezin nahiz berauen gaineko eskubide errealeen titular-tasunetik datozen etekinak, subjektu pasiboak egiten dituen enpresa edo lanbide jardueri lotuta ez badaude, higiezin kapitalaren etekin osotzat hartuko dira.

SAILKAPENA.

ZENBATU DAITEZKEEN GASTUAK ETA ZERGAN KEN DAITEZKEEN GASTUAK, KASUEN ARABERA

Kontzeptua	Zenbatu daitezkeen sarrerak	Zergan ken daitezkeen gastuak
Ohiko etxebizitza	<ul style="list-style-type: none"> Oro har, katastroko balioaren %2. Katastroko balioaren %1,1, baldin eta higiezin katastroko balio horiek berrikusi edo aldarazi badira, zelan eta Toki Ogasunak araupetzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 70 eta 71. artikuluetan araupeturiko prozedurekin bat etorritz, eta prozedurok indarrean 1994ko urtarrilaren 1az gero jarri badira. Higiezinak, zerga sortzen den egunean katastroko baliorik ez dutenak, edo titularrari jakinarazi ez zaion balioa dutenak: %1,1 x (%50 x ondare balioa) 	<ul style="list-style-type: none"> Ondasun Higiezinaren gaineko Zergako kuota eta errekarquak, premia-menduzkoa izan ezik. Etxebizitzaren erosketan edota hobekuntzan inbertitu diren kapitalen korrituak, muga 800.000 pezetakoa delarik. Zerga batera ailtortzen denean, muga hori 1.000.000 pezetakoa da.
Jabeak erabiltzen dituen baina ohikoak ez diren beste etxebizitzak	<ul style="list-style-type: none"> Oro har, katastroko balioaren %2. Katastroko balioaren %1,1, baldin eta higiezin katastroko balio horiek berrikusi edo aldarazi badira, zelan eta Toki Ogasunak araupetzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 70 eta 71. artikuluetan araupeturiko prozedurekin bat etorritz, eta prozedurok indarrean 1994ko urtarrilaren 1az gero jarri badira. Higiezinak, zerga sortzen den egunean katastroko baliorik ez dutenak, edo titularrari jakinarazi ez zaion balioa dutenak: %1,1 x (%50 x ondare balioa) 	<ul style="list-style-type: none"> Ondasun Higiezinaren gaineko Zergako kuota eta errekarquak, premia-menduzkoa izan ezik.
Errentan edo azpierreant emandako higiezinak	<ul style="list-style-type: none"> Errentari edo azpierreantariari kontzeptu guztien zioz hartzen zaion zenbatekoa: zenbateko horren barruan higiezinarekin batera lagatako ondusunena sartuko da, BEZa kenduta. 	<ul style="list-style-type: none"> Ondasun edota eskubideen eskuraketan edo hobekuntzan inbertitu diren besteren kapitalen korrituak eta finantzaketarako gainerako gastuak. Ondasun edo eskubide bakoitzaren zenbatekoa ezin da haren lagapenarengatik lortzen diren etekin osoen zenbatekoa baino handiago izan. Estatuarenak ez diren zerga eta errekarquak, bai eta estatuaren tasa, errekarquak edo kontribuzio bereziak ere, legez bidez ezin jasanaraz daitezkeen, euren izendazioa edozein delarik ere, baldin eta zenbatzen diren etekin gainekoak edo berauen ondasun edo eskubide ekoizleen gainekoak izan, baina zehapenak ez badira. Gainontzekoek, zuzeneko nahiz zeharkako kontraprestazio gisa, edo norberaren zerbitzuen ondorioz, sortzen dituzten diru-kopuruak, hala nola, administrazio, jagotza, atezaintza-koak zein antzekoak. Errentamendua, azpierreantamendua edo lagapena, formalizatzeo sortarazten direnak, eta ondasun edota etekinei doazkien izaera juridikoko defentsaren ziozkoak ere.

Concepto	Ingresos computables	Gastos fiscalmente deducibles
		<ul style="list-style-type: none"> • Zalantzako kobrantzako saldoak, zorduna ordainketa etendura, porrotean edo antzeko egoera baten dagoenean, edo subjektu pasiboak kobratzeko egiten duen lehenengo kudeaketaren unearen eta zergaldiaren amaierakoaren artean, urtebete baino gehiago igarota izan, baina kreditua eraberritua ez denean. • Artapen eta konponketako gastuak. • Etekinak ekoizten dituzten ondasun edota eskubideen gaineko aseguru kontratuen primen zenbatekoa, kontratuok erantzukizun zibilekoak, sutekoak, lapurretakoak, beiren hausturakoak edo antzeko jitekoak direlarik. • Zerbitzu nahiz horniduretarako jarritzen diren diru-kopuruak. • Higiezinak amortizatzeke erabiltako diru-kopuruak, %1,5ean urtean, Ondarearen gaineko Zergari dagokionez ondasun horiek duten balioaren gainean, baina lurraren balioa sartu barik; horrezaz gainera, egindako amortizazioen baturak ezin du ondasunaren eskuraketa balioa baino handiagoa izan.
Errentan edo azpierrean emandako higiezinak, baldin eta errentatzaile eta errentaria edo azpierreantzaile eta azpierreantaria senideak badira, hirugarren graduaraino, berau barne	<ul style="list-style-type: none"> • Oro har: etekin garbiak ezin du higiezinaren katastroko balioaren %2 baino txikiagoa izan. • Katastroko balioaren %1,1, baldin eta higiezinaren katastroko balio horiek berrikusi edo aldarazi badira, zelan eta toki ogasunak araupezen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 70 eta 71. artikuluetan araupezuriko prozedurekin bat etorritik, eta prozedurok indarrean 1994ko urtarrilaren 1az gero jarri badira. • Higiezinak, zerga sortzen den egunean katastroko baliorik ez dutenak, edo titularrari jakinarazi ez zaion balioa dutenak: etekin garbiak ezin du ondokoa baino txikiagoa izan: %1,1 x (%50 x ondare balioa) 	
Luperketako eskubide errealak	Eskubidearen titularrari zenbatu behar zaion etekina jabeari legokiokeena izango da, honi dagokionez.	
Eraikitzen dauden higiezinak	Ez da etekinik zenbatuko.	
Hirigintza dela kari ezin erabili daitezkeen higiezinak	Ez da etekinik zenbatuko.	

Aurreko laukian ezarritakoari dagokionez, ondasun higiezinaren ondare balioa ondoko hiru eratarik handiena izango da:

- katastroko balioa,
- Administrazioak zergetarako egiaztatutakoa, edo
- prezioa, kontraprestazioa edo eskuraketa balioa.

Oharra: zergapeko errentamenduak, BEZetik salbuetsita ez daudenak, direnean, gastuak zenbatzeko, zerga horren zioz jasandako kuotak baztertuko dira.

BAKOITZARI DAGOZKION ETEKINAK

Subjektu pasiboak famili unitatearen barruan egon arren, euren zergaren aitortpena banaka aurkezten dutenean, higiezinaren kapitalaren etekinak, horien iturburu diren ondare-osagaien, ondasunen edo eskubideen subjektu pasibo titularrek lortutakotzat joko dira, honako hauek kontuan hartuta:

- Kasuan-kasuan, titulartasun juridikoari buruz dauden arauak.
- Subjektu pasiboek ekarritako frogak.
- Administrazioak aurkitutako frogak.
- Ezkontzaren araubide ekonomikoa arautzen duten xedapenak.
- Famili unitatearen kideen arteko ondare harremanei ezartzen zaizkien legeria zibileko manuak.

Ondasun eta eskubideen titulartasuna, ezkontzaren araubide ekonomikoi dagozkion xedapenen arabera haiek ezkontide bienak direnean, erdibana eratzikiko zaie.

Luperketako eskubide errealak: etekin osoa eskubidearen titularrari egotzi beharko zaio. Hau da, gozamenari dagokionez, etekin osoa gozamenduak aitortu beharko du, ez jabe soilak.

KASU PRAKTIKOA

Alberto Pérez jauna lau hiri-higiezin jabea da; higiezinotariko bat ohiko etxebizitza da. Higiezinotarik bakoitzaren datuak hurrengo hauek dira:

- Ohiko etxebizitza, Portugaleten:
Etxebizitza 1996ko urriaren 1ean erosi zen. Erosketa balioa 17.000.000 pezetakoa izan zen. Bera erosteko, mailegua eskatu zuen; mailegu horren zioz, 350.000 pezeta ordaindu ditu 1998. urtean zehar, korritu gisa, eta 250.000 pezeta ordaindu ditu printzipala amortizatzea-gatik. Katastroko balioa esleitzeko dago.
- Apartamentua Nojan:
Apartamentu hau 1990eko ekainaren 5ean erosi zuen, 6.500.000 pezetako zenbatekoan. Bera erosteko, mailegu hipotekarioa eskatu zuen; beraren zioz, 150.000 pezeta ordaindu ditu 1998an zehar korritu gisa, bai eta 240.000 pezeta ere, amortizaziorako. Katastroko balioa berriro ikusi da, Toki Ogasunak araupetzen dituen Legearen arabera, eta 3.000.000 pezetan finkatu. Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren zioz, 18.000 pezeta ordaindu ditu.
- Errentan emandako etxebizitza Gorlizen:
Etxebizitza hau 1988az gero dago errentan emanda Alberto jaunaren arreba bati. Katastroko balioa 1.950.000 pezetakoa da eta, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergako kuota gisa, 21.177 pezeta ordaintzen zaizkio. Alogeraren zenbatekoa 10.000 pezetakoa da hilean. Beraren balioa, Ondarearen gaineko Zergari dagokionez, 6.500.000 pezetakoa da; hortik, %25 lurzoruaren balioari dagokio. 1998. urtean zehar, Alberto jaunak 19.500 pezeta ordaindu ditu, etxebizitza horren suteen aurkako aseguruaren ziozko prima gisa.
- Errentan emandako lokala, Galdakaon:
Katastroko balioa 2.500.000 pezetakoa da eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zergako kuota, berriz, 25.500 pezeta
Balioa, Ondarearen gaineko Zergari dagokionez, 8.000.000 pezetakoa da; hortik, %25 lurzoruaren balioari dagokio. Alogeraren zenbatekoa 400.000 pezetakoa da. 1996an, mailegua eskatu zuen, hobekuntza batzuk egiteko, 6.000.000 pezetako zenbatekoan; mailegu horren zioz, 450.000 pezeta ordaindu ditu, korritu gisa, eta 250.000 pezeta, amortizaziorako. Lokal honek gastu batzuk izan ditu 1998an zehar, errentariari jasanarazi ez zaizkionak:
- Erantzukizun zibileko aseguruia..... 95.000 pezeta
- Argi-sistema konpontzeko gastua 35.000 pezeta

Ebazpena

- Ohiko etxebizitza, Portugaleten
 Sarrerak: $\%1,1 \times (\%50 \times 17.000.000) = 93.500$
 Gastuak: 350.000
 Etekin garbia = -256.500

- Nojako apartamentua
 Ingresos: $\%1,1 \times 3.000.000 = 33.000$
 Gastuak: 18.000 = 18.000

Etekin garbia = 15.000

- Gortzen errentan emandako etxebizitza. Ondokoetarik handiena aitortuko da:
 Sarrerak. $(10.000 \times 12) = 120.000$
 Gastuak = 113.802
 Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga = 21.177
 Amortizazioa: $\%1,5 \times \%75 \times 6.500.000 = 73.125$
 Aseguru primak = 19.500

Kendura = 6.198

Katastroko balioaren $\%2 = 39.000$

Etekin garbia = 39.000

- Galdakaon errentan emandako lokala
 Sarrerak = 400.000
 Gastuak = 645.500
 Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga = 25.500
 Korrituak = 400.000
 Aseguru primak = 95.000
 Konponketa gastuak = 35.000
 Amortizazioa = $6.000.000 \times \%1,5 = 90.000$
 Etekin garbia = - 245.500

Etekin garbia guztira = $-256.500 + 15.000 + 39.000 - 245.500 = - 448.000$

C		Higiezinaren kapitalaren etekinak					
Datuak		Ohiko etxebizitza		Beste higiezin batzuk		Errentaturiko higiezinak	
Higiezinaren kopurua	100	1	106	1	111	2	
Sarrerak	101	93.500	107	33.000	113	43.900	
Ondasun Higiezinaren gaineko Zergako kuota eta errekariguak	102		108	18.000	114	25.500	
Etxebizitzan sarturiko besteren kapitalen korrituak	103	350.000			115	400.000	
Ken litezkeen beste gastu batzuk					116	220.000	
Ken litezkeen gastuak guztira	104	350.000	109	18.000	117	645.500	
Etekin garbia	105	- 256.500	110	15.000	118	- 206.500	
Etekin garbia guztira $105 + 110 + 118$	119					- 448.000	

V. KAPITULUA

ENPRESA NAHIZ LANBIDE JARDUEREN ETEKINAK

ZER DIREN

A. Enpresa jardueren etekinak.

Enpresa jardueren etekintzat, norberaren lanetik eta kapitaletik batera, edo bietarik batetik bakarrik datozenak hartuko dira, subjektu pasiboak bere kontura ekoizbide eta giza baliabideak edo berauetatik bata bakarrik antolatzea baitakarte, ondasun nahiz zerbitzuen ekoizpenean edota banaketan esku hartzeko.

Bereziki, enpresa jardueren etekintzat hartuko dira erauzkintza, fabrikagintza, merkataritza, zerbitzugintza, nekazaritza, abeltzaintza, basozaintza edo arrantzatik datozenak, bai eta eskulangintzatik eta Ekonomi Jardueren gaineko Zergako tarifetako lehenengo sekzioaren menpean daudenetatik ere.

Higiezinen errentamendua enpresa jardueratzat hartuko da, baldin eta jarduera hori egiteko, horretarako bakarrik erabiltzen den lokala eduki eta, gutxienez, jarduera horretan ari den pertsona bat, lan kontratuduna, edukitzen bada.

B. Lanbide jardueren etekinak.

Profesionalak norberaren lana eta kapitala batera, edo bietarik bat bakarrik antolatu beharra duten jarduerak egiten dituzten pertsona fisikoak dira, betiere ondasun eta zerbitzuen ekoizpenean edo banaketan esku hartzeko egiten dutenean.

Profesionaltzat bereziki lanbide liberalean dihardutenak hartuko dira, eta zehatz-mehatz:

- Ekonomi Jardueren gaineko Zergako tarifetako bigarren sekzioaren menpean daudenak.
- Komisiodunak eta merkataritzako agenteak (lan kontraturik gabekoak).
- Zerga-biltzaileak.
- Jabetza industrialaren edo intelektualaren titularrak (hura egilearena denean).
- Euren egoitzetan, etxeetan edota soldata finkorik hartzen ez duten ikastegi edo establezimenduetan jarduera egiten duten irakasleak.
- Hitzaldi, mintzaldi edo ikastaroen ziozko ordainketak.

C. Artista edo kirolarien etekinak.

Loturarik gabe, banaka edo taldeka, lokal publiko zein pribatuetan, kirolen edo ikuskizunen batean esku hartzen duten pertsona fisikoak artista edo kirolari izango dira.

Bereziki, Ekonomi Jardueren gaineko Zergako tarifetako hirugarren sekzioaren menpean daudenak izango dira.

D. Errenten eratzikipen araubideko erakundeak.

Erakundeek errenten eratzikipen araubidean enpresa edo lanbide jarduerak egiten badituzte, errenta horiek bazkide, jaraunse, erkide edo partaideei eratzikiko dizkiete, kasuan-kasuan ezartzen diren arau edo itunen arabera, baina horiek zeintzuk diren sinesgarriri ez badaki Administrazioak, orduan zati berdinetan eratzikiko zaizkie.

Horrela lorturiko errentak enpresa edo lanbide jarduerak izango dira, erakundeak egindako jardueraren izaeraren arabera.

Ohar garrantzitsua: jarduera mota hau egiten dutenek beti bete beharko dituzte D₁, D₂, D₃ edota D₄ eranskinak, inprimakiaren 9, 10, 11 edota 12. orrietakoak, bakoitzaren atalean edo ataletan.

ETEKIN GARBIA ZEHAZTEKO MODUAK

1. Zuzeneko zenbatespenaren araubidea:

Honako hauek daude araubide honen menpean:

- a) *Profesionalak*, baldin eta aurreko ekitaldian izan dituzten sarrera guztiak 5.000.000 pezeta baino gehiagokoak badira, edota alokairupeko langileak badituzte.
- b) *Enpresarioak*, baldin eta aurreko ekitaldian izan dituzten salmenta edo sarrerak 50.000.000 pezeta baino gehiagokoak badira, edota plantilan dauden langileak, ekitaldiko edozein egunetan, 12 baino gehiago badira, baina egin den jarduerak ez du zenbatespen objektiboko zeinu, indize edo moduluen sistemaren menpean egon behar (ikus VII. kapitulua).

2. Koefizientekako zenbatespen objektiboa:

Araubide honen menpean egongo dira, berari beren beregi uko egin diotenean izan ezik, aurreko 1. atalean adierazitako mugak gainditzen ez dituzten enpresarioak zein profesionalak; gainera, enpresarioei dagokienez, egiten dituzten jarduerak ez dute zenbatespen objektiboko zeinu, indize edo moduluen sistemaren menpean egon behar (ikus VII. kapitulua).

3. Zeinu, indize edo modulukako zenbatespen objektiboa:

A. Enpresa jarduerak

Araubide honen menpean egongo dira, berari beren beregi uko egin diotenean izan ezik, jarraian adieraziko diren jarduerak egiten dituzten enpresarioak, baldin eta ondoko mugak gainditzen ez badituzte:

- a) Sarreren kopuruaren arabeko neurria: 50.000.000 pezeta:

- Abeltzaintza lokabea.
- Ganadua hazi, zaindu eta loditzeko zerbitzuak.
- Nekazariak edo abeltzainek egindako bestelako lan eta zerbitzu osagarriak, baldin eta BEZaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide berezitik kanpo badaude.
- Nekazaritza edo abeltzaintzako jarduera, BEZaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide berezian sartu ahal dena.

Sarreren kopuruak bere baitan hartuko ditu jarduera horien multzoan lortutako guztiak, baina kanpoan utziko dira diru-laguntza arruntak edo kapitalekoak eta kalte-ordainak.

Sarrera guztien kopurua gaindituz gero, subjektu pasiboek zehaztu beharko dute zein den zuzeneko zenbatespenaren metodoaz zehaztutako lehengo jarduera guztien etekin garbia.

b) Neurri zehatzak:

Ekonomi jarduera	Neurria (Pertsona enpleguatuak)
Metalezko arozgintza, eta metalezko egitura eta galdaren fabrikazioa	5
Burdineria, sarrailegintza, torlojogintzako gaien fabrikazioa, eta burdin hariaren eratorri, tresneria eta beste sekzioetan ez dauden metalezko gaien fabrikazioa	5
Ogi-opilgintza	7
Opil, gozoki eta gailletagintza	7
Oreki frijituen gertaketa	6
Patata frijitu, krispeta eta antzekoen gertaketa	6
Janzkiak eta beraien osagarriak saldoka egitea	6
Arozgintzako piezak, parket eta eraikintzarako zurezko egiturak saldoka egitea	5
Zurezko altzarigintza	5
Testuak nahiz irudiak moldiztea	5
Eraikuntza eta obra zibilen eraikuntza oso, konponketa eta artapena	6
Igeltserogintza eta eraikintzako orotariko lan txikiak	8
Lurren sendoketa eta prestaketa, errausketak, urak aurkitzeko zulaketak, zimendaketak eta zoladurak. Eraikuntza eta obra zibiletako egitura eta estalpenen prestaketa eta muntaia, bai eta estalketak ere. Garraio, portu, ur obra, zubi, zutoin eta dorre metaliko, erreil eta abarretarako diren metalezko egituren muntaia eta ezarketa	6
Instalazio eta muntaiak (iturgintza, hotz, bero eta aire-girotzekoak izan ezik)	4
Iturgintzako, hotz, bero eta aire-girotzeko instalazioak	5
Tximistorratzak eta antzekoak ezartzea. Tipo eta mota guztietako sukaldeen muntaia eta ezarketa, aldagailu guztiak barne. Edozein mota eta tipotako igogailuen muntaia eta ezarketa. Eraikin eta eraikuntza guztietan telefono, telegrafo, hariarik gabeko telegrafo eta telebistak ezartzea. Metalezko muntaiak eta industri instalazio osoak; baina makineria eta ezarri edo muntatu behar diren osagaiak saldu eta ekarri gabe	4

Ekonomi jarduera	Neurria (Pertsona enpleguak)
Gainjazki, zoruketa eta zoladurak; eta isolamenduen ezarketa	5
Arozgintza eta sarrailgintza	5
Pintura, igeltsu eta eskaiolazko lanak, eta eraikin eta lokalen akabera eta dekorazioa	4
Eraikintzaren zerbitzu lagungarriak eta karramarrotaketak. Mota guztietako obren eraikintza, konponketa eta artapena	6
Fruta, barazki, ortuari eta tuberkuluuen txikizkako merkataritza	5
Haragi eta hondakinen, haragigai eta haragiki gertatuen txikizkako merkataritza	5
Arrautza, hegazti, abeletzeko untxi, ehizien eta beraien ekoizkin eratorrien txikizkako merkataritza	4
Hondakin-saltokietan egiten den abastuko animalien, fresko eta izoztuen errai eta hondakinen txikizkako merkataritza	5
Arrainen eta arrantza, eta urzaintzako beste ekoizkinen, eta barraskiloen txikizkako merkataritza	5
Ogi, gozoki, konfite eta antzekoen, baita esne eta esnekien txikizkako merkataritza	7
Ogi, ogi berezi eta opilen salmentak	7
Gozokigintza, opilgintza eta konfitegintzako ekoizkinen txikizkako merkataritza	7
Oreki frijitu, estalien edota estalgabeen nahiz barrubeteen, patata frijituen, janurrekoen, fruitu lehor, gulosina, txokolatzeko prestakin eta edari freskagarrien txikizkako merkataritza	6
Mota guztietako jangai eta edarien txikizkako merkataritza, saltzaileduen establezimenduetan	5
Mota guztietako jangai eta edarien txikizkako merkataritza, autozerbitzuko araubidean nahiz araubide mistoan, saltzeko gelak 400 metro karratu baino gutxiagoko azalera duenean	4
Etterako ehungintza eta jantzigintzagaien, alfonbra eta antzekoen, baita tapizigintzagaien txikizkako merkataritza	5
Gorputz eta bururako mota guztietako janzkien txikizkako merkataritza	6
Mihise, gerruntze eta jantzi berezien txikizkako merkataritza	3
Purtzilgintza eta fardelgintzako gaien txikizkako merkataritza	5
Zapata, larruazalgai eta imitaziogai nahiz ordezeko ekoizkin, gerriko, kartera, zorro, maleta eta, oro har, bidaiako gaien txikizkako merkataritza	6
Drogagintza, luringintza eta kosmetika, garbiketako gaien, pintura, berniz, disolbakari, paper eta dekoraziorako beste ekoizkin batzuen eta kimikako ekoizkinen, eta norberaren higiegi eta garbiketarako gaien txikizkako merkataritza	4
Altzarien txikizkako merkataritza	5
Material eta aparatu elektrikoaren, elektronikoaren eta elektratresnen, argindarra ez beste energia mota batez eragiten diren etxe erabilerako bestelako aparatuen eta sukaldeko altzarien txikizkako merkataritza	3
Tresneria, burdingintza, apaingintza, opari zein erakargarritasuneko gaien txikizkako merkataritza (bisuteria eta elektratresna txikiak barne)	4
Eraikintzako materialen, eta saneamenduko gai eta altzarien, eta ate, leiho, pertsiana eta abarren txikizkako merkataritza	3

Ekonomi jarduera	Neurria (Pertsona enpleguak)
Beste sekzioetan ez dauden etxeko ekipamendurako gaien txikizkako merkataritza	3
Lurgaineko ibilgailuetarako aldagailu eta ordezkaien txikizkako merkataritza	4
Mota guztietako makineriaren txikizkako merkataritza (etxeko aparatuak, bulegokoak, medikuenak, ortopedikoak, optikoak eta argazkigintzakoak izan ezik)	3
Ibilgailu mota guztietarako gurpilazal, banda edo bandaje eta aire-kamaren txikizkako merkataritza; gai horien handizkako merkataritzako jarduerak izan ezik	4
Bulegoko altzarien eta bulegoko makina-ekipoen txikizkako merkataritza	5
Medikuntza, ortopedia, optika eta argazkigintzako aparatu eta tresnen txikizkako merkataritza	3
Liburu, aldizkari, papergintza, eta idazguko gai eta marrazkigintza, eta arte ederretako gaien txikizkako merkataritza, herriko kaleetan dauden kioskoak izan ezik	4
Egunkari, aldizkari eta liburuen txikizkako merkataritza herriko kaleetan dauden kioskoetan	3
Jostailu, kirolgai, kirol janzki, zapata eta buru-apaingailu, arma, kartutxo, eta pirotekni gaien txikizkako merkataritza	4
Hazi, ongarrri, lore eta landareen, baita animalia txikien txikizkako merkataritza	4
661. taldean eta 662.1. epigrafean zehaztu izan diren establezimenduak ez besteetako elikadura eta edarigai mota guztien txikizkako merkataritza	3
Merkataritzako establezimendu iraunkorretik kanpo elikaduragaien txikizkako merkataritza, edari eta izozkiena barne	2
Merkataritzako establezimendu iraunkorretik kanpoko ehungaien eta jantzigaien txikizkako merkataritza	2
Merkataritzako establezimendu iraunkorretik kanpoko zapata, larruazal eta larruazalgintzagaien txikizkako merkataritza	2
Merkataritzako establezimendu iraunkorretik kanpoko drogagintza eta kosmetikako gaien eta, oro har, kimikagaien txikizkako merkataritza	2
Beste sekzioetan ez dauden merkatugaien txikizkako merkataritza, merkataritzako establezimendu iraunkorretik kanpo	2
Bi sardexkako jatetxeak	10
Sardexka bateko jatetxeak	10
Kafetegiak	8
Kategoria bereziko kafetegi eta tabernak	8
Bestelako kafetegi eta tabernak	8
Zerbitzuak kiosko, kaxa, barraka nahiz antzeko beste lokaletan	3
Zerbitzuak txokolategi, izotz denda eta ortxata dendetan	3
Izar bateko eta biko hotel eta moteletako ostalaritza zerbitzua	15
Ostatetxe eta pentsioetako ostalaritza zerbitzua	12
Ostatuetxe eta ostalierretxeetako ostalaritza zerbitzua	12
Hotel-apartamentuetako ostalaritza zerbitzua	5
Etxerako elektragaien konponketa	3
Ibilgailu automobil, bizikleta eta bestelako ibilgailuen konponketa	6
Oinetakoak konpontzea	2

Ekonomi jarduera	Neurria (Pertsona enpleguak)
Beste sekzioetan ez dauden kontsumogaiak konpontzea (oinetako konponketa; eta artelanen, altzarren, antzinatekoen eta musika-tresnen zaharberrikuntza izan ezik)	2
Industri makineriaren konponketa	3
Beste sekzioetan ez dauden konponketak	3
Taldekako hiri garraioa, eta bidaiarien errepidezkoa	5*
Autotaxizko garraioa	3*
Merkatugaien errepidezko garraioa	5*
Ibilgailuen koipeztaketa eta garbiketa	6
Etxe-aldaketan zerbitzuak	5*
Lurgaineko eta urgaineko ibilgailuak, nahiz aireontziak eta abar gidatzen irakastea	5
Irakaskuntzako beste jarduera batzuk, beste sekzioetan ez daudenak, hala nola, hizkuntzak, mozketa eta jantzizintza, mekanografia, takigrafia, azterketa, oposizio eta antzekoen prestakuntza	5
Kirol hobekuntzarako eskolak eta zerbitzuak	3
Egindako arropa eta etxeko jantzi eta gai erabilien tindaketa, lehorreko garbiketa, ikuzketa eta lisaketa	5
Gizon eta emakumezkoentzako ile-apainketa zerbitzuak	9
Edergintza areto eta institutuak	7
Fotokopiagailuen bidezko agiri kopiagintza zerbitzuak	5

* Neurri horiek urteko edozein egunetan dauden ibilgailuei dagozkie; baldin eta jarduerari ekiten dion lehenengo urtea bada, orduan jarduerari ekitean zeuden ibilgailuak hartuko dira kontuan.

Pertsona enplegatuen neurria zehazteko, alokairupeko langileak bezala soldatarik gabekoak hartu beharko dira kontuan, jardueraren titularrak berriz dagoelarik; hor-taz, neurri hori aurre-aurreko urtean zehar jarduera egin den epealdiari dagokion batez besteko haztatuaren bitartez kalkulatu da.

Egutegiko urte batean aurreko neurriak gainditzen badira, subjektu pasiboa bazter-turik geldituko da hurrengo urteaz gero, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zer-garen zenbatespen objektiboaren metodoko zeinu, indize edo moduluen modali-tateak; eta etekin garbia zenbatespen objektiboaren metodoko koefizienteen mo-dalitateaz zehaztuko da, baldin eta 2. puntuaz azaldu diren beharkizunak betetzen badira.

B. Abelur jarduerak

Otsailaren 23ko 673/1998 Foru Aginduan daude jasota; atal honetan, nekazalturis-moa sartzen da, bai eta berez nekazaritzakoak diren ustiategi askoren sarrerak gaur egun osatzen dituen sistema ere. Etekina sistema honen bidez zehaztuko da, baldin eta ondoko betekizunak betetzen badira:

- Aurreko ekitaldiko eragiketen kopurua 50 milioi pezetarainokoa izatea.
- Aurreko ekitaldiko edozein egunetan enplegatutako pertsonak, gehienez, hamar izatea.
- Jarduerari ekiten zaion urtean, kontuan hartuko da zenbat pertsona enplegatu ziren jardueraren hasieran.

50 milioi pezetako muga, nekazaritza, abeltzaintza eta nekazalturismo jarduera guztien sarrera guztiei dagokie; izan ere, moduluen sistemaren barrukoak dira. Muga hori behin gaindituz gero, zuzeneko zenbatespenaren metodoaren bidez egindako jarduera guztien etekin garbia zehaztuko da.

Modulukako zenbatespena baztertzen bada, 10 pertsona enplegatuko kopurua gainditzearen, orduan etekina koefizientekako zenbatespen objektiboaren metodoaz zenbatetsi behar da, baldin eta plantilako langileak 12 baino gehiago ez badira.

C. Basozaintza eta baxurako arrantzaren jarduerak

Etekin garbia zehaztuko da, zelan eta zeinu, indize eta moduluko zenbatespen objektiboaren sistemaren bidez, Bizkaian zergapean dauden ustiategien titularentzat, salbu eta hari uko egiten badiote.

Hainbat jarduera aldi berean egitea:

Subjektu pasiboak hainbat jarduera egiten duenean, mugak modu honetaraxe zenbatuko dira:

- Enpresa jarduera batzuk egitea.* Eragiketen kopuruaren mugak eta langileen kopuruarenak jarduera horien multzoari dagozkionak izango dira; eta, horri dagozkionez, zenbatespen objektiboaren metodoko zeinu, indize edo moduluen modalitatearen barrukoak baztertuta geldituko dira.
- Lanbide jarduera batzuk egitea.* Subjektu pasiboak egindako jarduera guztiei ezarriko zaizkie mugak.
- Enpresa eta lanbide jarduerak batera egitea.* Sartzeko mugak bakoitza bere aldetik ezarriko zaizkie enpresa edo lanbide jarduerari; horretarako, enpresa jardueretarako mugak zenbatueran, zenbatespen objektiboaren metodoko zeinu, indize edo moduluen modalitatearen barruko enpresa jarduerak baztertu egingo dira.
- Subjektu pasiboak enpresa edota lanbide jarduerak batera egitea; eta enpresa edota lanbide jarduerak egitea, errenten eratxikipen araubideko erakunde baten edo batzuetan kide delarik.* Mugak modu honetaraxe zenbatuko dira:
 - Subjektu pasiboak berak egindako enpresa jarduera guztien salmenten urteko kopurua eta langileen kopurua zenbatuko dira.
 - Subjektu pasiboak berak egindako lanbide jarduera guztien salmenten urteko kopurua eta langileen kopurua zenbatuko dira.

3. Subjektu pasiboa errenten eratzikipen araubideko erakunde batzuetakoa bada, bera dagoen erakunde bakoitzak egindako enpresa jarduera guztien salmenten urteko kopurua eta langileen kopurua zenbatuko dira. Kontuan hartu behar da zenbatespen objektiboaren araubidea errenten eratzikipen araubideko erakundeei ezartzen zaiela, baldin eta beraien bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideak pertsona fisikoak badira.
4. Subjektu pasiboa errenten eratzikipen araubideko erakunde batzuetakoa bada, bera dagoen erakunde bakoitzak egindako lanbide jarduera guztien salmenten urteko kopurua eta langileen kopurua zenbatuko dira. Kontuan hartu behar da zenbatespen objektiboaren araubidea errenten eratzikipen araubideko erakundeei ezartzen zaiela, baldin eta beraien bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideak pertsona fisikoak badira.

UKOA

Uko egiteko epea

Koefizienteen modalitatea erabili behar duten jardueren subjektu pasiboek uko egin ahal izango diote —guztietarako edo enpresazkoen edo lanbidezkoen multzo bakoitzeko— eragina izan behar duen egutegiko urtearen aurreko abenduan.

Zeinu, indize edo moduluen modalitatea erabili behar duten jardueren titularrek modalitate horri uko egin ahal izango diote, urte bakoitzeko abenduan argitaratzen diren foru aginduetan indarrean jarri eta ondorengo bi hilabeteetako epean. Agindu horietan finkatzen dira —egutegiko hurrengo urterako— modalitate horretan sartutako jarduerak nahiz berariei dagozkien zeinu, indize edo moduluen balorazioa.

Jarduerari hasiera ematen bazaio, zenbatespen objektiboaren araubideari uko egin nahi izanez gero —bi modalitateetarik edozeinetan—, jarduera hori hasi eta hilabeteke epean egin beharko da.

Koefizienteen modalitateari uko egiten bazaio, uko horrek urtebeteko epean izango ditu ondoreak; behin epe hori igaro eta gero, ukoa ondorengo urteetako bakoitzean luzatuko dela ulertuko da, salbu eta bera ezeztatzen bada. Ezeztapena egiteko epeak eta uko egitekoak berdinak dira (S-4 eredia).

Zeinu, indize edo moduluen modalitateari uko egiten bazaio, uko horrek hiru urteko epean izango ditu ondoreak; behin epe hori igaro eta gero, ukoa ondorengo urteetako bakoitzean luzatuko dela ulertuko da, salbu eta bera ezeztatzen bada. Ezeztapena egiteko epeak eta uko egitekoak berdinak dira (S-4 eredia).

Ukoaren ondoreak

Badira subjektu pasiboak zeinu, indize eta moduluen modalitatearen menpeko enpresa jarduerak egiten dituztenak; bada, subjektu pasiboek horri uko egiten badiote edo Balio Erantsiaren gaineko Zergaren sistema erraztuaren araubide bereziari uko egiten badiote, orduan enpresa eta lanbide jarduera guztien etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren metodoaz zehaztuko dute.

Badira subjektu pasiboak koefizienteen modalitatearen menpeko enpresa jarduerak egiten dituztenak; bada, subjektu pasiboak horri uko egiten badiote, jardueretarik bati edo batzuei dagokienez, orduan enpresa jarduera guztien etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren metodoaz zehaztuko dute —zeinu, indize eta koefizienteen modalitatea erabili behar duten jardueri dagokienez izan ezik—.

Badira subjektu pasiboak koefizienteen modalitatearen menpeko lanbide jarduerak egiten dituztenak; bada, subjektu pasiboak horri uko egiten badiote, jardueretarik bati edo batzuei dagokienez, orduan lanbide eta lanbide jarduera guztien etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren metodoaz zehaztuko dute.

KONTABILITATE ETA ERREGISTROARI BURUZKO BETEBEHARRAK

Zuzeneko zenbatespenaren araubidean:

1. *Enpresa jarduerak*

- Merkataritza enpresak

Subjektu pasiboek kontabilitatea egingo dute, Merkataritza Kodearen arabera doiturik, bai eta Sozietateen gaineko Zergaren inguruan ezarrita dauden edo etorkizunean ezar litezkeen erregistro lagungarriak ere.

- Merkataritzakoak ez diren enpresak

Ondoko erregistro hauek bakarrik egin behar dituzte:

- a) Salmenta eta sarreraren erregistro-liburua.
- b) Erosketa eta gastuen erregistro-liburua.
- c) Inbertsio ondasunen erregistro-liburua.

2. *Lanbide jarduerak*

Subjektu pasiboek ondoko erregistro-liburu hauek egin beharko dituzte:

- a) Sarreraren erregistro-liburua
- b) Gastuen erregistro-liburua.
- c) Inbertsio ondasunen erregistro-liburua
- d) Fondo horniduren eta gehikinen erregistro-liburua.

Zeinu, indize eta moduluko zenbatespen objektiboaren araubidean:

Luzatu eta jasotzen dituzten fakturak gorde behar dituzte, eta hurrenkeraren arabera antolatu eta hiruhilka elkaturik, bai eta ezarritako zeinu, indize edo moduluen frogagiriak ere, horiek onesten dituen foru aginduan ezarritakoaren arabera.

Koefizientekako zenbatespen objektiboaren araubidean:

1. Enpresa jarduerak

Subjektu pasiboek ondoko liburu hauek egin beharko dituzte:

- a) Salmenta eta sarreren erregistro-liburua.
- b) Erosketa eta gastuen erregistro-liburua.
- c) Inbertsio ondasunen erregistro-liburua.

2. Lanbide jarduerak

Subjektu pasiboek ondoko liburu hauek egin beharko dituzte:

- a) Sarreren erregistro-liburua
- b) Gastuen erregistro-liburua.
- c) Inbertsio ondasunen erregistro-liburua
- d) Fondo horniduren eta gehikinen erregistro-liburua.

VI. KAPITULUA

ZUZENKO ZENBATESPENAREN ARAUBIDEA ETA KOEFIZIENTEKAKO ZENBATESPEN OBJEKTIBOAREN ARAUBIDEA

1. ZUZENKO ZENBATESPENAREN ARAUBIDEA (D₁ ERANSKINA)

Etekin honelaxe zehaztuko da: sarrera guztien eta gastu guztien arteko kenketa eginaz, eta kendura hori izango da etekina; sarreren artean autokontsumoa, diru-laguntzak eta jasotako gainerako transferentziak daude sartuta; gastuetan, berriz, sarrerek lortzeko beharrezko izan diren gastuak daude, bai eta sarrera horiek ekarri dituzten ondasunen narriaduraren zenbatekoa ere.

Kendura hari ondokoa gehitu behar zaio: jarduerari loturiko ondarearen edozein osagaik ondareari ekarritako gehikuntza eta urripenen saldo garbia.

Etekin garbia = Sarrera osoak – Ken daitezkeen gastuak + lotutako osagaien ondare gehikuntza eta urripenen saldo garbia

Etekin hau zehazteko, Sozietateen gaineko Zergari buruzko arauak ezarriko dira.

SARRERAK

Sarrera legez, hartukizun guztiak jarri beharko dira, edozein dela beraien izena edo izaera, baldin eta jarduera egitetik badatoz, nahiz diruz nahiz gauzaz hartzen direlarik.

Honako hau da sailkapen berezia:

Salmentak edo sarrerek: jarduerako ondasunen emanaldien edo zerbitzugintzaren ondorioz hartzen diren kontraprestazioen zenbatekoa. Ustiapeneko ekoizkinei gertatutako ezbeharrengatik, aseguru bazkunek ordaindutako kopuruak sartuko dira.

Diru-laguntzak eta autokontsumoak: zergadunak, bere jardueraren xede izanik, dohain edo merke-merkean gainontzekoren bati laga, edo bere famili unitatearen edozein kideren kontsumorako uzten dituen ondasunen edo zerbitzuen zenbatekoa, merkatuko balioaren arabera. Diruz balora daitezkeen ondasun edota eskubideen diru-laguntza eta gainerako transferentzia arrunten zenbatekoa, baldin eta haiek jardueran erabiltzen badira.

Aldi baterako Ezgaitasunaren ziozko hartukizunak: gaixotasun, amatasun eta abarren ziozko baxen ondorioz jasotakoak.

Sarreren, salmenten, ondasun erosketen eta izakin aldakuntzaren zenbatekoa zenbatuko da, BEZik edo bestelako zeharkako zergak sartu gabe, eragiketak zergapetzen baitituzte.

Salbuespenak BEZari dagozkionez: erasaten den BEZa eta itzultzen diren konpentsazioak, horrelakorik badago, sarrera osoen barruan sartu beharko dira, baldin eta egin den jarduera BEZaren araubideetarik baten barruan badago:

- Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezia: honetan, nekazariari konpentsazioa egingo zaio jasan duen BEZarengatik; konpentsazioa %4,5ekoa da, ekoizkinen salmenten gainean.
- Baliokidetasun errekarguaren araubide berezia: honelakoetan, eragiketen kopuruak BEZ hartzen du bere barruan, prezioari erantsita baitago BEZ hori.

ZERGAN KEN DAITEZKEEN GASTUAK

Oro har, sarrerak lortzeko behar diren gastu guztiak kendu ahal izango dira. Haiek sailkatzeko, Kontabilitate Plan Orokorraren irizpideei jarraituko zaie, plan horren arabera doitu behar baitute euren kontabilitatea araubide honen menpean dauden enpresarioek.

Bereziki:

- *Erosketak:* atal honetan ondasunen eskuraketa arruntak sartzen dira, baldin eta ondasun horiek enpresaren aktibo ibilkorrekoak badira. Kontuan hartu behar da, atal honetan ez dela inoz inbertsio ondasunen eskuraketa sartu behar.

Besteak beste, honako hauek daude: merkatugaiak, lehengaiak, ontzi eta enbala-jeak, bulegoko ekaiak eta abar.

- *Langileen gastuak:* ken daitezkeen gastuen gisa, ezkontidearekin hizpatutako ordainsariak, bai eta zergadunarekin bizi diren seme-alaba adingabeok hizpatutakoak ere, baina honako hauek gertatu behar dira:

- a) Ohituraz eta iraunkortasunez jardueran egin behar dute lan.
- b) Lan kontratua egon beharra dago, eta Gizarte Segurantzako araubide egokian afiliatuta egon behar dute.
- c) Hizpatutako ordainsariak ez dira merkatuan, egiten den lanerako eta kualifikaziorako, daudenak baino handiagoak izango.

- Ken daitezkeen gastuen gisa ezkontideari ordaindutako kontraprestazioaren zenbatekoa hartuko da, bai eta zergadunarekin bizi diren seme-alaba adingabekoei ordaindutakoarena ere, baldin eta arrazoia jardueran erabilitako ondasun edota eskubideen lagapena bada, baina honako hauek gertatu behar dira:

- a) Itundutako ordainketa ez da merkatuko balioa baino handiagoa izango (itunik ez badago, merkatuko balioa kenduko da).
- b) Ondasun edota eskubideak ez dira ezkontide bienak izango.

- *Errentamendu eta kanonak:* ondoko ondasunak erabiltzeko eskubideak sortarazitako gastuak:

- Besteren ibilgetu materiala: errentamenduak
- Besteren ibilgetu ezmateriala: kanonak

- *Konponketak eta artapen edo kontserbazioa*: hauen barruan, ibilgetuko ondasunen berrikuspen eta haien mantentze-gastuak sartzen dira, ondasunok enpresan diharduten bitartean, baldin eta hobekuntzak ez badira.
- *Aseguru primak*: jarduerari loturiko ondasun eta eskubideen aseguratzearen zioz ordaindutako kopuruak, ustiapen ekoizkinengatik ordaindutakoak, eta titularrak gainontzekoekin duen erantzukizun zibilaren ziozkoak.
- *Lanbide zerbitzu lokabeak*: ekonomialari, abokatu eta abarrek egindako zerbitzuen ziozko ogibidesarien kostua sartzen da, baldin eta zerbitzu horiek ez badaude ekonomi batasunaren nominaren barruan.
- *Estatuarenak ez diren zergak*: estatuarenak ez diren zerga eta errekarquak sartzen dira, baldin eta jardueraren sarreraren gainean eragina badute edo beraien gainekoak badira, baina ez badira zehagarriak.
- *Finantzaketa gastuak*: atal honetan besteren finantza baliabideak erabiltzearen zioz sortzen diren gastu guztiak sartzen dira, horiek helburua bada enpresaren jarduerak edo aktiboko osagaiak finantzatzea.
- *Amortizaziorako zuzkidura edo dotazioak*: urteko zuzkidurak sartzen dira, zuzkidura horien helburua bada ondasunaren kostua ekonomiaren ikuspegitik berreskuratzea. Amortizazioa egiteko prozedurak Sozietateen gaineko Zergan ezarritakoak dira.
- *Horniduretarako zuzkidurak*: hemen urteko zuzkidurak edo balorazio-zuzenketa sartzen dira, lehengoratu ezin diren eta behin betikoak ez diren galerak, loturiko ondasun eta eskubideenak; zalantzazko kobrantzako saldoak, eta abar estaltzeko.

Lanbide edo arte jarduerak direnean, gastu frogagaitzengatik, sarrera osoen zenbatekoaren %1 kendu ahal izango da.

Ezin ken daitezkeen gastuak:

Honako hauek ezin izango dira kendu gastu legeaz:

- Sozietateen gaineko Zergari buruzko 3/96 Foru Arauaren 14. artikuluko 2. idatz-zatiak aipatu kontzeptuak, hau da, ordaindutako kopuruak eta dohaintza gisa emandako ondasunen kontabilitate balioa, erakunde dohaintza-hartzaileen euren xedeak erdiesteko erabiltzen diren neurriak; erakunde horiek, berriz, honako hauek izan behar dute:
 - Herrialdeetako industri garapenerako sozietateak eta enpresak sustatzeko sozietateak.
 - Kirol federazioak eta kirol klubak, lanbidekoak ez diren kirol jarduerak sustatu eta garatzeko, sozietate anonimoei hartutako kopuruei dagozkienez, baldin eta erakunde horien artean kostu bidezko beharrezko kontratu-lotura ezarrita badago kiroletako federazio eta klub horien xede eta helburua betetzeko.
- Aurreikuspen mutualitateei enpresario edo profesional berak egindako ekarpenak.

ETEKIN GARBIA

Lerroa: "Etekin garbia". "Sarrerak guztira" gakoetako zenbatekoari "Gastuak guztira" gakoetakoa kentzetik emaitza bat aterako da eta emaitza horri batu edo kenduko zaizkio, dagokion arabera, "Lotutako ondasunen ondare gehikuntzak" eta "Lotutako ondasunen ondare urripenak" gakoetan jarritako zenbatekoak; eragiketaren horien guztien zenbatekoa jarriko da.

Ondare gehikuntza edo urripenak gertatu direnean, 10. orrialdeko azken atala bete beharko da, eta eurak eratorri dituen jardueraren epigrafea agertaraziko da, bai eta ondare aldakuntza gertarazten duen ondasunaren deskripzioa, besterentze balioa, kontabilitateko balio garbia, inbertituriko kopurua eta gertatua den gehikuntza edo urripena ere.

Lerroa: "Egotzitako etekin garbia". Jarduera ondasun erkidego edo komunitate baten egiten badu, erkide bakoitzak jardueraren etekin garbian duen zatia agertaraziko du.

- a) Subjektu pasiboak egindako enpresa jardueren etekin garbia:

Etekin garbia = (Salmentak edo sarrerak + diru-laguntzak eta autokontsumoa + ABEn ziozko hartukizunak) – (zergan ken daitezkeen gastuak) + lotutako ondasunen ondare gehikuntzak – lotutako ondasunen ondare urripenak

- b) Subjektu pasiboak egindako lanbide jardueren etekin garbia:

Etekin garbia = (Salmentak edo sarrerak + diru-laguntzak eta autokontsumoa + ABEn ziozko hartukizunak) – (zergan ken daitezkeen gastuak + sarrera guztien gaineko %1) + lotutako ondasunen ondare gehikuntzak – lotutako ondasunen ondare urripenak

LOTUTAKO ONDASUNEN ONDORIOZKO ONDARE GEHIKUNTZA ETA URRIPENAK (ZENBATESPEN MODALITATE GUZTIEI EZARRIKO ZAIE)

Beraiek kalkulatu, sartu eta konpentsatzeko, ez dira osagai lokabeen ondare gehikuntza eta urripenetarako ezarritako arau orokorrak erabiliko.

Zuzeneko zenbatespenaren araubidean, osagai lotuak saltzearen ondoriozko ondare aldakuntzak, euren zeinua dutelarik (positiboa edo negatiboa, ondare gehikuntza edo urripena den arabera), enpresa edo lanbide jardueren etekin garbiei erantsiko zaizkie. Beraiek kalkulatzeko, Sozietateen gaineko Zergari buruzko arauak erabiliko dira.

Oro har, ondarearen gehikuntza edo urripena hauxe izango da: ondare-osagaiaren eskualdaketa balioaren eta haren kontabilitateko balioaren arteko kendura, eta kendura hori positiboa edo negatiboa izan daiteke. Kontabilitateko balioa eskuraketa egin zen prezioa —bestela, ekoizpen kostua edo lotura balioa— ken amortizazioen batura, eta kendura hori izango da.

Aurreko eragiketaren emaitza positiboa bada, hau da, ibilgetu material edo ezmaterialaren ondare-osagaien eskualdaketatik datorren ondare gehikuntza bada, orduan, igarotako denborari dagokion monetaren balioalera kendu egingo da, zertarako eta emaitza horren inflazioaren eraginagatik sortu den moneta-errenta hutsa kargatik kanpo uzteko. Zuzenketa, gehienez, ezarriko da, harik eta osagaiaren gainbalioa deuseztatu arte.

1998ko monetaren balioalderaren koefizienteen laukia.

Zein urtetan eskuratu zen osagaia	Eguneratzeko gehieneko koefizientea
1984ko urtarrilaren 1a baino lehenagokoak	1,978
1984	1,796
1985	1,645
1986	1,544
1987	1,443
1988	1,382
1989	1,332
1990	1,271
1991	1,211
1992	1,174
1993	1,164
1994	1,141
1995	1,089
1996	1,051
1997	1,024
1998	1,000

Koefizienteak honako modu honetara ezarriko dira:

- Eskuraketa prezioaren edo ekoizpen kostuaren gainean, ondare-osagaiaren eskuraketa edo ekoizpenaren urteari begira. Hobekuntzei ezarri ahal zaien koefizientea izango da, zein eta hobekuntza horiek egiten diren urteari dagokiona.
- Eskuraketa prezio edo ekoizpen kostuari dagozkion amortizazioen gainean, baldin eta horiek kendu ahal badira zergetatik, betiere, kenkaria egiten den urteari dagokionez.

Moneta-zuzenketa emaitzako ondare gehikuntzak beti izan behar du kopuru positiboa edo zerokoa. Kopuru negatiboa lortzen bada, gehikuntzaren zenbatekoa zeroan zenbatetsiko da.

Ondare aldakuntzaren emaitza negatiboa bada, hortaz, ondare urripena bada, orduan emaitza ondare-osagaiaren eskualdaketa balioaren eta haren kontabilitateko balioaren arteko kendura izango da, ondare gehikuntzei ezin baitzaie moneta-zuzenketa ezarri.

Ondare-osagai batzuk enpresa edota lanbide jarduera batzuk egiteko lotzen badira, eskuraketa unetzat loturari dagokiona hartuko da.

Aktibo finko material edo ezmaterialeko osagaiak, baldin eta enpresa edo lanbide jarduera bati lotuta badaude, beti amortizatu ahal izango dira euren balioan jasaten duten galeran, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 3/1996 Foru Arauaren 11. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Benetako balio galera artikuluko horretako metodoen arabera kalkulatu ahal izango da; gehienetan egiten dena, berriz, ondoko taulan ezarriko diren amortizazio koefizientea erabiltzea da:

Ondare-osagaiak	Urteko gehieneko koefizientea	Gehieneko denboraldiko urteak
Etxe-gela eta bulegorako, merkataritzako erabilerarako edota zerbitzuetarako eraikinak	3	50
Industri erabilerarako eraikinak eta pabiloiak	5	30
Instalazioak	15	10
Industri erabilerarako makineria	15	10
Beste erabilera batzuetarako makineria	10	15
Ontzi eta aireontziak	10	15
Autobusak, kamioiak, furgonetak eta antzekoak	20	8
Turismo-ibilgailuak	20	8
Molde, eredu, trokel eta gargarak	33	5
Lanabesak eta erremintak	30	5
Altzariak	15	10
Informatika-ekipoak	25	6
Alokatzeko bideo filmak	50	3
Zehaztu gabeko beste elementu batzuk	10	15

Osagaiak erabilia eskuratzen direnean, salbu eta eraikinak, orduan gehieneko koefizienteak ezarriko dira, kopuru bikoitzaren mugaraino, eta gehieneko epealdia erdira laburtuko da; izan ere, laburtze hori gehiagoz egingo denez gero, urteak oso-osorik zenbatuko dira.

Ibilgetu materialaren osagaiak egunean-egunean lan-txanda normal baten baino gehiagotan erabiltzen direnean, amortizazioaren gutxieneko koefizienteek gehikuntza hau hartu ahal izango dute: amortizazioaren taulako gehieneko eta gutxieneko koefizienteen arteko kenketa egingo da; ondorik, egunean-egunean lanean eman ohi izan diren orduak zortiz zatituko dira; azkenik kendra hura eta zatidura hau biderkatuko dira, eta biderkadura hori izango da gehikuntzaren zenbatekoa. Eraitza hori gehienez onar litekeen koefizientea izango da.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa ez zaie ezarriko eraikinei, garraiogaiei, merkataritzako altzari eta instalazioei, eta informatikako ekipoei.

Zergaldi batzuetan enpresario edo profesionalek beren etekin garbia zenbatespen objektiboaren metodoaren bitartez zehaztu badute, bada, zergaldi horietan amortizaziotzat, amortizazio taularen arabera gehieneko amortizazioalditik datorren koefizientea ondare-osagaiari ezartzearen ondoriozko emaitza hartuko da.

Amortizazioa egiteko arau orokorrak:

- Lurrak ezin dira inoiz ere amortizatu, ez eta eraikinak jasotzen dituztenak ere.
- Ibilgetu materialaren zein ezmaterialaren osagaiak, beraien aleko balioa 100.000 pezetatik gorakoa ez bada, era askean amortizatu ahal izango dira.
- Ibilgetu ezmateriala lerroz lerro amortizatuko da, bost urtetik 10 urterako epean.

Zer den enpresa txikia. Betekizunak:

- a) Ustiapen ekonomikoa burutuko du.
- b) Ez da eragiketen kopurua 715 milioi pezetatik gorakoa izango edota beraren ibilgetu garbia ez da 286 milioi pezetakoa baino handiagoa izango.
- c) Ez du 50 pertsona enplegatutik gorako plantilarik izango.
- d) Ez du aurretik adierazitako betekizunetarik bat betetzen ez duen beste enpresaren baten 100eko 25etik gorako partaidetzarik izango.

Ibilgetu material berriko osagaiek, salbu eta eraikinak, enpresa txikiek eskuratu badituzte, amortizazio askatasuna izango dute jardunbidean hasten direnetik.

Zergaldian zehar sinatutako obra burutzapeneko kontratu bat dela-bide agindutako osagaiek ere amortizazio askatasuna izango dute, baldin eta osagaiok eskura jar-tzen badira zergaldia amaitu eta ondorengo hamabi hilabeteen barruan. Era be-rean, ibilgetu materialeko osagaiei, baldin eta enpresak berak egin baditu, ezarri-ko zaie amortizazio askatasuna.

Amortizazio askatasun hori eta ondokoak ezin dira aldi berean ezarri:

- a) Esportazio jarduerengatik hobera, beronengatikozko mozkinak inbertitu diren osagaiei dagokienez.
- b) Aparteko hobarien berrinbertsioa eta berrinbertitzeagatikozko salbuespena, es-kualdaketaren zenbatekoa berrinbertitzeko erabili diren osagaiei dagokie-nez.

Salbuespena berrinbertitzeagatik (Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 52. artikulua)

Enpresa txiki eta ertainek ekitaldian zehar ustiapen ekonomikoei loturiko ibilgetua-ren osagaien kostu bidezko eskualdaketari esker lortutako errenta positiboak zerga oinarrian ez sartzeko aukera izango dute, behin monetaren baliogaleraren arabera zuzenduak izan direnean, baldin eta errenta horien zenbatekoa 50 milioitik gorakoa ez bada eta eskualdaketaren zenbateko osoa ustiapen ekonomikoei lotutako ibilge-tu materialaren beste osagai batzuetan berrinbertitzen bada ondare-osagaia eman

edo eskura jarri den aurreko urtearen eta osteko hiru urteen arteko epearen barruan.

Errenten zenbatekoa 50 milioitik gorakoa denean, salbuespena kopuru horretarainokoa izango da eta errentaren gainerako zenbatekoak ondorengo zazpi urteetan errentak zerga oinarrian sartzeko dagoen gerorapenari heldu ahal izango dio (Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 22. artikulua).

Berrinbertsiopeko ondare-osagaiek subjektu pasiboaren ekonomi ustiapenei lotuta iraun beharko dute, frogatutako galerak daudenean izan ezik, harik eta osagai guztiak erabat amortizatu arte.

Enpresario eta profesionalak euren jardueraren etekin garbia zenbatespen objektiboaren metodoaren bitartez zehaztu badute, orduan berrinbertsiopeko ondare-osagaiek irauteko duten betekizuna osagaien euren bitzta erabilgarriaren arabera zehaztuko da; bitzta hori amortizazioaren gehieneko epealdiaren arabera kalkulatuko da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 3/1996 Foru Arauaren 11. artikuluko amortizazio taularen ginoan.

ZERGA-PIZGARRIAK, NORBANAKOEK INTERES OROKORREKO JARDUERETAN ESKU HAR DEZATEN

“Fundazioen eta Herri-Onurako Elkarteen Zerga-Araubideari eta Zudu Orokorreko Jardueretako Partaidetza Pribaturako Zerga-Pizgarri”ei buruzko abenduaren 5eko 9/1995 Foru Arauak zerga-pizgarri batzuk ezarri ditu norbanakoek interes orokorreko jardueretan esku har dezaten; horretarako, jarduerok erregistro egokian izena emanda duten fundazioetan egin behar dira, bai eta herri onurako adierazpena duten elkarreetan ere, baldin eta erakundeok betetzen badituzte foru arau horretan ezarritako betekizunak.

Baldintza orokorrak, pizgarriak ezartzeko:

 3. Jardueran esku hartzen duten alokairubako langileak titularra eta, egotekotan, ezkontidea eta seme-alaba adingabeak izatea.

Laukitxo: "Etekin zuzendua". Indize zuzentzailea jardueraren etekinaren gainean ezartzetik ateratzen den zenbatekoa izango da.

Laukitxo: "Aparteko gastuak eta urripenak". Lerro honetan jarduerak suteak, uholde, amiltze edota euren erabilera arruntetik kanpoko beste edozer jasaten dutenean, gertatzen diren gastu edota urripenen zenbatekoa jarriko da. Etekin gastu edota urripen horien zenbatekoaz txikitu ahal izango da, baldin eta jakinarazten bazaizkio Administrazioari, zeinek begiztatuko baitu horiek benetakoak diren. Gastu legez hartzen bada, ezin da urripentzat hartu, eta alderantziz.

Laukitxo: "Etekin garbia moduluka". Jardueraren etekin zuzenduaren gakoan eta aparteko gastu eta urripenen arteko kendura agertuko da.

INDIZE TXIKITZAILEAK

Indize txikitzaileak ezartzeko, D₃ eranskinerako esandakoaren antzera jokatuko da. Era berean, nekazari gazteek eta nekazaritzako alokairupekoek euren nekazaritzako jardueraren etekin garbia 100eko 25ean txikitu ahal izango dute lehentasuneko ustiategi baten titular gisa lehenengo instalazioa egiten duten ekitaldiaren ondorengo bost urteetan zehar itxitako zergaldietan. Indize txikitzaile hori eta indize txikitzaile orokorra batera ezarri ahal izango dira; horrenbestez, kasu horietan 100eko 40ko txikipen osoa geldituko da; hala ere, jarduera hasteagatik indize txikitzailea ez da erabiliko.

Laukitxo: *“Etekin garbi eta txikitua”*. Modulukako etekin garbiari ezarriko zaizkio lehen aipaturiko indize txikitzaileak, eta hortik ateratzen den emaitza jarriko da hemen.

“Lotutako ondasunen ondare gehikuntza eta urripenak”

- a) Kasu orokorra: ondare gehikuntza eta urripenak jasoko dira, baldin eta higiezin, ontzi eta aktibo finko, eta lotuak eskualdatzetik badatoz; eta horiek zehaztuko dira, zelan eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko arautegian ezarritako erregela eta irizpideen arabera.
- b) Nekazaritzan lehentasuna duten ustiategiak eskualdatzea. Eskuratzzaileak nekazaritzako ustiategiak eskualdatzen baditu nekazaritzan lehentasuna duten ustiategiak eratu edo sendotzeko, eta eskualdaketa horren ondorioz ondarean aldaketak gertatzen badira; edo ustiategi horiek Herri Administrazioak eskuratzen baditu lursailletara edo antzekoetara biltzeko, edo izadia babesteko, orduan, eta zerga honi dagokionez, honelaxe jokatuko da eskualdaketa horrekin:
 - Landa-finken eskualdaketak. Ondare gehikuntza edo urripenak banan-banan zehaztuko dira finka bakoitzarentzat:
 - Ondare gehikuntzak. Landa-finkek subjektu pasiboaren ondarean urte bitik gora irauten duten urte bakoitzeko, 100eko 7,14an txikituko dira. 100eko txikipena egingo da, baldin eta landa-finkek subjektu pasiboaren ondarean hamabost urte baino gehiago iraun badute.
 - Ondare urripenak. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudiaren 22. artikuluan ezarritako araubidea beteko dute.

Subjektu pasiboaren ondarean zenbat urtetan iraun duen jakiteko, eskuraketa eta eskualdaketa daten artean dagoen urte kopurua erabiliko da, gehiagoz biribilduta.

- Nekazaritzako ustiategien eskualdaketak. Ondare gehikuntza eta urripenak banan-banan zehaztuko dira finka bakoitzarentzat:
 - Ustiategiko ondasun higiezinen ondoriozko ondare gehikuntza eta urripenak. Landa-finken eskualdaketa tarako ezarritako araubide berbera erabiliko da.

- Loturik dauden beste osagai batzuen ondoriozko ondare gehikuntza eta urripenak. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudiaren 22. artikuluan ezarritako araubidea beteko dute.
- Gainerako errentak. Zeinu, indize edo moduluen modalitatea araupetzen duten arauetan xedaturikoa ezartzearen ondoriozko etekinaren barrukoak izango dira.

Arau hauek ondare gehikuntza eta urripenei ezarriko zaizkie, baldin eta ondoko inguruabarrak gertatzen badira:

1. Zergaren subjektu pasiboek lortu behar dituzte; horrezaz gainera, subjektu horiek nekazaritzako jarduerak egin behar dituzte eta, beraien etekin garbia zehazteko, zenbatespen objektiboaren metodoko zeinu, indize edo moduluen modalitatea erabili beharko da.
2. 1995eko uztailaren 25etik atzera zenbatuko diren ondorengo bost urteetan zehar ageri behar dute eskualdaketa jakin batzuen ondorioz, alegia, xede bakar gisa nekazaritzako ustategiak edo nekazaritzako jarduerarekin loturiko landa-finkak dituzten eskualdaketen ondorioz.
3. Aurreko 2. puntuan adierazi den epealdian zehar egin diren eskualdaketen zenbateko metatuak ez du 50.000.000 pezetatik gorakoa izan beharko.

“Aldi baterako ezgaitasunaren ziozko hartukizunak”. Jardueraren titularrak, ekitaldian zehar, aldi baterako ezgaitasunaren zioz jaso dituen kopuruen batura agertu beharko da.

Laukitxoak: *“Etekin garbia”*. *“Etekin garbi eta txikitua”*, *“Lotutako ondasunen ondare gehikuntzak”* eta *“aldi baterako ezgaitasunaren ziozko hartukizunak”* batuko dira; batura horri kenduko zaizkio *“Lotutako ondasunen ondare urripenak”*; eta emaitza hori jarriko da.

Laukitxoak: *“Egotzitako etekin garbia”*. Subjektu pasiboak jarduera bakarka egiten badu, orduan [2480]. eta [2680]. gakoetan jarri behar den zenbatekoak bat etorri behar du [2479]. eta [2679]. gakoekin, hurrenez hurren. Subjektu pasiboa ondasun erkidego batekoa edo gehiagokoa bada, [2480]. eta [2680]. laukitxoetan azaldu behar duen zenbatekoa ondoko eragiketaren emaitza izango da: subjektuak erkidego horietan duen partaidetzaren portzentajea [2479]. eta [2679]. gakoetan dauden zenbatekoei ezarriko zaie, eta emaitza hori jarriko da.

Etekin garbia, nekazaritza eta abeltzaintzako jardueren eta nekazalturismoaren zeinu, indize edo moduluko zenbatespen objektiboaren metodoaz lortutakoa.

1. Jardueraren etekina lortuko da.
Jardueraren etekina = $\Sigma[(\text{Unitateen kopurua} \times \text{aleko balioa}) + (\text{Indize zuzentzailea} \times \text{Unitateen kopurua} \times \text{aleko balioa})]$
2. Etekin zuzendua lortuko da.
Etekin zuzendua = Jardueraren etekina $\times 0,8$. Ezaugarrien araberako indize zuzentzailea ezarri behar bada.
3. Etekin garbia moduluka lortuko da.

Modulukako etekin garbia = Etekin zuzendua – Gastuak eta ondare urripenak

4º Etekin garbi eta txikitua lortuko da.

a) Nekazaritzan lehentasuna duen ustiatzea:

Etekin garbi eta txikitua = Modulukako etekin garbia x 0,60

b) Orokorra:

Etekin garbi eta txikitua = Modulukako etekin garbia x 0,85

5º Etekin garbia lortuko da.

Etekin garbia = Etekin garbi eta txikitua + Lotutako ondasunen ondare gehikuntzak – Lotutako ondasunen ondare urripenak + ABEren ziozko hartukizunak

D. BASOZAINITZA

F-1: Koniferoen baso ustiapena			
Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko etekin garbia pezetatan
F-1	Baso azalera, azken mozketarekin	Hektarea	918.725
F-2: Hazkunde bizkorreko hostozabalen baso ustiapena			
Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko etekin garbia pezetatan
F-2	Baso azalera, azken mozketarekin	Hektarea	459.365
F-3: Hazkunde moteleko hostozabalen baso ustiapena			
Modulua	Definizioa	Unitatea	Urteko etekin garbia pezetatan
F-3	Baso azalera, azken mozketarekin	Hektarea	4.019.425

Zutabea: *“Urteko etekina”*. Jarduerari ezarri ahal zaizkion moduluetarik bakoitzari dagokion etekin garbiak agertu beharko du

Laukitxo: *“Txikipena basoa berritzeagatik”*. Baldin eta ustiatzen diren basoak berritzen badira, orduan moduluak ezartzetik ateratzen diren kopuruak txikitu egingo dira ondoko laukian adieraziko den moduan:

Definizioa	Txikipena berritzen den basoaren hektareako (pezetatan)
Basoa koniferoekin berritzea	172.245
Basoa hazkunde bizkorreko hostozabalekin berritzea	110.957
Basoa hazkunde moteleko hostozabalekin berritzea	554.785

Baldin eta basoa berritzen bada, mozqueta egiteko baimena ematen denetik zenbatu beharreko bi urteko epean; horretarako, lehenengo, frogagiri egokia aurkeztu beharko da, Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko Baso Zerbitzuak luzatua.

Kasua kasuko baso administrazio eskudunak, espeziearen arabera, zehaztuko duen batez besteko ekoizpen epealdiaren barruan sortutakotzat joko dira baso finak ustiatzearen ondoriozko etekin urteaniztun positiboak.

Administrazio eskudunak onetsitako kudeaketa eta antolamendurako plan teknikoan, dasokrazia planen edo basoen birlandaketarako planen arabera kudeatu diren baso finkak ustiatzen dituztenei eman zaizkien diru-laguntzak ez dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarriaren barruan sartuko, baldin eta batez besteko ekoizpen epealdia hogeita hamar urtekoa edo hori baino luzeagoa bada.

Laukitxoa: *“Etekin garbi irregularra”*. Urteko etekinaren zutabearen dauden zenbatekoen batura izango da. Ustiatzen den azalera berritzea [2510]. gakoan eta hala dagokionean [2707]. gakoan egin bada, orduan ondoko kenketa egingo da: Urteko etekinaren zutabearen dauden partiden batura – txikipena baso berritzeagatik.

Laukitxoa: *“Aparteko gastuak eta urripenak”*. Lerro honetan, jarduerak suteak, uholde, amiltze edota euren erabilera arruntetik kanpoko beste edozer jasaten dutenean, gertatzen diren gastu edota urripenen zenbatekoa jarriko da. Etekinaren gastu edota urripen horien zenbatekoaz txikitu ahal izango da, baldin eta jakinarazten bazaizkio Administrazioari, zeinek begiztatuko baitu horiek benetakoak diren. Gastu legez hartzen bada, ezin da urripentzat hartu, eta alderantziz.

Laukitxoa: *“Etekin garbi irregularra guztira”*. Etekin garbi irregularraren eta aparteko gastu eta urripenen arteko kendura agertuko da.

Laukitxoa: *“Etekin garbia, indize orokorrak zuzenduta”*. “Etekin garbi irregular guztia”ri berari dagokion txikipena ezartzetik ateratzen den emaitza da, kasuen arabera, abelur jardueretarako zehaztu den modu bertsuan.

Laukitxoa: *“Egotzitako etekin garbi irregularra”*. Subjektu pasiboak jarduera bakar-ka egiten badu, orduan [2514] eta, hala dagokionean, [2711]. gakoetan jarri behar den zenbatekoak bat etorri behar du [2513] eta [2710]. gakoetakoekin, hurrenez hurren. Subjektu pasiboa ondasun erkidego batekoa edo gehiagokoa bada, [2514] eta, hala dagokionean, [2711]. laukitxoetan azaldu behar duen zenbatekoa ondoko eragiketa-aren emaitza izango da: subjektuak erkidego horietan duen partaidetzaren portzentajea [2513] eta [2710]. gakoetan dauden zenbatekoei ezarriko zaie, eta emaitza hori jarriko da.

Laukitxoa: *“Lotutako ondasunen ondare gehikuntza eta urripenak”*. [2515] eta [2712]. gakoetako zenbatekoa kontuan hartuko da, “zerga oinarri erregularra”, inprimakiaren 5. orrialdeko [650]. gakoa kalkulatzeko.

[2514] eta, hala dagokionean, [2711]. gakoetan dauden kopuruak inprimakiaren 3. orrialdeko F atalera eroan beharko dira: *“Etekin irregularrak edo urtebetetik gorako ziklokoak”*.

Egotzitako etekin irregularraren zenbatekoa negatiboa bada, orduan inprimakiaren 3. orrialdeko F ataleko [253]. laukitxora eroan beharko da.

Basozaintzako jardueren etekin garbia

1. Etekin garbi irregularra lortuko da:
 - a) Ustiatutako azaleretako basoak berritzen ez badira:

Etekin garbi irregularra = (Hektarea kp. x 918.725 + Hektarea kp. x 459.365 + Hektarea kp. x 4.019.425)

b) Ustiatutako azaleretako basoak berritzen badira:

Etekin garbi irregularra = [(Hektarea kp. x 918.725 + Hektarea kp. x 459.365 + Hektarea kp. x 4.019.425) - (Basoberritu diren hektareen kp. x 172.245 + Basoberritu diren hektareen kp. x 110.957 + Basoberritu diren hektareen kp. x 554.785)] ⇒ Etekin garbi irregularra = [(Hektarea kp. x 918.725 - Basoberritu diren hektareen kp. x 172.245) + (Hektarea kp. x 459.365 - Basoberritu diren hektareen kp. x 110.957) + (Hektarea kp. x 4.019.425 - Basoberritu diren hektareen kp. x 554.785)]

2. Etekin garbi irregularra guztira lortuko da:

Etekin garbi irregularra guztira = Etekin garbi irregularra - Aparteko gastuak eta urripenak.

3. Egotzitako etekin garbi irregularra lortuko da:

a) Lehentasunezko nekazaritzako ustiapena ezartzea:

Egotzitako etekin garbi irregularra = Etekin garbi irregularra guztira x 0,60.
Baldin eta subjektu pasiboa ondasun erkidego bateko kidea bada: Egotzitako etekin garbi irregularra = Etekin garbi irregularra guztira x 0,60 x Partaidetzaren portzentajea.

b) Orokorra:

Egotzitako etekin garbi irregularra = Etekin garbi irregularra guztira x 0,85.
Baldin eta subjektu pasiboa ondasun erkidego bateko kidea bada: Egotzitako etekin garbi irregularra = Etekin irregularra guztira x 0,85 x Partaidetzaren portzentajea.

4. Lotutako ondasunen ondare urripen eta gehikuntzak zerga oinarri erregularraren zati izango dira.

E. BAXURAKO ARRANTZAKO JARDUERA

Subjektu pasiboari dagokion etekina kalkulatu da, zelan eta ondoko 1 eta 2. ataletan azalduko diren eragiketetatik ateratzen diren zenbatekoak batuaz:

1. Diru-partillaren %85; diru-partilla hauxe da: harrapatutako arrainen baliotik ontzi-jabeak jasotzen duen partaidetza; hala ere, 1. atal honetan lortutako zenbatekoak ezin du inoiz txikiagoa izan zergaldi bakoitzean 18 urte baino gehiagokoentzat bermaturik dagoen lanbidearteko gutxieneko alokairua baino (952.560 pezeta).

2. Unitate bakoitzari esleituriko kopurua biderkatuko da subjektu pasiboari egotzi ahal zaizkion unitateen kopuruaz, horretarako ez da kontuan hartuko ontzi batekoak edo gehiagokoak diren, eta ondoko datuok erabiliko dira:

Unitatea: Erregistro gordineko tona	Urteko etekina unitateko 1998ko pezetatan
Tona	17.679

Hala ere, ontzi-jabeek ez badute ezein partaidetzarik jaso ekitaldian harrapatutako arrainen baliotik, orduan beraiei dagokien etekina izango da, zein eta 2. atalean da- goen eragiketa egitetik ateratzen den zenbatekoa bakarrik.

Etekin garbia baxurako arrantzako jardueran.

1. Jardueraren etekina lortuko da:
Jardueraren etekina = Partilla x 0,85 + Erregistro gordineko tonen kp. x 17.679
2. Modulukako etekin garbia lortuko da:
Modulukako etekin garbia = Jardueraren etekina – Aparteko gastuak eta ondare urripenak
3. Etekin garbi eta txikitua lortuko da:
Etekin garbi eta txikitua = Modulukako etekin garbia x 0,85
4. Etekin garbia lortuko da:
Etekin garbia = Etekin garbi eta txikitua + Lotutako ondasunen ondare gehikun- tzak – Lotutako ondasunen ondare urripenak + ABEren ziozko hartukizunak

Oharra: ekitaldian zehar ondare gehikuntza edo urripenak lortu badira abelurgintza, basozaintza eta baxurako arrantzako jarduerari loturik dauden ondasunengatik, or- duan inprimakiaren 10. orrialdeko behealdera jo beharko da, beraiek azaltzeko.

BAKOITZARI DAGOZKION ETEKINAK

Subjektu pasiboak famili unitatearen barruan egon arren, euren zergaren aitorpe- na banaka aurkezten dutenean, enpresa, lanbide eta arte jardueren etekinak lortu dituztenak hauxek izango dira: ohikiro, euren kasa eta zuzenean ekoizbideak eta jarduerari loturiko giza baliabideak euren kasa antolatu dituztenak. Honen aurkako frogarik ez badago, betekizun horiek dituztenak enpresa, lanbide edo arte jardue- ren titularrek dituztela ulertuko da.

EUROPAKO BATASUNAREN NEKAZARITZAKO POLITIKAKO DIRU-LAGUN- TZAK

Errenta positiboak ez dira zerga oinarriaren barruan sartuko, baldin eta beraien ja- torria ondokoetarik bat bada:

- a) Europako Batasunaren nekazaritzako politikako ondorengo diru-laguntzak hauek:
 1. Mahastizaintzari behin betiko uztea.
 2. Sagardiak ateratzearen ziozko sariak.
 3. Bananadiak ateratzearen ziozko sariak.
 4. Esne-ekoizpenari behin betiko uztea.
 5. Muxikazaintza eta nektarinazaintza behin betiko uztea.
 6. Muxikondo eta nektarinondoak ateratzea.
- b) Europako Batasunaren nekazaritzako politikako diru-laguntzak hartzea, arran- tzari behin betiko uzteagatik. Horri dagokionez, arrantzari behin betiko uzten zaiola ulertzen da, baldin eta ondoko inguruabarretarik baten bat jazotzen bada:

1. Arrantzari lotutako ontzi guztiak edo horietakoren bat txikitu izatea.
2. Ontzi guztiak edo horietakoren bat Europako Batasuneko kidea ez den herrialde batera behin betiko eraman izatea, betiere eskualdaketa horren ondorioz, Nazioarteko zuzenbidea zaurtu edo arrantza baliabideak artatu eta ku-deatzeko arauak bete ez badira.
3. Ontzi hori Europako Batasuneko uretan arrantzakoak ez diren zereginetarako behin betiko esleitu izatea.

Ontziak erregistro gordineko 2,5 tonako (EGT) baino arkeo txikiagoa duenean, ontziaren txikitzeak bakarrik jaso ahal izango ditu herri erakundeen laguntzak.

- c) Arranontzi bat besterentzea, baldin eta kontraprestazioa urtebeteko epearen barruan zatitutako, Europako Batasuneko kidea ez den beste herrialde batera behin betiko aldatutako edo arrantzakoak ez diren zereginetarako behin betiko in-suldatu edo traspasatutako beste arranontzi bat oso-osoan edo zati bat denean eta trukean Europako Batasuneko arrantza politikaren baitako diru-laguntzaren bat jasotzen bada. Besterendutako ontziaren arrantza behin betiko gelditzeagatik jabeari Europako Batasunarengandik egokituko zitzaion laguntzaren gehieneko zenbatekoa izango da zergaren zerga-oinarriaren barruan sartuko ez den zenbatekoaren muga.
- d) Enpresa jardueri atxikitako ondare-osagaien sute, uholde edo amiltzearen ondoriozko suntsidura konpontzeko jasotako laguntza publikoak hartzea.

Zelan kalkulatu den lortutako errenta:

Zerga oinarrian sartuko ez den errenta kalkulatzeko, ondoko hauek hartuko dira kontuan: jasotako laguntzen zenbatekoa eta, hala gertatuz gero, jardueri atxikitako osagaietan gertatu diren ondare-galerak. Laguntza horien zenbatekoa osagai horietan gertatutako galerena baino txikiagoa bada, diferentzia negatiboa sartu ahal izango da zerga oinarrian. Galerarik ez dagoenean, ordea, laguntzen zenbatekoa soilik salbuetsiko da kargatik.

1. Ondarean galera motaren bat gertatu denetan:
Hartutako laguntzaren zenbatekoa – galeraren zenbatekoa:
 - a) Hartutako laguntzaren zenbatekoa – galeraren zenbatekoa $\geq 0 \Rightarrow$ Lortutako emaitza ez da zerga oinarrian sartuko.
 - b) Hartutako laguntzaren zenbatekoa – galeraren zenbatekoa $< 0 \Rightarrow$ Lortutako emaitza zerga oinarrian sartuko da.
2. Ondarean ezetarik galerarik jaso ez denetan:
Hartutako laguntzaren zenbatekoa $> 0 \Rightarrow$ Lortutako emaitza ez da zerga oinarrian sartuko.
Arrantza jarduera mugatzeko neurriak

Europako Batasunaren nekazaritzako politikaren ondorioz, neurriak hartu ahal izango dira, arrantza neurtzeko, hala arrantzan egin daitekeen egun kopuruari dagokionez, nola denboraldi jakin baten baimenduta dauden mareen egunei dagokienez. Muga horiek ezin izango dute ezein laguntza publikorik jaso.

KASU PRAKTIKOA

J.B.U. jaunak abelur ustiatagia du, 5 hektareakoa. Ondokoak ditu:

- 5 esne-behi; horietarik 3k 3 urte dituzte, eta 2k urtebete.
- 2 mando.
- 35 ardi; horietarik, 15 hiru hilekoak baino nagusiagoak diren emeak dira.

5 hektarea horietarik, 3,5 esne-behiek eta mandoek jan dezaten erabiltzen ditu; 1,5 hektarea, berriz, ardiek jateko erabiltzen ditu:

Ebazpena

Unitateak zenbatuko dira.

Esne-behiak: $3 + 2 \times 0,6 = 4,2$

Mandoak: 2

ALUak guztira = 6,2

Ardiak = 15

ALU

$$\text{G-1 moduluari dagozkion hektareak: } 1: \frac{3,5 \times 4,2}{6,2} = 2,37$$

$$\text{G-4 moduluari dagozkion hektareak: } 1: \frac{3,5 \times 2}{6,2} = 1,13$$

Etekin garbia kalkulatu da.

G-1: esne-behien ustiapen estentsiboa:

G-1: 1: $2,37 \times 31.440 = 74.513$

G-1: 2: $4,2 \times 20.930 = 87.906$

G-4: zaldi-, mando- eta asto-azienden ustiapen estentsiboa:

G-4: 1: $1,13 \times 12.575 = 14.210$

G-4: 2: $2 \times 8.440 = 16.880$

15 ardi: beraiei jaten emateko, 1,36 hektarea behar dira; horrenbestez, moduluak honetaraxe ezarri behar dira:

G-3: ardi- eta ahuntz-azienden ustiapen estentsibokoa:

G-3: 1: $1,36 \times 12.575 = 17.102$

$15 \times 1.465 = 21.975$

Gainerako hektareak honetara joango dira: A-4: $1,5 - 1,36 = 0,14$; $0,14 \times 22.010 = 3.081$

Jardueraren etekina = 235.667

Etekin zuzendua = $0,8 \times 235.667 = 188.534$

Etekin garbi eta txikitua = $188.534 \times 0,85 = 160.254 = \text{Etekin garbia}$

IFZ		Lehen deitura		Bigarren deitura		Izena		1998	
D ₄		Abelgintza, basozaintza eta baxurako arrantza zeinu, indize edo moduluka egiten den zenbatespen objektiboan							
Identifikazio datuak	Titularraren (Gakoa)			2400		A		2600	
	Titularraren IFZ / Ondasun erkidegoaren IFZ			2401				2601	
	Ondasun erkidegoan duen partaidetzaaren portzentajea			2402		%		2602	
Etekin erregularrak	Jardueraren	Modulua	Deskripzioa	Aleko balioa	Unitateak		Urteko etekina		Urteko etekina
							Unitateak		
	Baxurako arrantza	1. mod	Diru-partilla (0.85)			2403		2603	
			Erregistro gordineko tona	17.679	2404	2405	2604	2605	
	Haize ageriko baratz zaintza	A-1	Neka. erabil litekeen azalera (ha)	871.070	2406		2606	2607	
	Baratz zaintza estalia	A-2	Neka. erabil litekeen azal. ≤ 0.3 (ha)	2.613.200	2408	2409	2608	2609	
			Neka. erabil litekeen azal. > 0.3 (ha)	1,2 x 2.613.200	2410	2411	2610	2611	
	Frutarbolan luginza	A-3	Neka. erabil litekeen azalera (ha)	132.790	2412	2413	2612	2613	
	Belar-soroa	A-4	Neka. erabil litekeen azalera (ha)	22.010	2414	0,14 2415	3,081 2614	2615	
	Nekazaritza orokorra	A-5	Neka. erabil litekeen azalera (ha)	65.750	2416	2417	2616	2617	
	Esnerako idi-aziendaren ustiapen esten.	G-1	Neka. erabil litekeen azalera (ha)	31.440	2418	2,37 2419	74,513 2618	2619	
			Abelburuen kopurua	20.930	2420	4,2 2421	87,906 2620	2621	
	Okelarako idi-aziendaren ustiapen esten.	G-2	Neka. erabil litekeen azalera (ha)	12.575	2422	2423	2622	2623	
			Abelburuen kopurua	8.440	2424	2425	2624	2625	
	Ardi- eta ahuntz-azi. ustiapen esten.	G-3	Neka. erabil litekeen azalera (ha)	12.575	2426	1,36 2427	17,102 2626	2627	
			Abelburuen kopurua	1.465	2428	15 2429	21,975 2628	2629	
	Zaldi-, mando- eta asto-azi. us. est.	G-4	Neka. erabil litekeen azalera (ha)	12.575	2430	1,13 2431	14,210 2630	2631	
			Abelburuen kopurua	8.440	2432	2 2433	16,880 2632	2633	
	Esnerako idi-aziendaren us. estentsiboa	G-5	Abelburuen kopurua ≤ 25 ALU	62.705	2434	2435	2634	2635	
			Abelburuen kopurua > 25 ALU	1,2 x 62.705	2436	2437	2636	2637	
	Okelarako idi-aziendaren us. intentsib.	G-6	Abelburuen kopurua ≤ 25 ALU	41.860	2438	2439	2638	2639	
			Abelburuen kopurua > 25 ALU	1,2 x 41.860	2440	2441	2640	2641	
	Ardi- eta ahuntz-azi. us. estentsiboa	G-7	Abelburuen kopurua ≤ 265	6.290	2442	2443	2642	2643	
			Abelburuen kopurua > 265	1,2 x 6.290	2444	2445	2644	2645	
	Zaldi-, mando- eta asto-azi. us. int.	G-8	Abelburuen kopurua ≤ 25 ALU	35.890	2446	2447	2646	2647	
			Abelburuen kopurua > 25 ALU	1,2 x 35.890	2448	2449	2648	2649	
	Txerri-aziendaren ustiapena	G-9	Abelburuen kopurua	5.170	2450	2451	2650	2651	
	Hegazti-hazkuntza, galeperra izan ezik	G-10	Hegaztien kopurua	215	2452	2453	2652	2653	
	Galeperra	G-11	Hegaztien kopurua	80	2454	2455	2654	2655	
	Untxi-hazkuntza	G-12	Untxiaren kopurua	2.066	2456	2457	2656	2657	
	Erlazaintza	G-13	Erlautzen kopurua	5.025	2458	2459	2658	2659	
	Nekazaritza moa	T-1	Piazen kopurua ≤ 6 hilabete	71.780	2460	2461	2660	2661	
			Piazen kopurua > 6 hilabete	1,2 x 71.780	2462	2463	2662	2663	
	Jardueraren etekina			2464		235.667		2664	
	Ezaugarrien araberako indize zuzentzailea (baxurako arrantza izan ezik)	Koe.		2465	0,80 2466	188.534		Koe. 2665	0,80 2666
	Etekin zuzendua			2467				2667	
	Aparteko gastuak eta urripenak (suteak, lapurretak...)			2468				2668	
	Etekin garbia moduluka			2469				2669	
Txiki-zalaienak	Lehentasunezko nekazaritzako ustiapena ezartzea eta orokorra					2470	0,60 2471	2670	0,60 2671
	Orokorra bakarrik					2474	0,85 2475	160.254	2674
	Etekin garbi eta txikitua			2476				2676	
	Lotutako ondasunen gehikuntza eta urripenak			2477				2677	
	Aldi baterako ezgaltasunaren ziozko hartukizunak			2478				2678	
	Etekin garbia			2479		160.254		2679	
	Egotzitako etekin garbia			2480		160.254		2680	

IX. KAPITULUA

ZERGA-GARDENTASUNAREN

ARAUBIDEAN DAUDEN OINARRI

POSITIBOEN EGOZKETA

KONTZEPTUA ETA SAILKAPENA

Zerga-gardentasuna zergapetze-araubidea da, eta ondokoak egozten ditu: –balore sozietateen, ondasunen ukantza soiloko sozietateen, arte edo kirol jardueretako sozietateen eta profesionalen sozietateen zerga oinarri positiboa, Sozietateen gaineko Zergari buruzko arauen arabera zehazturik, baina Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauaren 66. artikuluan ezarritako baldintzekin; –sozietate gardenaren Sozietateen gaineko Zergaren aitortpeneko kuotako kenera eta hobariak, bai eta erakunde horiek ordaindutako zatikako ordainketak, atxikipenak eta konturako sarrerak, eta sozietatearen zergaren zioz ordaindutako kuota, foru arau horretan ezarri den bezala.

1. *Balore sozietateak.*

Aktiboaren erdia baino gehiago baloreek osatuta duten sozietateak sozietate gardentzat joko dira, beraietan honako inguruabar hauek gertatzen direnean:

- a) Sozietatearen kapitalaren 100eko 50 baino gehiago famili talde batena izan beharko da eta helburu horretarako taldea laugarren gradurainoko, azken hau ere barne, zuzeneko edo alboko ahaidetasun, odolkidetasun edo ezkon ahaidetasun lokarriz elkartutako pertsonak osatua dagola ulertuko da.
- b) Sozietatearen kapitalaren 100eko 50 baino gehiago 10 kiderena edo gutxiagorena izan beharko da.

Baloreek osatzen badute aktiboaren zati bat, aktiboaren zati hori zehazteko kontuan hartu behar diren baloreak zenbatzeari begira, ondokoak ez dira baloretzat hartuko:

- Legezko eta araudizko betebeharrak betetzeko edukiko direnak.
- Enpresa eta lanbide jarduerak burutzeko finkatuko diren kontratu harremanetik sorturiko mailegurako eskubideak erakarriko dituztenak.
- Xede duten jarduera burutzeagatik balore-sozietateek izango dituztenak.
- Boto eskubideen 100eko 5 emango dutenak, eta partaidetza zuzentzeko eta kudeatzeko helburuaz edukiko direnak, baldin eta horretarako materialen eta pertsonen behar bezalako antolaketa badago eta partaidetza eman duen erakundea zerga-gardentasunaren araubidean ez badago.
- Erakundeak lortutako mozkin banatugabeen zenbatekoaren azpiko eskuraketa prezioa duten haiek, baldin eta mozkinok enpresa edota lanbide jarduerak egi-

tetik badatoz, urte horretan bertan zein aurreko azken hamar urteetan lortutako mozkinen zenbatekoaren mugarekin.

2. Ondasunen ukantza soileko sozietateak.

Aktiboaren erditik gora enpresa edota lanbide jardueri loturik izango ez duten sozietateak zerga-gardentasunaren araubideko sozietatetzat hartuko dira, baldin eta aurreko 1. puntuko a) eta b) letretako inguruabarren antzekoak gertatzen badira. Osagaiak ez dira enpresa edota lanbide jardueri lotuta egongo, baldin eta erakundeak lortutako mozkin banatugabeen zenbatekoaren azpiko eskuraketa prezioa baidute; horrezaz gainera, mozkinok enpresa edo lanbide jarduerak egitetik etorri behar dute, urte horretan bertan zein aurreko azken hamar urteetan lortutako mozkinen zenbatekoaren mugarekin.

3. Arte edo kirol jardueretako sozietateak.

Sozietateek zerga-gardentasunaren araubidean ordainduko dute zerga, baldin eta euren ekitaldiko sarreren 100eko 50etik gora pertsona fisikoen arte jarduerak zein kirol jarduerak egitetik badatoz; horrezaz gainera, pertsona fisiko horien eta euren laugarren gradurainoko senitartekoen artean eskubidea izan behar dute sozietate haien mozkinen 100eko 25eko partaidetza izateko gutxienez.

4. Profesionalen sozietateak.

Ekitaldiko sarreren 100eko 75etik gora lanbide jardueretakoak dituzten sozietateak zerga-gardentasunaren araubideko sozietatetzat hartuko dira, baldin eta profesionalek, hau da, jarduera horien garapenarekin zuzenean edo zeharka loturik dauden pertsona fisikoek, gutxienez, mozkinen 100eko 50ean parte hartzeko eskubidea baidute eurek bakarrik edota euren laugarren gradurainoko senitartekoekin batera, azken hauek ere barne.

Egozketari eutsiko zaio aurreko 1, 2, 3 eta 4. puntuetako inguruabarrak sozietatearen ekitaldiaren laurogeita hamar egun baino gehiagotan gertatzen direnean.

Ez da zerga-gardentasunaren araubidea ezarriko:

- Kide guztiak zerga-gardentasunaren menpeko ez diren pertsona juridikoak direnean.
- Sozietatearen kapitaleko partaidetzaren ordezkartasuna duten baloreak Baloreen Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legean ezarritako baloreen bigarren mailako merkatu ofizialeko baten negoziatzeko onartuak dauden zergaldietan.
- Zuzenbide publikopeko pertsona juridiko bat kapitalaren 100eko 50en titularraren denean; azken hau, balore sozietateen eta ondasunen ukantza soileko sozietateen kasuan bakarrik.

ZERGA-GARDENTASUNAREN ARAUBIDEKO SOZIETATEEN ZERGA ORDAINKETA

Sozietate gardenek Sozietateen gaineko Zerga ordainduko dute, eta zerga horretako beste edozein subjektu pasiboren antzera sartuko dute kuota.

Zerga-gardentasunaren araubideko sozietate bateko bazkideek euren egoitza espainiar lurraldean izan dezakete, edo espainiar lurraldetik kanpo; eta zerga ordainkera aldatuko da, egoiliarrek diren ala ez kontu, bai sozietatearentzat, bai bazkideentzat.

A. PFEZren zioz norberaren betebeharrarengatik edo Sozietateen gaineko Zergaren zioz (pertsoneko egoiliarrek) ordaindu behar duten bazkide subjektu pasiboak.

1. Sozietatearen zerga ordainketa

PFEZren edo Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboaren zatiari dagokionez, zerga ordaintzeko araubide iragankorra ezarri da azken zerga horretan, sozietate gardenentzat, baldin eta beraiei ezartzen zaizkien karga tasak ondokoak badira:

Urteak	Tasak
1996	%0
1997	%10
1998	%20

2. Bazkide pertsona fisikoen zerga ordainketa

a) Sozietate gardenek lorturiko zerga oinarri positiboak egotzi egingo dira. Hala eta guztiz ere, egotzi den zerga oinarriaren zatiak hartuko duen tratamendua higikorren kapitalaren etekinei buruzko kapituluaren balore mota horrentzat esandako berbera izango da, baina horretarako baldintza bat bete beharko du: egoitza espainiar lurraldean duen erakunde baten fondoetako partaidetzarengatik lortutako etekinena izan behar du zati horrek.

- Sozietate garden baten zerga oinarriaren egozketa, baldin eta sozietate horretan ez badago etekinik, egoitza espainiar lurraldean duen erakunde baten fondoetako partaidetzatik datorrenik: Egotzitako oinarriak = % egokia x sozietate gardenaren zerga oinarria
- Sozietate garden baten zerga oinarriaren egozketa, baldin eta sozietate horretan etekinak badaude, egoitza espainiar lurraldean duen erakunde baten fondoetako partaidetzatik datozenak:

1go.) Ondoko proportzioa lortuko da:

Sozietate gardenari egotzitako zerga oinarria x Sozietatearen beraren fondoak

----- = Pr
Etekinak guztira

2gn.) Horrela lortu den zenbatekoaren tratamendua hauxe izango da:
egoitza espainiar lurraldean duen erakunde baten fondoetako partaidetzarako esandakoa:
- Pr x 0,40
- Pr x 0,25

3gn.) Aurreko puntuan ezarritako moduan egindako eragiketaren emaitza hasieran egotzi behar den zerga oinarriari erantsiko zaio:
Egotzi behar den oinarri berria = Sozietate gardenaren zerga oinarria + Pr x 0,40 + Pr x 0,25

4gn.) Zerga oinarriaren egozketa:
Egotzitako oinarriak = % egokia x [Sozietate gardenaren zerga oinarria + (Pr x 0,40 + Pr x 0,25)]

b) Zerga gardentasunaren araubidepeko sozietateen zerga oinarri negatiboak ez dira egotziko, eta osteko eta segidako hamabost urteetan bukatuko diren zergaldietan sozietateak lortutako zerga oinarri positiboekin konpentsatu ahal izango dira.

c) Ondokoak ere egotzi egongo dira:

- Sozietate gardenari dagozkion kenkariak eta hobariak kuotan. Kenkarien eta hobarien oinarriak kideen likidazioan sartuko dira eta kuota gutxituko dute zerga honen arauen arabera. Kenkari eta hobari hauek zerga oinarri positiboarekin batera egotziko dira.
- Sozietate gardenari dagozkion zatikako ordainketak, atxikipenak eta konturako sarrerak.
- Sozietateen gaineko Zergarengatik sozietate gardenak ordaindutako kuota.

d) Zerga oinarri positiboaren egozketa jasan izan beharko duten kideei dagozkien eta sozietatea gardentasun araubidepekoa zeneko zergaldietako dibidenduek eta mozkinetako partaidetzek ez dute Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga ordainduko.

e) Subjektu pasiboek zerga oinarri positiboaren egozketa jasan behar badute, orduan beraien dibidendu eta partaidetzek higikorren kapitalaren etekin gisa ordainduko dute zerga, egoitza espainiar lurraldean duen erakunde baten fondoetako partaidetzen zioz; dibidendu eta partaidetzek, azkenik, sozietatea zerga-gardentasunaren araubidean egon ez zen ekitaldietakoak izan behar dute.

3. Egozketa irizpideak

Sozietate gardenaren zergaldiaren mugaegunean kidea izateari datxezkion eskubide ekonomikoak izango dituzten pertsonaei edota erakundeei egingo zaizkie egozketak, sozietatearen estatutuek eratorritako proportzioan edo, hala badagokio, sozietatearen kapitalean duten partaidetzaren arabera.

Egozketa honelaxe burutuko da:

a) Kideak sozietate gardenak direnean, parte hartzen duteneko sozietatearen ekitaldia itxi den egunean.

- b) Kideak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko edota Sozietateen gaineko Zerga norberaren betebeharragatik ordaindu behar duten subjektu pasiboak direnean, beraiei dagozkien urteko kontuak onartu zitzaizkien zergaldian, salbu eta partaidetzako sozietatearen ekitaldia itxi den egunean bertan jarraian egiteko erabakia hartu ezean.

Ondorioak izango dituen Zergaren lehenengo aitortpenean adierazi beharko da aukera, eta hiru urtetan zehar mantendu hau.

B. Bazkide ez-egoiliarak

Espainiar lurraldean egoitzarik ez duten bazkideen zatiari dagokiolarik, sozietate gardenak Sozietateen gaineko Zerga ordainduko du, eta ezin izango da ezein egozketarik egin bazkide izateagatik.

Espainiar lurraldean egoitzarik ez duten kideei dagozkien dibidenduek eta mozkinetako partaidetzek kontzeptu horregatik ordaindu beharko dute, egoiliarak ez diren zerga-ordainketari buruzko arau orokorrekin, zergapetze bikoitza eragozteko Espainiak harpidetutako hitzarmenekin eta Euskal Herriko Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomi Itunaren Aldarazpena onetsi zuen abuztuaren 4ko 38/1997 Legearen 9. artikularekin bat etorritz.

ZERGA-GARDENTASUNAREN ARAUBIDE BEREZIA

Inprimakiaren E atalean ikusitakoaren arabera, goian aipatutako gardentasun araubideko sozietateen bazkideei erakunde horien zerga oinarri positiboak bakarrik egotzi ahal zaizkie. Hala ere, salbuespenez, badaude beste erakunde batzuk, zeini araubide bera ezar dakiekeen, baina orduan bazkideei zerga oinarriak egotzi ahal zaizkie, positiboak edo negatiboak diren kontuan hartu barik.

Erakundeak honako hauek dira:

- a) Ekonomi intereseko elkarteak.
- b) Ekonomi intereseko europar elkarteak.
- c) Enpresen aldi baterako batasunak.

BAKOITZARI DAGOZKION ERRENTAK

- a) Balore sozietateen, ondasunen ukantza soileko sozietateen eta arte zein kirol jardueretako sozietateen zerga oinarri positiboak, higikorren kapitalaren etekinak bakoitzari eratzikitzeko ezarritako erregelara berberen arabera egotziko dira.
- b) Profesionalen sozietateen zerga oinarri positiboak beraien bazkide direnei egotziko zaizkie, baloreen titulartasuna komuna bada ere.

KASU PRAKTIKOA

A.A.M. andreak %20ko partaidetza du SUN, S.A. erakundearen sozietate-kapitalean; erakunde horren egoitza espainiar lurraldean dago. Sozietatea zerga-gardentasunaren araubidearen menpean dago. 1997ko ekitaldiko emaitzak, 1998ko martxoan onetsitakoak, ondorik zehaztuko dira:

Kontabilitateko emaitza = 4.000.000 pezeta

Zerga oinarria = 3.000.000 pezeta

Zerga oinarriaren barruko dibidenduak (kenkarirako ezar daitekeen portzentajea %40koa da) = 800.000 pezeta

Atxikipenak eta konturako sarrerak = 300.000 pezeta

Zatikako ordainketak = 500.000 pezeta

Ebazpena

Egotzi beharreko zerga oinarria:

Egotzi beharreko zerga oinarriaren barruan 800.000 pezeta daude dibidendu gisa; horrenbestez, zerga oinarriari dagozkion dibidenduen proportzioa kalkulatu beharko dugu, eta etekin mota honentzat zehazturiko tratamendu berezia emango zaie:

$$\frac{800.000 \times 3.000.000}{4.000.000} = 600.000$$

Dibidenduen kenkariaren oinarria = 600.000

Egotzi beharreko dibidenduen kenkariaren oinarria = 600.000 x %20 = 120.000

Egotzi beharreko dibidenduak = 600.000 x %40 = 240.000

Egotzi beharreko zerga oinarria = 3.000.000 + 240.000 = 3.240.000

Egotziko den zerga oinarria = 3.240.000 x %20 = 648.000

Dibidenduen zioz egotziko den kenkaria = 240.000 x %20 = 48.000

Egotziko diren atxikipenak eta konturako sarrerak = 300.000 x %20 = 60.000

Egotziko diren zatikako ordainketak = 500.000 x %20 = 100.000

Atxikipenak eta zatikako ordainketak guztira = 160.000

E Zerga-gardentasunaren araubideko zerga oinarria								
E ₁ Araubide orokorra								
Hartzailea	Erakundearen IFZ		Dibidenduen kenkariaren oinarria	Egotzi atxikipenak		Egotzi oinarriak		
147	A	148	149	120.000	150	60.000	151	648.000
152		153	154		155		156	
1. guztirakoa			157	120.000	158	60.000	159	648.000
E ₂ Profesional, artista edo kirolarien sozietateak								
Hartzailea	Erakundearen IFZ		Dibidenduen kenkariaren oinarria	Egotzi atxikipenak		Egotzi oinarriak		
160		161	162		163		164	
165		166	167		168		169	
2. guztirakoa			170		171		172	
Guztira			173	120.000	174	60.000	175	648.000

Administrazioarentzako alea

— 2

X. KAPITULUA

ETEKIN IRREGULARRAK EDO URTEBETETIK GORAKO ZIKLOKOAK

ZER DIREN

Kontzeptu honen barruan, subjektu pasiboak, denboran zehar irregulartasun handiarekin, lortzen dituen harako etekin guztiak edota, nahiz eta lorpen erregularra izan, ekoizpen zikloa urtebetetik gorakoa dutenak sartu behar dira. Etekin hauek tratamendu berezia izango dute, Zergako tarifen aurrerakortasunaren ondoreak zuzentzeko.

Erabili behar den prozedura

1. Etekin garbi irregularra lortzeko hauxe egingo da: hartutako diru-sarrerak ken zergan ken daitezkeen gastuak, eta emaitza hori izango da etekina; hala ere, subjektu pasiboak jarduerak egitetik datozen etekinei dagokienez, etekin garbia lortzeko dagoen zenbatespen metodo bakoitzaren arau bereziak ezarriko dira.
2. Lehenengo puntuan egindako eragiketaren emaitza zatituko da sortarazpen urteen kopuruaz; ez bada jakiten zenbat urte diren, orduan 5 erabiliko da:

Etekin garbi irregularra

Sortarazpen urteen kp.

3. Aurreko eragiketaren emaitzako zenbatekoa zerga oinarri erregularrean sartuko da bere zeinuarekin, dela positiboa, dela negatiboa.
4. Gainerako etekin irregularra sartu edo konpentsatu egingo da, subjektu pasiboak ekitaldian zehar lor ditzakeen gainerako etekin irregularrekin:

Etekin garbi irregularra

Gainerako etekin irregularra = Etekin garbi irregularra - -----
Sortarazpen urteen kp.

Subjektu pasiboak eragiketa hau egin beharko du: Σ Gainerako etekin irregularra.

5. Ondoko egoerak izan daitezke:
 - Baldin eta Σ Gainerako etekin irregularra > 0 (positiboa) bada, orduan, batuketa horren emaitza zerga oinarri irregularrera eroango da.
 - Baldin eta Σ Gainerako etekin irregularra < 0 (negatiboa) bada, orduan, batuketa horren emaitza konpentsatu ahal izango da, subjektu pasiboak ondorengo bost ekitaldietan lortzen dituen gainerako etekin irregular positiboekin.

- *Salbuespena*: subjektu pasiboak egiten dituen enpresa edota lanbide jardueretako etekin irregular negatiboak, horiek zerga oinarri erregularrean sartuko baitira.

ZELAN BETEKO DEN PFEZ'1998 INPRIMAKIA

Laukitxoa: *Hartzailea (gakoa)*. Etekin irregularra nork hartzen duen adieraziko da:

- A: aitortzailea.
- E: ezkontidea.
- 1. S-A edo 2. S-A...: famili unitateko seme-alabak.

Laukitxoa: "Gakoa". Ondoko zerrendako gakoetarik bat agertaraziko da:

- T: lana.
- M: higikorren kapitala.
- I: higiezinen kapitala.
- A: enpresa, lanbide edo arte jarduerak, basozaintzako jarduerak izan ezik.
- F: basozaintzako jarduerak.

Laukitxoa: "Atxikipenak". Aitortu behar diren etekinen gaineko atxikipenen zenbatekoa jarriko da.

Laukitxoa: "Sarrera osoak". Etekin irregularrak diren sarrera osoen zenbatekoa jarriko da.

Laukitxoa: "Ken litezkeen gastuak". Aitortutako sarreraren izaeraren arabera kendu litezkeen gastuen zenbatekoa sartu beharko da.

Laukitxoa: "Etekin garbia". Sarrera osoen eta kendu litezkeen gastuen arteko kendera izango da. Etekin garbia negatiboa bada eta enpresa edota lanbide jardueretatik badator, haren zenbatekoa 253. laukitxora eroango da, eta ez dira kalkulatu behar izango etekin negatibo hori jarrita duen zutabeko gainerako lerroak.

Laukitxoa: "Sortarazpen urteen kp." Etekin irregularra lortzeko behar diren urteen kopurua jarri beharko da. Datu hori zein den jakiten ez bada, 5 (bost) jarriko da.

Laukitxoa: "1998an hartutako zenbatekoa". Sarreraren zenbateko osoa zatika, zenbait urtetan, hartzen denean, 1998an hartutako sarrera jarriko da. Zatika hartzen ez denean, ostera, sarrera osoen zenbateko osoa jarriko da.

Laukitxoa: "1998ko etekina". 1998. urteari egozten zaion etekin garbi osoaren zatiari dagokio. Hurrengo formula erabiliz lortzen da:

$$\text{Etekin osoa} \times 1998\text{an hartutako zenbatekoa}$$

Sarrera osoak

Laukitxoa: "Egotzitako etekin urtekotua". Jarraiko eragiketa egitetik ateratzen den emaitza da:

1998ko etekina

Sortarazpen urteen kp.

$$\boxed{244}. \text{ laukitxoa} = \boxed{209}. \text{ laukitxoa} + \boxed{220}. \text{ laukitxoa} + \boxed{231}. \text{ laukitxoa} + \boxed{242}. \text{ laukitxoa}$$

Laukitxoa: "Gainerako etekin irregularra". Ondoko eragiketaren emaitza izango da:

Gainerako etekin irregularra = 1998ko etekina - Egotzitako etekin urtekotua

$$\boxed{245}. \text{ laukitxoa} = \boxed{210}. \text{ laukitxoa} + \boxed{221}. \text{ laukitxoa} + \boxed{232}. \text{ laukitxoa} + \boxed{243}. \text{ laukitxoa}$$

"Etekin irregular negatiboen konpentsazioa". $\boxed{245}$. laukitxoko zenbatekoa positiboa bada, atal honetako ekitaldietako (1993, 1994, 1995, 1996 eta 1997ko) etekin irregular negatiboak konpentsatu ahal izango dira.

$$\boxed{251}. \text{ laukitxoa} = \boxed{246}. \text{ laukitxoa} + \boxed{247}. \text{ laukitxoa} + \boxed{248}. \text{ laukitxoa} + \boxed{249}. \text{ laukitxoa} + \boxed{250}. \text{ laukitxoa}$$

$\boxed{252}$. laukitxoa: "Gainerako etekin irregularra, konpentsazioa egin ondoren". Ondoko eragiketaren emaitza jarriko da:

$$\boxed{252}. \text{ laukitxoa} = \boxed{245}. \text{ laukitxoa} - \boxed{251}. \text{ laukitxoa}$$

ADIBIDEA:

Zergadun batek, ekitaldian zehar, haborokin gisa (zilarrezko urteurrena), enpresan lanean 25 urte egin baititu, 600.000 Pta. hartu ditu. Etekin urtekotu garbia eta gainerako etekina kalkulatzeko, hurrengo kalkuluok egin beharko dira:

Sarrera osoak = 600.000

Ken litezkeen gastuak = 600.000 x %5 = 30.000 (*)

Etekin osoa = 600.000 - 30.000 = 570.000

$$\text{Egotzitako etekin urtekotua} = \frac{570.000}{25} = 22.800$$

Gainerako etekin irregularra = 570.000 - 22.800 = 547.200

(*) Gastu legez, sarrera osoen %5 zenbatuko da, norberaren lanaren etekinak baitira.

KASU PRAKTIKOA

M.C.R. jaunak koniferoen 3 hektarea moztu eta saldu egin ditu; konifero horiek bere gurasoei jarautsi zizkien Durangoko udalerrian. Sortarazpen epealdia 20 urtekoa izan da. Bizkaiko Foru Aldundiko Baso Zerbitzuak egiaztatzen duenez, M.C.R. jaunak 2 ha landatu ditu atzera ere hazkunde motelesko hostozabalekin. Ordainketak zatika egin ditu 100.000 pezetan.

Ebazpena

F-1 modulua: Koniferoen baso ustiapena: $3 \times 918.725 = 2.756.175$

Txikipena basoa berritzeagatik: $2 \times 554.785 = 1.109.570$

Etekin garbi irregularra: $2.756.175 - 1.109.570 = 1.646.605$

Zuzendutako etekin garbia: $1.646.605 \times 0,85 = 1.399.614$

$$\text{Urtekotua} = \frac{1.399.614}{20} = 69.981$$

$$\text{Gainerako etekin irregularra} = 1.399.614 - 69.981 = 1.329.633$$

IFZ		Lehen deitura		Bigarren deitura		Izena		1998		
F		Etekin irregularrak edo urtebetetik gorako ziklokoak								
Hartzaillea (A, E, 1. S-A, 2. S-A)	200	A	211		222		233			
Gakoa	201		212		223		234			
Atxikipenak	202		213		224		235			
Sarrera osoak	203	1.399.614	214		225		236			
Ken litezkeen gastuak	204		215		226		237			
Etekin garbia * Negatiboa eta jardueretako bada, ikus jarraituak	205	1.399.614	216		227		238			
Sortarazpen urteen kp	206	20	217		228		239			
1998an hartutako zenbatekoa	207		218		229		240			
1998ko etekina	208	1.399.614	219		230		241			
Egotzitako etekin urtekotua	209	69.081	220		231		242	244	69.981	
Gainerako etekin irregularra	210	1.329.633	221		232		243	245	1.329.633	
Etekin irregular negatiboaren konpentsazioa										
246	1993	247	1994		248	1995				
249	1996	250	1997		251	Gutlira				
Gainerako etekin irregularra, konpentsazioa egin ondoren		245	-	251					252	1.329.633
Ekitaldiako enpresa eta lanbide jardueretatik datorren etekin irregular negatiboa								253		

XI. KAPITULUA

ONDARE GEHIKUNTZA ETA URRIPENAK

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urriaren 15eko 3/1996 Foru Dekretu Arau-emaitzaren argitalpenak aldarazpen sakonak sartu ditu zergan, bereziki, ondare aldakuntzetan. Era berean, araubide iragankorra sortu du, subjektu pasiboak 1996–VI–9a baino lehen eskuratu dituen elementuen eskualdaketa ondo-riozko ondare aldakuntzetarako.

Oro har, ondare gehikuntza eta urripenak hauexek dira: subjektu pasiboaren ondarearen balioan gertatzen diren aldakuntzak, baldin eta ondarearen osaketan gertatzen diren aldakuntzetarik edozeinen ondorioz sortzen badira.

ZER DIREN

Atal hauetan, ondare elementu baten kostu bidezko zein dohaineko eskualdaketa- ren baten bidez, subjektu pasiboaren heriotzagatik izan ezik, ondare hari dirua, ondasunak edo eskubideak eranstearen bidez, betebeharrak ekonomikoen iraungipena- ren bidez, subjektu pasiboak jasandako galeren bidez eta errentariak edo lagapen- hartzaileak azpierreantamenduan edo intsuldaketan duen partaidetzaren bidez, edo ondasun zein ondare-eskubideen trukaketaren bidez agertzen diren ondare gehi- kuntza eta urripenak aipatzen dira.

Hala ere:

1. Kostu bidezko eskualdaketen ondorioz ondarean agertzen diren gehikuntza gar- biak ez daude zergari loturik, baldin eta beraien zenbateko osoa egutegiko ur- tean zehar 500.000 pezetakoa baino handiagoa ez bada. Hala ere, zenbateko oso hori, erabat edo zati baten, sortarazi badute inbertsio kolektiboko erakunde- en sozietate-kapitala edo ondarea ordezkatzeko duten akzio edo partaidetzen es- kualdaketek, orduan eskualdaketa horien ondorioz ageri diren ondare gehi- kuntza garbiak ez dira zergaren menpean egongo.
2. Ondare gehikuntzak ez daude zergaren menpean, jatorriak honako hauek badi- ra:
 - Estatuko Loteria eta Apustuaren Erakunde Nazionalaren loteria eta jokoetako sariak, eta Itsuen Erakunde Nazionalaren zozketetakoak.
 - Gurutze Gorriaren zozketetako sariak.
 - Literatura, arte eta zientzia alorreko ospe handiko sariak.
 - Zenbait kalte-ordain.
 - Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren menpeko egintzek eratorritako ondare gehikuntzak.

- 65 urtekoak baino nagusiagoak diren pertsonen euren ohiko etxebizitza bizi arteko errenta baten truk eskualdatzea.
 - Zerga zorrak ordaintzea, zelan eta ondasunak emanez.
3. Zerga honi loturiko beste kontzeptu batzuetatik datozen aldaketak ez dira ondare gehikuntza edo urripentzat hartuko.
4. Ez dira ondare urripentzat hartuko, frogatu gabe daudenak, ez kontsumoagatik direnak, ez emari edo eskuzabaltasunetatik eta jokoko galeretatik datozenak ere.
5. Ez da ondare gehikuntza edo urripenik egongo:
- Gauza erkidea zatitzen denetan.
 - Irabazpidezko sozietatea desagiten denean, edo ezkontideen partaidetza araubidea iraungitzen denean.
 - Ondasun erkidego edo komunitatea desagiten denean edo erkideak banatzen direnetan.
 - Kapitala gutxitzen denetan. Txikipenaren helburua bazkideei euren ekarpenak itzultzea bada, zenbateko horiek eskuraketa balioa urrituko dute, harik eta deuseztatu arte. Soberakinak badaude (eskuraketa balioa baino gehiago jasotzen denean), horiek higikorren kapitalaren etekintzat hartuko dira.

ERREGELA OROKORRAK, ONDARE GEHIKUNTZA ETA URRIPENAK KALKULATZEKO

Ondarearen gehikuntza eta urripenak zenbatekoak diren kalkulatzeko, honetara jotkatuko da:

- a) Kostu bidezko zein dohaineko eskualdaketak. Ondare-osagaien eskualdaketa balioaren eta eskuraketa balioaren arteko kendura:

Ondare gehikuntza = besterentze balioa – eskuraketa balioa

- b) Gainerako kasuetan. Ondare-osagaien eskuraketa balioa edo, bestela, beraien zati proportzionalena.

Zelan zehaztuko diren eskuraketa balioa eta eskualdaketa edo besterentze balioa:

1. Eskuraketa balioa:

- a) Eskuraketa balioa, baldin eta eskuraketa kostu bidez egin bada. Osagaiak koefiziente batez eguneratuko dira; izan ere, koefiziente hori osagaien urtearen araberakoa izango da. Ondoko eragiketaren emaitza izango da:

- eskuraketaren benetako balioa: eskuraketa urtearen arabera egunerapen koefizientea ezarriko da.
- +
- egindako inbertsio eta hobekuntzen kostua: horiek egin ziren urtearen arabera egunerapen koefizientea ezarriko da.
- +
- eskuraketa egineran sortu ziren gastu eta zergak; hortik kanpo, korrituak daude: haiek sortu ziren urtearen arabera koefizientea ezarriko da.
-
- arau bidez egindako amortizazioen zenbatekoa, betiere gutxieneko amortizazioa zenbatuaz: egunerapen koefizientea amortizazioetarik bakoitzaren urtearen arabera egingo da.

b) Eskuraketa balioa, baldin eta eskuraketa dohainik egin bada. Osagaiak koefiziente batez eguneratuko dira; izan ere, koefiziente hori osagaien urtearen arabera izango da. Ondoko eragiketaren emaitza izango da:

- Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko arauak ezartzearen ondorioz dagokion balioa: eskuraketa urtearen arabera egunerapen koefizientea ezarriko da.
- +
- egindako inbertsio eta hobekuntzen kostua: horiek egin ziren urtearen arabera egunerapen koefizientea ezarriko da.
- +
- eskuraketa egineran sortu ziren gastu eta zergak; hortik kanpo, korrituak daude: haiek sortu ziren urtearen arabera koefizientea ezarriko da.
-
- arau bidez egindako amortizazioen zenbatekoa, betiere gutxieneko amortizazioa zenbatuaz: egunerapen koefizientea amortizazioetarik bakoitzaren urtearen arabera egingo da.

1998an zehar egindako eskualdaketen ondorioz ondarean sortutako aldakuntzen eskuraketa balioaren egunerapen koefizienteak:

Ondare-osagaia eskuratu zen urtea	Egunerapen koefizientea
1994 eta aurrekoak	1,020
1994ko abenduaren 31 eta 1995	1,083
1996	1,042
1997	1,020
1998	1,000

Eskualdatu den osagaiak, gutxienez, urtebetean iraun ez badu subjektu pasiboaren ondarean, orduan koefizientea 1,000ekoa izango da.

2. Eskualdaketa edo besterentze balioa:

a) Kostu bidezko eskualdaketa. Ondoko balioen arteko kenketa eginaz zehaztuko da:

- besterentzearen benetako zenbatekoa -
- eskualdaketari datxezkion gastu eta zergak, baldin eta eskualdatzaileak ordaindu baditu, salbu eta Hiri-lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergako kuotaren %75.

b) Dohaineko eskualdaketa. Ondoko balioen arteko kenketa eginaz zehaztuko da:

- Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko arauak ezartzearen ondoriozko emaitza -
- eskualdaketari datxezkion gastu eta zergak, baldin eta eskualdatzaileak ordaindu baditu, salbu eta Hiri-lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergako kuotaren %75.

ADIBIDEA:

R.R. jaunak 1998–VII–4an higiezin bat eskualdatu zuen, 35.000.000 pezetako zenbatekoan; izan ere, higiezin hori errentan emanda egon da, eskuratu zen unetik eta saldu den arte; eskualdaketa egineran, 500.000 pezetako gastuak sortu dira, RR. jaunaren pentzuan ordaindu direnak. Higiezina 1995–IX–10ean eskuratu zen, 25.000.000 pezetako zenbatekoan; 1995–IX–17an, 300.000 pezetako gastuak ordaindu ziren, eskuraketari zegozkionak, RR jaunaren pentzuan; 1996–IV–6an, higiezinan hobekuntzak egin ziren; hobekuntzak 3.000.000 pezetakoak izan ziren.

Eskualdatu den ondare-osagaiaren eskuraketa balioa eta eskualdaketa zehaztu behar dira.

Ebazpena:

1. Eskuraketa balioa honelaxe zehaztuko da:

Zenbatekoa	Urtea	Koefizientea	Eguneraturiko zenbatekoa
25.000.000	1995	1,083	$25.000.000 \times 1,083 = 27.075.000$
300.000	1995	1,083	$300.000 \times 1,083 = 324.900$
3.000.000	1996	1,042	$3.000.000 \times 1,042 = 3.126.000$
Batura osoa = $27.075.000 + 324.900 + 3.126.000 = 30.525.900$			
Amortizazioak (1)			
92.055 (2)	1995	1,083	$92.055 \times 1,083 = 99.696$
300.000	1996	1,042	$300.000 \times 1,042 = 312.600$
300.000	1997	1,020	$300.000 \times 1,020 = 306.000$
151.233 (3)	1998	1,000	151.233
Amortizazioak guztira = $99.696 + 312.600 + 306.000 + 151.233 = 869.529$			
Eguneraturiko eskuraketa balioa = $30.525.900 - 869.529 = 29.656.371$			

(1) Amortizazioak kalkulatzeko, %1,5 ezarri zaio higiezinaren balioari, balio horretatik lurzorua-ren balioa kenduta ($25.000.000 - 5.000.000 = 20.000.000$)

(2) 112 egunez izan zen subjektu pasiboaren ondarearen zatietarik bat.

(3) 184 egunez izan zen subjektu pasiboaren ondarearen zatietarik bat.

2. Besterentze balioa honelaxe zehaztuko da:

$$35.000.000 - 500.000 = 34.500.000$$

Ondarearen gehikuntza eta urripenak honelaxe lortuko dira:

A. Araubide orokorra

Subjektu pasiboak 1996–VI–9tik atzera eskuratu dituen osagaien ondorioz ondarean sortu diren aldakuntzei ezarriko zaie. Oro har, ondarearen gehikuntza edo urripena hauxe izango da: eskualdaketa balioaren eta eskuraketa balioaren arteko kendera, lehen zehaztu diren bezalaxe:

Ondare gehikuntza = besterentze balioa - eskuraketa balioa x egunerapen koefizientea

Ondare urripena = besterentze balioa – eskuraketa balioa x egunerapen koefizientea

B. Araubide iragankorra

Subjektu pasiboak 1996–VI–9a baino lehen eskuratu dituen osagaien ondorioz ondarean sortu diren aldakuntzei ezarriko zaie.

a) Eskualdatutako ondare-osagaia eskuratu zen egunetik 1996–XII–31 arte igarotako denbora urte bikoa edo hori baino laburragoa bada, ondarearen gehikuntza edo urripena honelaxe zehaztuko da:

Ondare gehikuntza = besterentze balioa – eskuraketa balioa x egunerapen koefizientea

Ondare urripena = besterentze balioa – eskuraketa balioa x egunerapen koefizientea

b) Eskualdatutako ondare-osagaia eskuratu zen egunetik 1996–XII–31 arte igarotako denbora urte bikoa baino luzeagoa bada:

- Ondarean lortutako gehikuntza ondoko zerrendako portzentajeekin txikituko da, kasuan-kasuan, eskuratu zen egunetik 1996–XII–31 arte igarotako denboran, bitik gora doan urte bakoitzeko:

- Oro har: %14,28:

Ondare gehikuntza = (besterentze balioa – eskuraketa balioa x egunerapen koefizientea) – $(t - 2) \times \%14,28 \times$ (besterentze balioa – eskuraketa balioa x egunerapen koefizientea)

Ez dago lotuta, baldin $t > 8$ urte

- Ondasun higiezin eta beraien gaineko ondasunen eskualdaketa: %11,11:

Ondare gehikuntza = (besterentze balioa – eskuraketa balioa x egunerapen koefizientea) – $(t - 2) \times \%11,11 \times$ (besterentze balioa – eskuraketa balioa x egunerapen koefizientea)

Ez dago lotuta, baldin $t > 10$ urte

- Bigarren mailako merkatuetarik baten, negoziazioan onartuta dauden akzioen eskualdaketa: %25:

Ondare gehikuntza = (besterentze balioa – eskuraketa balioa x egunerapen koefizientea) – $(t - 2) \times \%25 \times$ (besterentze balioa – eskuraketa balioa x egunerapen koefizientea)

Ez dago lotuta, baldin $t > 5$ urte

t: eskualdatutako ondare-osagaia erosi zenetik 1996–XII–31 arte iragandako urteen kopurua, gehiagoz biribildua.

- Ondarearen urripenak zehazteko, besterentze balioaren eta eskuraketa balioaren arteko kenketa egingo da, aurrean emandako zehaztapenaren arabera:

Ondare urripena = besterentze balioa – eskuraketa balioa x egunerapen koefizientea

Ondarean urripenen bat lortu bada, zergari lotuta ez egoteko kasuek ez dute indarrik izango; egin-eginean ere, kasu horiek ezarrita daude, eskualdatutako ondare-osagaia eskuratu zenetik 1996–XII–31 arte igarotako urteen kopuruaren arabera.

Ondarearen gehikuntza eta urripenen motak. Zelan ezarriko diren araubide orokorra eta iragankorra kasuen arabera:

<i>Ondarearen gehikuntza eta urripen erregularrak</i> Eskuraketa egunetik eta eskualdaketa egunerako denbora urtebetekoa edo hori baino laburragoa da		
Ondare-osagaien mota guztiak hartzen ditu barnean		
<i>Ondarearen gehikuntza eta urripen irregularrak</i> Eskuraketa egunetik eta eskualdaketa egunerako denbora urtebetekoa baino luzeagoa da		
Eskuraketa egunetik eskualdaketa egunerako denbora urte bikoia edo laburragoa da	Eskuraketa egunetik eskualdaketa egunerako denbora urte bikoia baino luzeagoa da	
Ondare-osagaien mota guztiak hartzen ditu barnean	- Inbertsio kolektibo erakundeen partaidetzak - Finantza-aktiboak	Ondarearen gaineko osagaiak

A. Ondarearen gehikuntza eta urripen erregularrak.

Ondare-osagaien eskualdaketen ondorioz agertzen direnak dira, baldin eta horiek eskuratu zirenetik eskualdatu diren arte urte bat baino gehiago igaro ez bada; bai eta eskuratu diren baloreetatiko harpidetza eskubideen eskualdaketa ondo agertzen direnak dira, baldin eta horiek eskuratu zirenetik eskualdatu diren arte urte bat baino gehiago igaro ez bada.

1998. urterako, ondarean lortu diren gehikuntza eta urripen erregularrek jatorri bi izango dituzte: alde batetik, ondare-osagaien eskualdaketa; eta, bestetik, eskuratu-tako baloreen harpidetza eskubideen eskualdaketa. Bestalde, horiek guztiek ondo ezaugarriok bete behar dituzte:

- 1997-I-1etik 1998-XII-31 arte eskuratutakoak izatea.
- Eskuratu zirenetik eskualdatu diren arteko denbora urtebeterainokoa izatea.

Kasu honetan araubide orokorra bakar-bakarrik ezarriko da:

1997an eskuratutako ondare-osagaiak	
Eskuraketa data eta eskualdaketa dataren artean urte bat doi-doi igaro bada	Eskuraketa data eta eskualdaketa dataren artean urte bat baino gutxiago igaro bada
Ondare gehikuntza = besterentze balioa - eskuraketa balioa $\times 1,020 > 0$	Ondare gehikuntza = besterentze balioa - eskuraketa balioa > 0
Ondare urripena = Besterentze balioa - eskuraketa balioa $\times 1,020 < 0$	Ondare urripena = besterentze balioa - eskuraketa balioa < 0
1998an eskuratutako ondare-osagaiak	
Ondare gehikuntza = besterentze balioa - eskuraketa balioa > 0 Ondare urripena = besterentze balioa - eskuraketa balioa < 0	

B. Ondarearen gehikuntza eta urripen irregularrak.

Ondare-osagaien eskualdaketen zioz agertzen direnak dira, baldin eta horiek eskuratu zirenetik eskualdatu diren arte urte bat baino gehiago igaro ez bada; bai eta eskuratu ziren baloreetatiko harpidetza eskubideen eskualdaketa zioz agertzen direnak dira, baldin eta horiek eskuratu zirenetik eskualdatu diren arte urte bat baino gehiago igaro bada.

Kasuan-kasuan ezarri beharreko kargaren arabera, ondoko sailkapena egingo da:

<p>Urte bian edo denbora laburragoan ondarean sortutako gehikuntza eta urripen irregularrak. Ezaugarriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Oro har, eskuratu zirenetik besterendu diren arteko denboraldia urte bat baino gehiago izan baina urte bitik gorakoa ez izatea. - Bereziki, 1998. urteari dagokionez, eskualdatutako ondare-osagaiak 1996–I–1etik 1997–XII–30era eskuratutakoak izatea, egun biok barru direlarik. 	
<p>Urte bi baino denbora luzeagoan ondarean sortutako gehikuntza eta urripen irregularrak. Ezaugarriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Oro har, eskuraketa dataren eta eskualdaketa edo itzulketa dataren arteko denboraldia urte biko baino luzeagoa izatea. - Bereziki, 1998. urteari dagokionez, eskualdatu edo itzultitako ondare-osagaiak 1996–XII–31 baino lehenago eskuratu ahal izan dira (mugaeguna: 1996–XII–30). 	
Inbertsio kolektiboko erakundeak eta finantza-aktiboak	Bestelako ondare-osagaiak

BAT. Urte bian edo denbora laburragoan ondarean sortutako gehikuntza eta urripenak

<p>A. Araubide orokorra. 1996–VI–9tik 1997–XII–30era eskuratutako ondare-osagaiak ezarriko zaie.</p>	
<p>1996–VI–9tik 1996–XII–31ra eskuratutako ondare-osagaiak</p>	<p>1997–I–1etik 1997–XII–30era eskuratutako ondare-osagaiak</p>
<p>Ondare gehikuntza = besterentze balioa - eskuraketa balioa $\times 1,042 > 0$</p> <p>Ondare urripena = besterentze balioa - eskuraketa balioa $\times 1,042 < 0$</p>	<p>Ondare gehikuntza = besterentze balioa - eskuraketa balioa $\times 1,020 > 0$</p> <p>Ondare urripena = besterentze balioa - eskuraketa balioa $\times 1,020 < 0$</p>
<p>B. Araubide iragankorra. 1996–I–1etik 1996–VI–8ra eskuratutako ondare-osagaiak ezarriko zaie.</p> <p>Araubide hau ezartzen bada, lortzen diren ondare gehikuntzak portzentaje jakin baten txikituko dira; eta portzentaje hori aldatuko da, zelan eta eskualdatu den ondare-osagaiaren izaeraren arabera, eta eskuraketa dataren eta 1996–XII–31ren artean igarotako denboratik bi urtetik pasatzen den urte bakoitzeko. Horren ondorioz, kasu hau denaz bezanbatean, kasu honi ez zaio ezarriko hemen zehaztu den araubidea.</p>	
<p>Ondare gehikuntza = besterentze balioa - eskuraketa balioa $\times 1,042 > 0$ Ondare urripena = besterentze balioa - eskuraketa balioa $\times 1,042 < 0$</p>	

Bl. Urte bi baino denbora luzeagoan ondarean sortutako gehikuntza eta urripenak

1. Inbertsio kolektiboko erakundeak eta finantza-aktiboak	
A. Araubide orokorra. 1996–VI–9tik 1996–XII–30era eskuratu diren ondare-osagaiei ezarriko zaie.	
Ondare gehikuntza = (Besteentze balioa - Eskuraketa balioa x 1,042) > 0 Ondare urripena = (Besteentze balioa - Eskuraketa balioa x 1,042) < 0	
B. Araubide iragankorra. 1996–VI–9a baino lehen eskuratutako ondare-osagaiei ezarriko zaie.	
Eskuraketa urtea	Ondare gehikuntza (Besteentze balioa - Eskuraketa balioa x Egunerapen koef.) > 0
1994 eta aurrekoak	(Besteentze balioa - Eskuraketa balioa x 1,020) - (t - 2) x x %14,28 x (Besteentze balioa - Eskuraketa balioa x 1,020) Ez dago zergapean, baldin eta t > 8 urte
1994–XII–31 eta 1995	(Besteentze balioa - Eskuraketa balioa x 1,083) - (t - 2) x x %14,28 x (Besteentze balioa - Eskuraketa balioa x 1,083) Kasu honetan, t < 2 ⇨ (Besteentze balioa - Eskuraketa balioa x 1,083)
1996	(Besteentze balioa - Eskuraketa balioa x 1,042) - (t - 2) x x %14,28 x (Besteentze balioa - Eskuraketa balioa x 1,042) Kasu honetan, t < 2 ⇨ (Besteentze balioa - Eskuraketa balioa x 1,042)
Eskuraketa urtea	Ondare urripena (Besteentze balioa - Eskuraketa balioa x Egunerapen koef.) < 0
1994 eta aurrekoak	(Besteentze balioa - Eskuraketa balioa x 1,020) < 0
1994–XII–31 eta 1995	(Besteentze balioa - Eskuraketa balioa x 1,083) < 0
1996	(Besteentze balioa - Eskuraketa balioa x 1,042) < 0
2. Bestelako ondare-osagaiak	
A. Araubide orokorra. 1996–VI–9tik 1996–XII–30era eskuratutako ondare-osagaiei ezarriko zaie.	
Ondare gehikuntza= (Besteentze balioa - Eskuraketa balioa x 1,042) > 0 Ondare urripena= (Besteentze balioa - Eskuraketa balioa x 1,042) < 0	
B. Araubide iragankorra. 1996–VI–9a baino lehen eskuratutako ondare-osagaiei ezarriko zaie.	

Eskuraketa urtea	Ondare gehikuntza (Besterentze balioa - Eskuraketa balioa x Egunerapen koef.) > 0
1994 eta aurrekoak	Oro har: (Besterentze balioa - Eskuraketa balioa x 1,020) - (t - 2) x x %14,28 x (Besterentze balioa - Eskuraketa balioa x 1,020) Ez dago zergapean, baldin eta t > 8 urte
	Bigarren mailako merkatu ofizialetarik baten, negoziazioan onarturiko akzioak: (Besterentze balioa - Eskuraketa balioa x 1,020) - (t - 2) x x %25 x (Besterentze balioa - Eskuraketa balioa x 1,020) Ez dago zergapean, baldin eta t > 5 urte
	Higiezinak eta beraien gaineko eskubideak: (Besterentze balioa - Eskuraketa balioa x 1,020) - (t - 2) x x %11,11 x (Besterentze balioa - Eskuraketa balioa x 1,020) Ez dago zergapean, baldin eta > 10 urte
1994-XII-12 eta 1995	(Besterentze balioa - Eskuraketa balioa x Egunerapen koef.) - (t-2) x %n x (Besterentze balioa - Eskuraketa balioa x Egunerapen koef.). Eta %n txikiaren portzentajea da, alegia, eskualdatutako ondare-osagaiaren izaeraren arabera ezarri behar dena. Kasu honetan, t < =2. Horrenbestez, kasu guztietarako: (Besterentze balioa - Eskuraketa balioa x 1,083)
1996	(Besterentze balioa - Eskuraketa balioa x Egunerapen koef.) - (t-2) x %n x (Besterentze balioa - Eskuraketa balioa x Egunerapen koef.). Eta %n txikiaren portzentajea da, alegia, eskualdatutako ondare-osagaiaren izaeraren arabera ezarri behar dena. Kasu honetan, t < 2. Horrenbestez, kasu guztietarako: (Besterentze balioa - Eskuraketa balioa x 1,042)
Eskuraketa urtea	Ondare urripena (Besterentze balioa - Eskuraketa balioa x Egunerapen koef.) < 0
1994 eta aurrekoak	(Besterentze balioa - Eskuraketa balioa x 1,020) < 0
1994-XII-31 eta 1995	(Besterentze balioa - Eskuraketa balioa x 1,083) < 0
1996	(Besterentze balioa - Eskuraketa balioa x 1,042) < 0

BESTERENTZE ETA ESKURAKETAKO BALIOAK ZEHAZTEKO ERREGELA BEREZIAK

1^a Baloreen Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legean baloreen bigarren mailako merkatu ofizialak ezarri ziren; beste alde batetik, apirilaren 4ko 710/1986 Errege Dekretuan baloreen bigarren mailako merkatuak ezarri ziren; bada, merkatu horietarik guztietarik baten negoziazioan onartuta dauden baloreak kostu bidez eskualdatzen direnean, eta balore horiek ordezkatzan badute sozietate edo erakundeen euren fondoetako partaidetza, orduan ondare gehikuntza edo urripena hauxe izango da: eskualdaketa balioaren eta eskuraketa balioaren arteko kendura; izan ere, eskualdaketa balioa izango da, eskualdaketa egiten den unean merkatu ofizialean dagoen kotizazioa edo, bestela, itundutako prezioa, baldin eta kotizaziokoa baino handiagoa bada.

Eskuraketa balioa zehazteko, besterendu diren harpidetza eskubideen zenbatekoa kenduko da. Hala ere, harpidetza eskubideen eskualdaketan lortutako zenbatekoa handiagoa bada eskubide horiek sortarazi dituzten baloreen eskuraketa balioa baino, orduan diferentzia ondare gehikuntza izango da eskualdatzailearentzat, eskualdaketa egin den zergaldian.

Zati baten askatuta dauden akzioak: beraien eskuraketa balioa subjektu pasiboak benetan ordaindutako zenbatekoa izango da.

Erabat askatutako akzioak: beraien eskuraketa balioa eta beraien sorburu direnena lortuko da, zelan eta kostu osoa titulu zahar zein askatuen kopuruaren artean zatitzetik:

Zaharren eskuraketa kostua + Berrien eskuraketa kostua

Titulu zaharren kp. + Titulu berrien kp.

Eskualdaketa egiten denean, baldin eta balore homogeenok badaude, orduan subjektu pasiboak eskualdaturikoak lehenengoz eskuratu zituenak direla ulertuko da.

2^a Aurreko idatz-zatian adierazitako merkatuetan negoziazioan onartuta ez dauden baloreak kostu bidez eskualdatzen direnean, sozietate edo erakundeen beraien fondoetako partaidetza badira, eskualdaketa baliotzat, benetan ordaindutakoa hartuko da, baldin eta merkatukoa dela frogatzen bada, edo bestela, hurrengo bien arteko handiena:

- Onetsitako azken balantzearen emaitza teorikoa.
- Zergaren sortzapen data baino lehenago, sozietatearen aurreko hiru ekitaldi itxietako mozkinen batez bestekoa %12,5eko tasan kapitalizatetik ateratzen dena.

Balore hauetatik datozen harpidetza eskubideak eskualdatzeagatik lortutako zenbatekoa ondare gehikuntza izango da eskualdatzailearentzat, eskualdaketa hori gertatzen den zergaldian.

Zati baten askatuta dauden akzioak: beraien eskuraketa balioa subjektu pasiboak benetan ordaindutako zenbatekoa izango da.

Erabat askatutako akzioak: beraien eskuraketa balioa eta beraien sorburu direnena lortuko da, zelan eta kostu osoa titulu zahar zein askatuen kopuruaren artean zatitzetik:

Zaharren eskuraketa kostua + Berrien eskuraketa kostua

Titulu zaharren kp. + Titulu berrien kp.

Eskualdaketa egiten denean, baldin eta balore homogeenok badaude, orduan subjektu pasiboak eskualdaturikoak lehenengoz eskuratu zituenak direla ulertuko da.

ADIBIDEA

1. J.P.D. andrea sozietate baten 2.000 akzioren titularra da; sozietateak ez du kotizaziorik. Tituluak 2.000.000 pezetako zenbatekoan eskuratu ziren 1993-I-2an. Sozietateak 1.200.000.000 pezetako kapitala du, 1.000 bana pezetako 1.200.000 akziotan zatiturik. Sozietateak kapitala zabaldu du, eta zabalkuntza horretara ez da J.P.D. azaldu; gainera, harpidetzarako zituen 2.000 eskubideak 200na pezetako zenbatekoan saldu zituen 1998-II-4an. 1998-V-15ean, 2.000 akzioak saldu zituen 3.000.000 pezetan.

Sozietatearen mozkinak itxikatu azken hiru ekitaldietan 210.000.000 pezetakoak, 180.000.000 pezetakoak eta 240.000.000 pezetakoak izan dira; akzioen balio teorikoa 1.250 pezetakoa izan da.

Ebazpena

Akzioen salmenta:

Besterente balioa = 3.000.000; eguneratutako eskuraketa balioa = $2.000.000 \times 1,020 = 2.040.000$

Δ ondarearena = $3.000.000 - 2.040.000 = 960.000$

Eskuraketa datatik 1996-XII-31 arte igarotako urteen kopurua = 4

Δ ondare txikitu eta irregulararena = $960.000 - 2 \times \%14,28 \times 960.000 = 685.824$

Harpidetza eskubideen salmenta:

Δ ondarearena = 400.000

1993-I-2tik 1996-XII-31 arte igarotako urteen kopurua = 4

Δ ondare txikitu eta irregulararena = $400.000 - 2 \times \%14,28 \times 400.000 = 285.760$

2. Aurreko 1. adibideko datu edo jakingarri berdinak daude oraingoan ere, baina akzioen besterente balioa 1.100 pezetakoa da akzio bakoitzeko; halaz guztiz, Administrazioak ez du balio hori onartu salmentaren zenbateko legez. Orduan, horrelako kasuan, akzioen salmentari dago-kion ondare aldakuntzaren kalkulia bakarrik ebartziko da, ezik harpidetza eskubideen salmentaren ebazpena aurreko kasuan bezalaxe egiten da.

Ebazpena

Azken hiru urteetako mozkinen batez bestekoaren kapitaliazioa:

$$\frac{210.000.000 + 180.000.000 + 240.000.000}{3} = 210.000.000$$
$$\frac{210.000.000}{12,5} \times 100 = 1.680.000.000$$
$$\frac{1.680.000.000}{1.200.000} = 1.400 \text{ pezeta, akzio bakoitzeko}$$

Balio teorikoa = 1.250 pezeta, akzio bakoitzeko.

Hortaz, besterente balio gisa 1.400 pezetakoa hartuko da.

Besterente balioa = $2.000 \times 1.400 = 2.800.000$

Δ ondarearena = $2.800.000 - 2.040.000 = 760.000$

Eskuraketa datatik 1996-XII-31 arte igarotako urteen kopurua = 4

Δ ondare txikitu eta irregulararena = $760.000 - 2 \times \%14,28 \times 760.000 = 542.944$

3ª Sozietateei eginiko ez-diruzko ekarpenak direnean, gehikuntza edo urripena honela zehaztuko da: eskuraketa balioa ken ondorengo balioetarik handiena egingo da, eta kendura hori izango da:

- Ekarpengatik jasotako akzio edota partaidetzen balio izendatua.
- Merkataritza Erregistroan inskribatzeko, sozietatearen kapitala eratu edo gehitzeko eskriturei eranskin legez itsatsitako txostenetatik ateratzen den balioa.
- Jasotako tituluek, ekarpena egiten den egunean edo bezperan, zuten kotizazio balioa.
- Ekarrirako ondasunaren balorazioa, Ondarearen gaineko Zergari buruzko arauetan ezarritako irizpideen arabera.

4ª Bazkideak banatu eta sozietateak desegiten direnean, ondoko kenketa egingo da: sozietatearen likidazioaren kuotaren balioa edo banaketaren ondorioz jasotzen diren ondasunena ken bakoitzaren kapitaleko titulu edo partaidetzaren eskuraketa balioa; horren emaitza izango da ondare gehikuntza edo urripena.

Sozietateak zatitu, bat egin edo irensten direnean, ondoko kenketa egingo da: bazkidearen partaidetza ordezkatzan duten titulu, eskubide edo baloreen eskuraketa balioa ken jasotako tituluen, eskudiruaren edo eskubideen balioa; horren emaitza izango da gehikuntza edo urripena.

Eragiketa horiek bat-egiteen zerga-araubide bereziari heldu badiote, ez da gehikuntzarik ez urripenik zenbatuko.

5ª Ageriko etekinduntzat hartzen diren baloreak eskualdatu, amortizatu, trukatu edo bihurtzen direnean, balore horiek norberaren kapitalez gainontzekoei egindako lagapena ordezkatzan badute, ondoko kenketa egingo da: beraien eskualdaketa, amortizazio, truke edo bihurketa balioa ken beraien eskuraketa balioa; horren emaitza izango da gehikuntza edo urripena.

Truke edo bihurketako balio legez, jasotzen diren balioei dagokiena hartuko da.

6ª Intsuldaketa bat egiten denean, ondare gehikuntza lagatzaileari zenbatuko zaio, intsuldaketa dagokion zenbatekoan.

Intsuldaketa eskubidea prezio bidez eskuratu bada, prezioa bera izango da eskuraketa balioa.

7ª Galera edo ezbeharrengatik jasotako kalte-ordainak edo kapital aseguruak direnean, ondoko kenketa egingo da: hartutako kopurua ken kalteari dagokion eskuraketa balioaren zati proportzionala; horren emaitza izango da gehikuntza edo urripena.

8ª Kapital geroratu duten bizitza edo elbarritasuneko aseguruak direnean, gehikuntza edo urripena, hartzen den kopuruaren eta ordaindutako primen zenbatekoaren arteko kendura izango da. Kasu honetan, iraunaldizat, prima bakoitza ordaintzen den egunetik prestazio egunera bitarteko urteen kopurua hartuko da, gehiagoz biribilduz. Horretarako, erakunde aseguratzaileak egiten diren ordain-

ketetarik bakoitzari dagokion zatia desglosatuko du, prestazio unean ordaintzen dituen kopuruen artetik.

Hala ere, urteko zenbaketaren bitartezko prima iraunkorreko edo hazkorreko primadun aseguru kontratuak direnean, kontratuaren iraunaldi osoan zehar, orduan 100eko 5 progresio geometrikoan gainditu gabe, iraunaldi gisa, lehenengo prima ordaintzen den egunaren eta prestazioaren sortzapen egunaren bitarteko urteen kopurua 1,4z zatituz ateratzen den zatidura hartu ahal izango da, gehiagoz biribilduz.

9^a Ondasun edo eskubideak trukutzen direnean, ondoko kenketa egingo da: lagatzen den ondasun edo eskubidearen balioa ken haren truk jasotzen den ondasun edo eskubidearen merkatu balioa; horren emaitza izango da gehikuntza edo urripena.

10^a Bizi arteko edo aldi baterako errentak azkentzen direnean, ondare gehikuntza edo urripena, haiek ordaindu behar dituenari zenbatuko zaio, hartutako kapitalaren eskuraketa balioaren eta benetan ordaindutako errenten baturaren arteko kendura edo diferentzian.

11^a Sozietate gardenen kapitaleko akzio eta beste partaidetzak eskualdatzen direnean, gehikuntza edo urripena, eskuraketa eta titulartasuneko balioaren eta haien eskualdaketa balioaren arteko kendura izango da. Horretarako eskuraketa eta titulartasuneko balioaren osagaiak honako hauek izango dira:

1go.) Ondasuna erosteko ordaindutako prezio edo kopurua, edo Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko arauak ezarri aterako litzatekeen balioa.

2gn.) Sozietatearen mozkinen zenbatekoa, baldin eta horiek banatu ez badira eta bazkideei egotzi bazaizkie euren akzio edo partaidetzen etekin legez, eskuraketa eta besterentzearen arteko denboraldian.

Ondasunen ukantza soileko sozietateak direnean, zenbatu behar den eskualdaketa balioa, gutxienez, onetsitako azken banantzetik ateratzen den teorikoa izango da, higiezin kontabilitateko balio garbiaren ordean Ondarearen gaineko Zergarako izango luketen balioa jarri ondoren.

Eskualdaketa egiten denean, baldin eta balore homogeenok badaude, orduan subjektu pasiboak eskualdaturikoak lehenengoz eskuratu zituenak direla ulertuko da:

Oharra: ondare elementu batzuk 1979ko urtarrilaren 1a baino lehen eskuratu badira, eta beraiek eskualdatzearen ondorioz ondarean gehikuntza edo urripenak ageri badira, edo data hori baino lehenago eskuraturiko baloreen harpidetza eskubideak eskualdatzearen ondorioz gehikuntza edo urripenak gertatzen badira, orduan subjektu pasiboak aukeratu ahal izango du eskuraketa balio legez 1978ko abenduaren 31ko merkatuko balioa hartzeko, baldin eta prezio hori handiagoa bada eskuraketarena baino. Orduan, eskuraketa data legez, 1979ko urtarrilaren 1a hartuko da.

BAKOITZARI DAGOZKION ONDARE GEHIKUNTZA ETA URRIPENAK

Oro har: horiek eratorzen dituen ondasun edo eskubidearen titular juridikoa.

Frogatu gabeko ondare gehikuntzak: horiek agertzen dituen ondasunaren titular juridikoa.

Jokoko irabaziak eta antzekoak: horiek kobratzeko eskubidea duena, edo bere bu-
ruz haiek irabazi dituena.

ZELAN BETE BEHAR DEN PFEZ'1998 INPRIMAKIA

G Ondare gehikuntza eta urripen erregularrak

"Hartzailea"ren laukitxoan, A, E, 1. S-A, 2. S-A... gakoetarik bat jarriko da, ondare gehikuntza zein urripenaren titulartasuna aitortzaileari, ezkontideari edo famili unitateko seme-alabetarik bati dagokion arabera.

"Gakoa"ren laukitxoan, ondokoak agertaraziko dira:

- I: higiezina eskualdatu denean.
- A: negoziazioan onartuta dauden akzioak eskualdatu direnean.
- G: ondarearen beste edozein osagai eskualdatu denean.

Laukitxo: "*Besterentze balioa (a)*". Kapitulu honetan aipatutako arauak ezartzetik ateratzen dena izango da.

Laukitxo: "*Eskuraketa balioa (b)*". Aurreko idatz-zatietan ezarritako berezitasunak ezartzetik ateratzen den zenbatekoa izango da (eskuraketa balio eguneratua).

Laukitxo: "*Gehikuntza edo urripena (c) = (a) - (b)*". Gako hauetan haxe jarriko da: lehen zehaztu diren besterentze balioaren eta eskuraketa balioaren zenbatekoen arteko kendura.

Laukitxo: "*Berrinbertsioa ohiko etxebizitzan (d)*". Eskualdatu den ondare-osagaia subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza izan bada (hori salbuespeneko kasua da eta, nahitaez, inguruabar bereziek jazo behar dute egoitza aldatu eragiteko, etxebizitza ohikoa izateari ez uzteko) eta eskualdaketa lortutako zenbateko osoa edo beraren zati bat berriro inbertitu bada ohiko beste etxebizitza bat erosteko, orduan berriro inbertitu den zenbatekoaren ondare gehikuntza zerga hau ordaintzetik salbuetsita geldituko da. Laukitxo honetan, ohiko etxebizitza berria erosteko berriro inbertitu den kopurua agertu beharko da.

Laukitxo: "*1998an hartutako zatia (e)*". Besterentzearen zenbateko osoa zatika hartzen denean, hau da, zenbait urtetan, 1998an hartutako zenbatekoa jarriko da. Bestela, besterentze balioaren zenbateko osoa jarriko da.

Laukitxo: "*1998an kargatutako gehikuntza edo urripena (f)*". 1998ko ekitaldiko zenbatekoa jasoko da. Ohiko etxebizitzan berrinbertsiorik giten ez bada, eta bes-

terentzearen zenbatekoa zatika hartzen ez bada, hauxe beteko da: $(f) = (c)$. Ostera, ohiko etxebizitzan berrinbertsioa egiten bada eta hartukizuna zatika hartzen bada, orduan ondoko formula erabiliko da:

$$(f) = (c) \times \left[1 - \frac{(d)}{(a)} \right] \times \frac{(e)}{(a)}$$

Laukitxoa: "*Titulartasunaren portzentajea*". Hartzaileak ondasunaren titulartasun-ean duen partaidetzaren portzentajea agertaraziko da.

Laukitxoa: "*Egotzitako gehikuntza edo urripena*". Titulartasunaren portzentajea 1998an kargaturiko gehikuntza edo urripenaren gainean ezarriko da, eta emaitza hori jarriko da hemen.

$$(g) = (f) \times \text{Titulartasunaren portzentajea}$$

[264], [274], [284] eta [294]. gakoak, nor bere zeinuarekin, batuta, haien batura positiboa bada, batura hori [296]. gakora eroango da; ostera, negatiboa bada, orduan [295]. gakora eroango da.

H Ondare gehikuntza eta urripen irregularrak

H₁ Urte bian edo denbora laburragoan ondarean sortutako gehikuntza eta urripen irregularrak

"Hartzailea"ren laukitxoan, A, E, 1. S-A, 2. S-A... gakoetarik bat jarriko da, ondare gehikuntza zein urripenaren titulartasuna aitortzaileari, ezkontideari edo famili unitateko seme-alabetarik bati dagokion arabera.

"Gakoa"ren laukitxoan, honako hauetarik bat jarriko da:

- I: higiezina eskualdatu denean.
- A: negoziazioan onartuta dauden akzioak eskualdatu direnean.
- G: ondarearen beste edozein ondasun eskualdatu denean.

Laukitxoa: "*Besterentze balioa (a)*". Kapitulu honetan aipatutako arauak ezartzetik ateratzen dena izango da.

Laukitxoa: "*Eskuraketa balioa (b)*". Aurreko idatz-zatietan ezarritako berezitasunak ezartzetik ateratzen den zenbatekoa izango da (eskuraketa balio eguneratua).

Laukitxoa: "*Gehikuntza edo urripena (c) = (a) - (b)*". Gako horietan, lehen zehaztu diren besterentze eta eskuraketa balioen arteko kendura jarriko da.

Laukitxoa: "*Berrinbertsioa ohiko etxebizitzan (d)*". Eskualdatu den ondare-osagaia subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza izan bada (hori salbuespeneko kasua da eta, nahitaez, inguruabar bereziek jazo behar dute egoitza aldatu eragiteko, etxebizitzak ohikoa izateari ez uzteko) eta eskualdaketan lortutako zenbateko osoa edo beraren zati bat berriro inbertitu bada ohiko beste etxebizitza bat erosteko, orduan berriro

inbertitu den zenbatekoaren ondare gehikuntza zerga hau ordaintzetik salbuetsita geldituko da. Laukitxo honetan, ohiko etxebizitza berria erosteko berriro inbertitu den kopurua agertu beharko da.

Laukitxo: "1998an hartutako zatia (e)". Besterentzearen zenbateko osoa zatika hartzen denean, hau da, zenbait urtetan, besterentze balioaren zenbateko osoa jarriko da.

Laukitxo: "1998an kargatutako gehikuntza edo urripena (f)". 1998ko ekitaldiko zenbatekoa jasoko da. Ohiko etxebizitzan berrinbertsiorik egiten ez bada, eta besterentzearen zenbatekoa zatika hartzen ez bada, hauxe beteko da: (f) = (c). Ostera, ohiko etxebizitzan berrinbertsioa egiten bada eta hartukizuna zatika hartzen bada, orduan ondoko formula erabiliko da:

$$(f) = (c) \times \left[1 - \frac{(d)}{(a)} \right] \times \frac{(e)}{(a)}$$

Laukitxo: "Titulartasunaren portzentajea". Hartzaileak ondasunaren titulartasunean duen partaidetzaren portzentajea agertaraziko da.

Laukitxo: "Egortzitako gehikuntza edo urripena (g)". Titulartasunaren portzentajea 1998an kargaturiko gehikuntza edo urripenaren gainean ezarriko da, eta emaitza hori jarriko da hemen.

$$(g) = (f) \times \text{Titulartasunaren portzentajea}$$

Si la suma de las claves [309] , [319] , [329] eta [339] . gakoak, nor bere zeinuarekin, batuta, haien batura positiboa bada, batura hori [341]. gakora eroango da; ostera, negatiboa bada, orduan [340]. gakora eroango da.

H₂ Urte bi baino denbora luzeagoan ondarean sortutako gehikuntza eta urripen irregularrak: inbertsio kolektiboko erakundeak (IKE) eta finantza-aktiboak (FA)

"Hartzailea"ren laukitxoan, A, E, 1. S-A, 2. S-A... gakoetarik bat jarriko da, ondare gehikuntza zein urripenaren titulartasuna aitortzaileari, ezkontideari edo famili unitateko seme-alabetarik bati dagokion arabera.

"Gakoa"ren laukitxoan, "G" agertaraziko da.

Laukitxo: "Besterentze balioa (a)". Kapitulu honetan aipatutako arauak ezartzetik ateratzen dena izango da.

Laukitxo: "Eskuraketa balioa (b)". Aurreko idatz-zatietan ezarritako berezitasunak ezartzetik ateratzen den zenbatekoa izango da (eskuraketa balio eguneratua).

Laukitxo: "Gehikuntza edo urripena (c) = (a) - (b)". Gako horietan, lehen zehaztu diren besterentze eta eskuraketa balioen arteko kendura jarriko da.

Laukitxo: "Urteen kopurua 96-12-31 arte". Laukitxo honetan adieraziko da zenbat urte igaro diren eskualdatutako ondare-osagaia eskuratu zenetik 1996-12-31 arte; urteen kopurua gehiagoz biribilduko da (datu hau nahitaez jakin behar da araubide iragankorra ezartzeko).

Laukitxoa: "Gehikuntza edo urripen txikitua (r)". Araubide iragankorra ezartzetik ateratzen den emaitza jarriko da:

Ondare gehikuntza txikitua = (Besterentze balioa - Eskuraketa balioa x Egunerapen koefizientea) - [(Besterentze balioa - Eskuraketa balioa x Egunerapen koefizientea) x (t - 2) x Koefiziente txikitzailea]. Eta hor t "Urteen kopurua 96-12-31 arte" laukitxoko balioa izango da; koefiziente txikitzailea, berriz, %14,28koa; horrenbestez:

$$(r) = (c) - [(c) \times (t - 2) \times \%14,28]$$

Ondare urripen txikitua = Besterentze balioa - Eskuraketa balioa x Egunerapen koefizientea; horrenbestez:

$$(r) = (c). \text{ Eta } (r) \text{ kasu honetan negatiboa da.}$$

Laukitxoa: "1998an hartutako zatia (e)". Besterentzearen zenbateko osoa zatika hartzen denean, hau da, zenbait urtetan, 1998an hartutako zenbatekoa jarriko da. Bestela, besterentze balioaren zenbateko osoa jarriko da.

Laukitxoa: "1998an kargatutako gehikuntza edo urripena (f)". 1998ko ekitaldiko zenbatekoa jasoko da. Besterentzearen zenbatekoa zatika hartzen ez bada, hauxe beteko da: (f) = (r). Ostera, hartukizuna zatika hartzen bada, orduan ondoko formula erabiliko da:

$$(f) = (r) \times \frac{(e)}{(a)}$$

Laukitxoa: "Titulartasunaren portzentajea". Hartzaileak ondasunaren titulartasunean duen partaidetzaren portzentajea agertaraziko da.

Laukitxoa: "Egotzitako gehikuntza edo urripena (g)". Titulartasunaren portzentajea 1998an kargaturiko gehikuntza edo urripenaren gainean ezarriko da:

Eskualdaketa 1992ko ekitaldia baino aurreragoetean egin bada, eta besterentzearen balioaren zati bat 1998an hartu bada, orduan ekitaldian kargatutako gehikuntza kalkulatu beharko da, 7/1991 Foru Arauaren seigarren xedapen iragankorrean xedatutakoaren arabera.

[385], [396], [407] eta [418] gakoak, nor bere zeinuarekin, batuta, haien batura positiboa bada, batura hori [420]. gakora eroango da; ostera, negatiboa bada, orduan [419]. gakora eroango da.

H₃ Urte bi baino denbora luzeagoan ondarean sortutako gehikuntza eta urripen irregularrak: bestelakoak

Atal honetan, ondare gehikuntza eta urripenak jasoko dira, baldin eta beraiek urte bi baino denbora luzeagoan sortarazi badira ondarearen edozein osagai eskualdatzeagatik; edozelan ere, osagai horietatik kanpo, inbertsio kolektiboko erakundeen eta finantza-aktiboen kapitala edo ondarea ordezkatzeko duten partaidetzak daude.

"Hartzailea"ren laukitxoan, A, E, 1. S-A, 2. S-A... gakoetarik bat jarriko da, ondare gehikuntza zein urripenaren titulartasuna aitortzaileari, ezkontideari edo famili unitateko seme-alabetarik bati dagokion arabera.

"Gakoa"ren laukitxoan, honako hauetarik bat jarriko da:

- I: higiezina eskualdatu denean.
- A: negoziazioan onartuta dauden akzioak eskualdatu direnean.
- G: ondarearen beste edozein ondasun eskualdatu denean.

Laukitxo: "*Besterentze balioa (a)*". Kapitulu honetan aipatutako arauak ezartzetik ateratzen dena izango da.

Laukitxo: "*Eskuraketa balioa (b)*". Aurreko idatz-zatietan ezarritako berezitasunak ezartzetik ateratzen den zenbatekoa izango da (eskuraketa balio eguneratua).

Laukitxo: "*Gehikuntza edo urripena (c) = (a) - (b)*". Gako horietan, lehen zehaztu diren besterentze eta eskuraketa balioen arteko kendura jarriko da.

Laukitxo: "*Urteen kopurua 96-12-31 arte*". Laukitxo honetan adieraziko da zenbat urte igaro diren eskualdatutako ondare-osagaia eskuratu zenetik 1996-12-31 arte; urteen kopurua gehiagoz biribilduko da.

Laukitxo: "*Gehikuntza edo urripen txikitua (r)*". Ondoko formula ezartzetik ateratzen den emaitza jarriko da:

Ondare gehikuntza txikitua = Besterentze balioa - Eskuraketa balioa x Egunerapen koefizientea - [(Besterentze balioa - Eskuraketa balioa x Egunerapen koefizientea) x (t - 2) x Koefiziente txikitzailea]. Eta hor t "Urteen kopurua 96-12-31 arte" laukitxoko balioa izango da; horrenbestez:

$$(r) = (c) - [(c) \times (t - 2) \times \text{Koefiziente txikitzailea}]$$

Ondare urripen txikitua = Besterentze balioa - Eskuraketa balioa x Egunerapen koefizientea; horrenbestez:

$$(r) = (c). \text{ Eta (r) kasu honetan negatiboa da.}$$

Laukitxo: "*Berrinbertsioa ohiko etxebizitzan (d)*". Eskualdatu den ondare-osagaia subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza izan bada eta eskualdaketa lortutako zenbateko osoa edo beraren zati bat berriro inbertitu bada ohiko beste etxebizitza bat erosteko, orduan berriro inbertitu den zenbatekoaren ondare gehikuntza zerga hau ordaintzetik salbuetsita geldituko da. Laukitxo honetan, ohiko etxebizitza berria erosteko berriro inbertitu den kopurua agertu beharko da.

Laukitxo: "*1998an hartutako zatia (e)*". Besterentzearen zenbateko osoa zatika hartzen denean, hau da, zenbait urtetan, 1998an hartutako zenbatekoa jarriko da. Bestela, besterentze balioaren zenbateko osoa jarriko da.

Laukitxoa: "1998an kargatutako gehikuntza edo urripena (f)". 1998ko ekitaldiko zenbatekoa jasoko da. Ohiko etxebizitzan berrinbertsiorik egiten ez bada, eta besterentzearen zenbatekoa zatika hartzen ez bada, $(f) = (r)$. Ostera, ohiko etxebizitzan berrinbertsioa egiten bada eta hartukizuna zatika hartzen bada, orduan ondoko formula erabiliko da:

$$(f) = (r) \times \left[1 - \frac{(d)}{(a)} \right] \times \frac{(e)}{(a)}$$

Laukitxoa: "Titulartasunaren portzentajea". Hartzaileak ondasunaren titulartasunean duen partaidetzaren portzentajea agertaraziko da.

Laukitxoa: "Egotzitako gehikuntza edo urripena (g)". Titulartasunaren portzentajea 1998an kargaturiko gehikuntza edo urripenaren gainean ezarriko da:

$$(g) = (f) \times \text{Titulartasunaren portzentajea}$$

Eskualdaketa 1992ko ekitaldia baino aurreragokoetan egin bada, eta besterentzearen balioaren zati bat 1998an hartu bada, orduan ekitaldian kargatutako gehikuntza kalkulatu beharko da, 7/1991 Foru Arauaren seigarren xedapen iragankorrean xedatutakoaren arabera.

461, 473, 485 eta 497. gakoak, nor bere zeinuarekin, batuta, haien batura positiboa bada, batura hori 499. gakora eroango da; ostera, negatiboa bada, orduan 498. gakora eroango da.

Garrantzitsua: inbertsioa berriro egiten bada ohiko etxebizitzan, titular bakoitzak balioak agertaraziko ditu, eta titulartasun portzentajea %100ekoa da.

KASU PRAKTIKOA

AAB andrearen ondareak, 1998an zehar, ondoko zerrendako jakingarri eta mugimenduak izan ditu:

1. Balore kartera:

- GG, SA sozietatearen baloreak, negoziazioan onartuta daudenak:

Erosketak:

Erosketa data	Kopurua	Aleko balioa (Pta.)	Eskuraketa balioa (Pta.)
1993-XII-6	500	1.000	500.000
1994-VII-5	500	1.500	750.000
1995-XII-8	500	1.250	625.000
1996-V-1	500	1.500	750.000

Salmentak:			
Erosketa data	Kopurua	Aleko balioa (Pta.)	Eskuraketa balioa (Pta.)
1998-II-21	700	1.400	980.000
1998-IV-15	1.000	1.700	1.700.000
1998-IV-27	300	2.000	600.000

2. Higikorretako inbertsioko fondoak:

- 1995-VI-1ean, 400 partaidetza eskuratu zizkion AA inbertsio fondoari; partaidetza bakoitzaren zenbatekoa 10.000 pezetakoa izan zen. 400 partaidetza horiek 1998-VI-1ean itzuli ziren; bakoitzaren zenbatekoa 14.000 pezetakoa izan zen.
- 1996-VII-1ean, 500 partaidetza eskuratu zizkion BB inbertsio fondoari; bakoitzaren zenbatekoa 11.000 pezetakoa izan zen. 500 partaidetza horiek 1998-V-1ean itzuli ziren; partaidetza bakoitzaren zenbatekoa 14.500 pezetakoa izan zen.
- 1998-II-1ean, 600 partaidetza eskuratu zizkion CC inbertsio fondoari; bakoitzaren zenbatekoa 13.000 pezetakoa izan zen. 600 partaidetza horiek 1998-XII-1ean itzuli ziren; bakoitzaren zenbatekoa 16.000 pezetakoa izan zen.

3. Higiezinak:

1997-VII-10ean, estai bat eskuratu zuen Derion, 15.000.000 pezetako zenbatekoan. 1998-II-5ean saldu egin zuen, 13.000.000 pezetako zenbatekoan.

1997-XI-6an, Bilbon, garaje-sail bat eskuratu zuen, 2.500.000 pezetako zenbatekoan; 1998-IX-14an, 2.600.000 pezetan saldu zuen.

Ebazpena:

1. Balore kartera:

- GG, SA sozietatearen baloreak, negoziazioan onartuta daudenak:

1993-XII-6an eskuratutako 500 balore

Salmenta data	Kopurua	Aleko balioa (Pta.)	Salmenta balioa (Pta.)
1998-II-21	500	1.400	700.000
Eskuraketa balioa		1993-XII-6tik 1996-XII-31rako urteen kp.	
500 x 1.000 x 1,020 = 510.000		4	

Ondare gehikuntza

$(700.000 - 510.000) - 2 \times \%25 \times (700.000 - 510.000) = 95.000 \Leftrightarrow$ Urte bi baino denbora luzeagoan ondarean sortutako gehikuntza (H_3)

1994-VII-5ean eskuratutako 500 balore

Salmenta data	Kopurua	Aleko balioa (Pta.)	Salmenta balioa (Pta.)
1998-II-21	200	1.400	280.000
Eskuraketa balioa		1994-VII-5etik 1996-XII-31rako urteen kp.	
200 x 1.500 x 1,020 = 306.000		3	

Ondare gehikuntza edo urripena			
280.000 - 306.000 = - 26.000 ⇒ Ondare urripena = 26.000 ⇒ Urte bi baino denbora luzeagoan ondarean sortutako urripena (H ₃)			
Salmenta data	Kopurua	Aleko balioa (Pta.)	Salmenta balioa (Pta.)
1998-IV-15	300	1.700	510.000
Eskuraketa balioa		1994-VII-5etik 1996-XII-31rako urteen kp.	
300 x 1.500 x 1,020 = 459.000		3	
Ondare gehikuntza edo urripena			
(510.000 - 459.000) - 1 x %25 x (510.000 - 459.000) = 38.250 ⇒ Urte bi baino denbora luzeagoan ondarean sortutako gehikuntza (H ₃)			
1995-XII-8an eskuratutako 500 balore			
Salmenta data	Kopurua	Aleko balioa (Pta.)	Salmenta balioa (Pta.)
1998-IV-15	500	1.700	850.000
Eskuraketa balioa		1995-XII-8tik 1996-XII-31rako urteen kp.	
500 x 1.250 x 1,083 = 676.875		2	
Ondare gehikuntza edo urripena			
850.000 - 676.875 = 173.125 ⇒ Urte bi baino denbora luzeagoan ondarean sortutako gehikuntza (H ₃)			
1996-V-1ean eskuratutako 500 balore			
Salmenta data	Kopurua	Aleko balioa (Pta.)	Salmenta balioa (Pta.)
1998-IV-15	200	1.700	340.000
Eskuraketa balioa		1996-V-1etik 1996-XII-31rako urteen kp.	
200 x 1.500 x 1,042 = 312.600		1	
Ondare gehikuntza edo urripena			
340.000 - 312.600 = 27.400 ⇒ Urte bian edo denbora laburragoan ondarean sortutako gehikuntza (H ₁)			
Salmenta data	Kopurua	Aleko balioa (Pta.)	Salmenta balioa (Pta.)
1998-IV-27	300	2.000	600.000
Eskuraketa balioa		1996-V-1etik 1996-XII-31rako urteen kp.	
300 x 1.500 x 1,042 = 468.900		1	
Ondare gehikuntza edo urripena			
600.000 - 468.900 = 131.100 ⇒ Urte bian edo denbora laburragoan ondarean sortutako gehikuntza (H ₁)			

2. Higikorretako inbertsioko fondoaren partaidetzak:

- AA inbertsio fondoaren partaidetzetarik 400en itzulketa:

Eskuraketa data: 1995-VI-1

Eskuraketa balioa = $400 \times 10.000 \times 1,083 = 4.332.000$

Itzulketa data: 1998-VI-1

Itzulketa balioa = $400 \times 14.000 = 5.600.000$

Igarotako urteak, 1995-VI-1etik 1996-XII-31ra = 2

Ondare gehikuntza = $5.600.000 - 4.332.000 = 1.268.000 \Rightarrow$ Urte bi baino denbora luzeagoan ondarean sortutako gehikuntza (H_2)

- BB inbertsio fondoaren partaidetzetarik 500en itzulketa:

Eskuraketa data: 1996-VII-1

Eskuraketa balioa = $500 \times 11.000 \times 1,042 = 5.731.000$

Itzulketa data: 1998-V-1

Itzulketa balioa = $500 \times 14.500 = 7.250.000$

Ondare gehikuntza = $7.250.000 - 5.731.000 = 1.519.000 \Rightarrow$ Urte bian edo denbora laburragoan ondarean sortutako gehikuntza (H_1)

- CC inbertsio fondoaren partaidetzetarik 600en itzulketa:

Eskuraketa data: 1998-II-1

Eskuraketa balioa = $600 \times 13.000 = 7.800.000$

Itzulketa data: 1998-XII-1

Itzulketa balioa = $600 \times 16.000 = 9.600.000$

Ondare gehikuntza = $9.600.000 - 7.800.000 = 1.800.000 \Rightarrow$ Ondare gehikuntza erregularra (G)

3. Higiezinak:

- Estaiaren salmenta, Derio:

Eskuraketa data: 1997-VII-10

Eskuraketa balioa = 15.000.000

Besterentze data: 1998-II-5

Besterentze balioa = 13.000.000

Ondare urripena = $13.000.000 - 15.000.000 = 2.000.000 \Rightarrow$ Ondare urripen erregularra (G)

- Garaje-sailaren salmenta, Bilbo:

Eskuraketa data: 1997-XI-6

Eskuraketa balioa = 2.500.000

Besterentze data: 1998-IX-14

Besterentze balioa = 2.600.000

Ondare urripena = $2.600.000 - 2.500.000 = 100.000 \Rightarrow$ Ondare gehikuntza erregularra (G)

Emitzen laburpena:

Ondare urripen erregular garbia (G)

$1.800.000 - 2.000.000 + 100.000 = 100.000$

Urte bian edo denbora laburragoan ondarean sortutako gehikuntza garbi irregularra (H_1)

$27.400 + 131.100 + 1.519.000 = 1.677.500$

Urte bian baino denbora luzeagoan ondarean sortutako gehikuntza garbi irregularra: inbertsio kolektiboko erakundeak (IKE) eta finantza-aktiboak (FA) (H_2)

1.268.000

Urte bi baino denbora luzeagoan ondarean sortutako gehikuntza irregular eta garbia: bestelako ondare-osagaiak (H_3)

$95.000 + 38.250 + 173.125 - 26.000 = 280.375$

Ikusi nola bete den gidaliburu honen XII. kapituluko 168, 169 eta 170. orrialdeetan ageri den adibide praktikoa.

XII. KAPITULUA ONDARE GEHIKUNTZA ETA URRIPENEN OSAKETA ETA KONPENTSAZIOA

Kapitulu hau oso korapilatsua da; hori dela eta, urriaren 15eko 3/1996 Foru Dekretu Arau-emailearen 13. artikulua oso-osorik eta hitzez hitz aldatuko dugu hona; izan ere, foru dekretu arau-emaileak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 7/1991 Foru Arauaren 66. artikulua aldarazi zuen; hortaz, hona hemen aldaturik testu hori:

«13. artikulua

- b) Karga eskala likidatuko den oinarri erregularrari ezartzearen ondoriozko kargako batez besteko tasa (bbt).

Σ Ekitaldiko gainerako etekin irregularrak > 0

-

Aurreko urteetako gainerako etekin irregularren konpentsazioa
(horrelakorik egonez gero)

Zero baino handiagoa edo zero

- Aurreko eragiketaren emaitza zero bada: ez da kargarik ezarriko.
- Aurreko eragiketaren emaitza zero baino handiagoa bada: ondoko tasetarik handienaren menpean kargatuko da:

a) $kbbt1 =$
Karga eskala gainerako etekin irregular eta positiboen %50i ezartzearen ondoriozko kuota

x 100

%50 x Gainerako etekin irregular eta positiboak, konpentsazioa egin ondoren

b) $bbt =$

$$\frac{\text{Likidatuko den oinarri erregularraren kuota}}{\text{Likidatuko den oinarri erregularra}} \times 100$$

Zer gerta daitekeen:

- Baldin $bbt > = kbbt1$ bada

Gainerako etekin irregularrei dagokien kuota irregularra = Gainerako etekin irregularrak, konpentsazioa egin ondoren x bbt

- Baldin $bbt < kbbt1$ bada

Gainerako etekin irregularrei dagokien kuota irregularra = Gainerako etekin irregularrak x $kbbt1$

2. Likidatuko den oinarri irregularraren zati baten osagaiak izan daitezke, ondarearen osaketan aldakuntza gertatzen den unetik bi urtera edo denbora laburrago-ra eskuratutako ondare-osagaiak eskualdatzetik datozenak; bada oinarriaren zati hori ondoko tasetarik handienaz kargatuko da:
- a) Karga eskala likidatuko den oinarri irregularraren zati honen %50i ezartzearen ondoriozko batez besteko tasa ($kbbt2$).
 - b) Karga eskala likidatuko den oinarri erregularrari ezartzearen ondoriozko kargako batez besteko tasa (bbt).

Urte bian edo epe laburragoan ondarean sortu diren gehikuntza irregular eta garbiak

-

Nahi izanez gero, 1993. urtetik 1996rako ondare urripen garbiak konpentsatzea
(horrelakorik egonez gero)

-

Nahi izanez gero, 1997. urteko ondare urripen irregular eta garbiak, urte bian edo denbora
laburragoan sortutakoak, konpentsatzea (horrelakorik egonez gero)

-

Nahi izanez gero, ekitaldiko ondare urripen irregular eta garbiak, urte bi baino gehiagoko
epean sortutakoak, konpentsatzea (horrelakorik egonez gero)

-

Nahi izanez gero, 1997. urteko ondare urripen garbi erregularrak konpentsatzea
(horrelakorik egonez gero)

-

Nahi izanez gero, ekitaldiko ondare urripen erregular eta garbiak konpentsatzea
(horrelakorik egonez gero)

Zero baino handiagoa edo zero

- Aurreko eragiketaren emaitza zero bada: ez da kargarik ezarriko.
- Aurreko eragiketaren emaitza zero baino handiagoa bada: ondoko tasetarik handienaren menpean kargatuko da:

a) $k_{bbt2} =$

Karga eskala urte bian edo epe laburragoan ondarean sortu diren gehikuntza
irregular eta garbien %50i, konpentsazioa egin ondoren, ezartzearen
ondoriozko kuota

----- x 100

%50 x Gainerako ondare gehikuntza irregularrak, urte bian edo denbora laburragoan
sortarazpen epea dutenak, konpentsazioa egin ondoren

b) $bbt =$

Likidatuko den oinarri erregularraren kuota

----- x 100

Likidatuko den oinarri erregularra

Zer gerta daitekeen:

- Baldin $bbt \geq k_{bbt2}$ bada

Urte bian edo epe laburragoan ondarean sortu diren gehikuntza irregular eta garbien kuota
irregularra = ondare gehikuntza irregular eta garbiak, urte bian edo epe laburragoan sortuta-
koak, konpentsazioak egin ondoren x bbt

- Baldin $bbt < k_{bbt2}$ bada

Urte bian edo epe laburragoan ondarean sortu diren gehikuntza irregular eta garbien kuota
irregularra = ondare gehikuntza irregular eta garbiak, urte bian edo epe laburragoan sortuta-
koak, konpentsazioak egin ondoren x k_{bbt2}

3. Ondare gehikuntza irregularrak, urte bi baino gehiagoko epean sortutakoak.

- a) Likidatuko den oinarri irregularraren zati baten osagaiak ondare gehikuntzak izan daitezke, inbertsio kolektiboko erakundeen kapital edo ondarea ordezkatzan duten akzio edo partaidetzak eta finantza-aktiboak eskualdatu edo itzultzetik datozenak; bada, zati horrek beti 100eko 20ko karga izango du.

Urte bi baino gehiagoko epean ondarean sortu diren gehikuntza irregular eta garbiak, inbertsio kolektiboko erakundeen kapital edo ondarea ordezkatzan duten akzio edo partaidetzak eta finantza-aktiboak eskualdatu edo itzultzetik datozenak

-

Nahitaez, urte bi baino gehiagoko epean sortu diren ekitaldiko ondare urripen irregular eta garbiak, inbertsio kolektiboko erakundeen kapital edo ondarea ordezkatzan duten akzio edo partaidetzak eta finantza-aktiboak ez bestelako ondare-osagaietatik datozenak, konpentsatzea (horrelakorik egonez gero)

-

Nahi izanez gero, 1993. urtetik 1996rako ondare urripen garbiak konpentsatzea (horrelakorik egonez gero)

-

Nahi izanez gero, 1997. ekitaldiko ondare urripen irregular eta garbiak, urte bi baino gehiagoko epean sortutakoak, konpentsatzea (horrelakorik egonez gero)

-

Nahi izanez gero, ekitaldiko ondare urripen irregular eta garbiak, urte bian edo denbora laburragoan sortutakoak, konpentsatzea (horrelakorik egonez gero)

-

Nahi izanez gero, 1997. ekitaldiko ondare urripen garbi erregularrak konpentsatzea (horrelakorik egonez gero)

-

Nahi izanez gero, ekitaldiko ondare urripen erregular eta garbiak konpentsatzea (horrelakorik egonez gero)

Zero baino handiagoa edo zero

- Aurreko eragiketaren emaitza zero bada: ez da kargarik ezarriko.
- Aurreko eragiketaren emaitza zero baino handiagoa bada: honelaxe kargatuko da:

Kuota irregularra, urte bi baino gehiagoko epean ondarean sortu diren gehikuntza irregular eta garbiei, inbertsio kolektiboko erakundeen kapital edo ondarea ordezkatzan duten akzio edo partaidetzak eta finantza-aktiboak eskualdatu edo itzultzetik datozenei, dagokiena = ondare gehikuntza irregularrak, urte bi baino gehiagoko epean ondarean sortu diren gehikuntza irregular eta garbiak, inbertsio kolektiboko erakundeen kapital edo ondarea ordezkatzan duten akzio edo partaidetzak eta finantza-aktiboak eskualdatu edo itzultzetik datozenak, konpentsazioak egin ondoren x %20

- b) Likidatuko den oinarri irregularraren zati baten osagaiak ondare gehikuntzak izan daitezke, bada, gehikuntzok sortu badira ondare aldakuntza egin zen data baino urte bi baino gehiago lehenago eskuratutako ondare-osa-gaietatik, salbu eta inbertsio kolektiboko erakundeen kapitala edo ondarea ordezkatzan duten akzio edo partaidetzak eta finantza-aktiboak eskualdatu edo itzultzetik datozenetatik, orduan zati hori ondoko taulako tasetan kargatuko da:

Likidatuko den oinarri zatia	Ezarriko den tasa (Portzentajea)
200.000 pezeta arte	0
200.001 pezetatik aurrera	20

Urte bi baino gehiagoko epean ondarean sortu diren gehikuntza irregular eta garbiak, ondarearen gainerako osagaietatik datozenak

-

Nahitaez, urte bi baino gehiagoko epean sortu diren ekitaldiko ondare urripen irregular eta garbiak, inbertsio kolektiboko erakundeen kapital edo ondarea ordezkatzan duten akzio edo partaidetzak eta finantza-aktiboak eskualdatu edo itzultzetik datozenak, konpentsatzea (horrelakorik egonez gero)

-

Nahi izanez gero, 1993. urtetik 1996rako ondare urripen garbiak konpentsatzea (horrelakorik egonez gero)

-

Nahi izanez gero, 1997. ekitaldiko ondare urripen irregular eta garbiak, urte bi baino gehiagoko epean sortutakoak, konpentsatzea (horrelakorik egonez gero)

-

Nahi izanez gero, ekitaldiko ondare urripen irregular eta garbiak, urte bian edo denbora laburragoan sortutakoak, konpentsatzea (horrelakorik egonez gero)

-

Nahi izanez gero, 1997. ekitaldiko ondare urripen garbi erregularrak konpentsatzea (horrelakorik egonez gero)

-

Nahi izanez gero, ekitaldiko ondare urripen erregular eta garbiak konpentsatzea (horrelakorik egonez gero)

Zero baino handiagoa edo zero

- Aurreko eragiketaren emaitza zero bada: ez da kargarik ezarriko.
- Aurreko eragiketaren emaitza zero baino handiagoa bada: honelaxe kargatuko da:
 - Lehenengo 200.000 pezetak, %0ko tasan.
 - 200.001 pezetatik aurrera, %20ko tasan.

Laukitxoak: *“Txikipena jardueretako gehikuntzengatik”*. Likidatuko den oinarri erregularri dagokion batez besteko karga tasa Sozietateen gaineko Zergako karga tasa (%30 edo %32,5, kasuan-kasuan) baino handiagoa denean, kuota osoa txikituko da hurrengo azalduko den moduan aterako den zenbatekoan: batez besteko tasa horren eta Sozietateen gaineko Zergako tasa orokorraren arteko kendura, enpresa edota lanbide jardueren etekin garbi positiboa osatzen duten ondare gehikuntzen zenbatekoari ezarriko zaio, eta hortik ateratzen da kuota osoa zein zenbatekotan txikituko den. Horri dagokionez, ondare gehikuntzen zenbatekotik kenduko dira, jardueraren etekin garbia zehazteko kontuan hartu diren ondare urripenak, honelakoak egon badira.

Kuota osoa guztira:

Kuota osoa guztira = likidatuko den oinarri erregularraren kuota + etekin irregularraren kuota + urte bian edo epe laburragoan sortutako gehikuntza irregularraren kuota + urte bi baino gehiagoko epean sortutako gehikuntza irregularrak, inbertsio kolektiboko erakundeen kapital edo ondarea ordezkatzeko duten akzio edo partaide-tzak eta finantza-aktiboak eskualdatu edo itzultzetik datozenak + urte bi baino gehiagoko epean ondarean sortu eta bestelako ondare-osagaietatik datozenen gehikuntzen, kuota – txikipena jardueretako gehikuntzengatik

ZELAN BETE BEHAR DEN PFEZ'1998 INPRIMAKIA

Zerga banaka aurkeztea aukeratu bada

A. Likidatuko den oinarri erregularraren kuota

Ateratzen den kuota [702]. laukitxora eroango da.

Kuota lortuz gero, kargako batez besteko tasa kalkulatu da, eta haren zenbatekoa [703]. laukitxora eroango da.

B. Likidatuko den oinarri irregularraren kuota

1. Etekin irregularraren kuotaren kalkulua

Likidatuko den oinarri irregularraren zati hau zergapean egongo da karga tasa hauetarik handienarekin:

- a) Karga eskala etekin hauetatik likidatuko den oinarri irregularraren %50i ezartzearen ondoriozko kargaren batez besteko tasa. Horrenbestez, [705]. gakora ondoko eragiketaren emaitzako zenbatekoa eroango da: %50 x [252]. gakoa.

Horrela lortu den zenbatekoari karga eskala ezarriko zaio; eta emaitza hori [708]. laukitxoan jasoko da.

Ondorik karga tasa kalkulatu da:

$$[709].\text{laukitxoa} = \frac{[708].\text{laukitxoa}}{[705].\text{laukitxoa}} \times 100$$

- b) Likidatuko den oinarri erregularraren batez besteko karga tasa, [703]. laukitxora bildutakoa.

"Ezarriko den karga tasa" laukitxoak, [710]. gakoak, atal honetako tasa biotarik handiena jasoko du: [703]. gakoa edo [709]. gakoa.

*"Etekin irregularraren kuota"*ren laukitxoak, [711]. gakoak, ondoko eragiketaren emaitza jasoko du:

$$[711]. \text{ laukitxoa} = [252]. \text{ laukitxoa} \times \% [710]. \text{ laukitxoa.}$$

2. Urte bian edo denbora laburragoan sortu gehikuntza irregularren kuotaren kalkulua

Osagai horietatik likidatuko den oinarri irregularren zatiak ondoko karga tasetik handiena izango du:

- a) Karga eskala ondarearen etekin hauetatik likidatuko den oinarri irregularraren zatiaren %50i ezartzearen ondoriozko kargaren batez besteko tasa. Horrenbestez, [715]. gakora ondoko eragiketaren emaitzako zenbatekoa eroango da: %50 x [626]. gakoa.

Horrela lortu den zenbatekoari karga eskala ezarriko zaio; eta emaitza hori [718]. laukitxoan jasoko da.

Ondorik karga tasa kalkulatu da:

$$[719]. \text{ laukitxoa} = \frac{[718]. \text{ laukitxoa}}{[715]. \text{ laukitxoa}} \times 100$$

- b) Likidatuko den oinarri erregularraren batez besteko karga tasa, [703]. laukitxora bildutakoa.

"Ezarriko den karga tasa" laukitxoak, [720]. gakoak, atal honetako tasa biotarik handiena jasoko du: [703]. gakoa edo [719]. gakoa.

*"Kuota"*ren laukitxoak, [721]. gakoak, ondoko eragiketaren emaitza jasoko du:

$$[721]. \text{ laukitxoa} = [626]. \text{ laukitxoa} \times \% [720]. \text{ laukitxoa.}$$

3. Urte bi baino denbora luzeagoan sortu gehikuntza irregularren kuota

- a) Inbertsio kolektiboko erakundeen kapitala edo ondarea ordezkatzeko akzio edo partaidetzak edo finantza-aktiboak eskualdatu edo itzultzetik datozen gehikuntza irregular garbien kuota. Urte bi baino denbora luzeagoan sortutako gehikuntza irregularrei, letra hauetan zehaztutako ondare-osagaieetatik baitatoz, %20ko karga tasa ezarriko zaie. Horrenbestez:

$$[725]. \text{ laukitxoa} = [628]. \text{ laukitxoa} \times \%20$$

- b) Aurreko a) letrara bildu ez diren beste ondare-osagaiak eskualdatzetik datozen gehikuntza irregularren kuota.

$\boxed{726}$. laukitxoa = $(\boxed{630}$. laukitxoa - 200.000) x %20.

$\boxed{726}$. laukitxoko zenbatekoak ezin du inoiz negatiboa izan; hortaz, $\boxed{630}$. gakoan da-
goen zenbatekoa 200.000 pezetakoa edo bera baino txikiagoa bada, $\boxed{726}$. laukitxoa
zerokoa izango da:

Kuota osoa = likidatuko den oinarri erregularraren kuota + etekin irregularren kuo-
ta + urte bian edo denbora laburragoan sortu gehikuntza irregular garbien kuota +
IKE eta FAen urte bi baino gehiagoko gehikuntza irregular garbien kuota + urte bi
baino gehiagoko bestelakoen gehikuntza irregular garbien kuota:

$\boxed{727}$. laukitxoa = $\boxed{702}$. laukitxoa + $\boxed{711}$. laukitxoa + $\boxed{721}$. laukitxoa + $\boxed{725}$. laukitxoa
+ $\boxed{726}$. laukitxoa

$\boxed{728}$. laukitxoa: "Txikipena jardueretako gehikuntzengatik". $\boxed{703}$. gakoaren karga
tasa %30 edo %32,5 baino handiagoa denean, emaitza hau jarriko da: tasa horien
kendura ezarriko zaio enpresa edo lanbide jardueren etekin garbi positiboaren on-
dare gehikuntzen zenbatekoari (baso jardueretan, $\boxed{2515}$ eta $\boxed{2712}$. gakoak) eta emai-
tza hori jarriko da.

$\boxed{729}$. laukitxoa: "Kuota osoa guztira". Ondoko kendura jasoko du:

$\boxed{729}$. laukitxoa = $\boxed{727}$. laukitxoa - $\boxed{728}$. laukitxoa.

Zerga batera aurkeztea aukeratu bada

Kuota osoa kalkulatzeko, zerga banaka aurkeztea aukeratu denean jokatu den beza-
laxe jokatu da, baina zerga batera aurkeztea aukeratzeari dagokion karga eskala
ezarriko da.

KASU PRAKTIKOA

JJR jaunak, 1998. urtean, ondoko emaitzak izan ditu:

- Norberaren lanaren etekin garbiak = 2.000.000
- Higikorren kapitalaren etekin garbiak = 100.000
- Higiezinaren kapitalaren etekin garbiak = 50.000
- Basozaintzako etekin garbiak, 20 urtean sortutakoak = 5.000.000
- 1998-IV-10ean, akzio batzuk saldu zituen, negoziazioan onartuta zeudenak; izan ere, ak-
ziook 1996-VIII-7an eskuratu zituen eta 2.000.000 pezetako gehikuntza garbia sortu dute
ondarean.
- 1998-V-1ean higikorretako inbertsioko fondo baten zituen partaidetza batzuk itzuli zituen;
partaidetza horiek 1995-V-1ean eskuratu zituen, eta 500.000 pezetako gehikuntza garbia
lortu du ondarean.
- 1998-VII-5ean, Bilbon zuen estaiak saldu zuen; estai hori 1995-VI-6an eskuratu zuen; onda-
rean lortu duen gehikuntza garbia 800.000 pezetakoa izan da.
- BGAE bati ekarpenak zizkion, 600.000 pezetako zenbatekoan.

<i>Ebazpena</i>
<i>1gn.) Likidatuko den oinarri erregularraren kalkulua</i>
<p>Etekin irregularrak:</p> $\text{Urtekotua} = \frac{5.000.000}{20} = 250.000$ <p>Zerga oinarri erregularra = 2.000.000 + 100.000 + 50.000 + 250.000 = 2.400.000 BGA Erentzako ekarpena = 600.000 Likidatuko den oinarri erregularra = 2.400.000 - 600.000 = 1.800.000</p>
<i>2gn.) Likidatuko den oinarri irregularraren kalkulua</i>
<p>Gainerako etekin irregularra = 5.000.000 - 250.000 = 4.750.000 Zerga oinarri irregularra = 4.750.000 + 2.000.000 + 500.000 + 800.000 = 8.050.000</p>
<i>3gn.) Likidatuko den oinarria guztira</i>
$1.800.000 + 8.050.000 = 9.850.000$
<i>4gn.) Likidatuko den oinarri erregularraren kuotaren kalkulua</i>
<p>LOE = 1.800.000 Karga eskalaren ezarpena = 285.770</p> $\text{Karga tasa} = \frac{285.770}{1.800.000} \times 100 = \%15,88$
<i>5gn.) Likidatuko den oinarri irregularraren kuotaren kalkulua</i>
<p>1. Gainerako etekin irregularrak Gainerako etekin irregularren %50 = 2.375.000 Karga eskala 2.375.000 kopuruari ezarritz, honako hau lortuko da: 422.020</p> $\text{Batez besteko karga tasa} = \frac{422.020}{2.375.000} \times 100 = \%17,77$ <p>Gainerako etekin irregularren kuota = 4.750.000 x %17,77 = 844.075</p> <p>2. Urte bian edo epe laburragoan ondarean sortutako gehikuntza irregular eta garbia Urte bian edo epe laburragoan ondarean sortutako gehikuntza irregular eta garbiaren %50 = 1.000.000 Karga eskala 1.000.000 kopuruari ezarrita = 106.600</p> $\text{Batez besteko karga tasa} = \frac{106.600}{1.000.000} \times 100 = \%10,66$ <p>Urte bian edo epe laburragoan ondarean sortutako gehikuntza irregular eta garbiaren kuota = 2.000.000 x %15,88 = 317.600</p> <p>3. Urte bi baino epe luzeagoan ondarean sortu diren gehikuntza irregular eta garbia, inbertsio kolektiboko erakundeena 500.000 x %20 = 100.000</p> <p>4. Urte bi baino epe luzeagoan ondarean sortu diren gehikuntza irregular eta garbia, bestelako ondare-osagaiena: (800.000 - 200.000) x %20 = 120.000</p>
<i>6gn.) Kuota osoa guztira</i>
$285.770 + 844.075 + 317.600 + 100.000 + 120.000 = 1.667.445$

IFZ		Lehen deltura		Bigarren deltura		Izena		1998	
M	Likidatuko den oinarri erregularra guztira, konpentsazioa egin ondoren	678	-	685		690		1.800.000	
N	Zerga oinarri irregularra / likidatuko den oinarri irregularra guztira	252	+	626	+	628	+	630	691
Ñ	Likidatuko den oinarria guztira	600	+	691		692		9.850.000	
O	Zerga banaka aurkeztea aukeratu bada			P	Zerga batera aurkeztea aukeratu bada				
Likidatuko den oinarri erregularraren kuotaren kalkulua					Likidatuko den oinarri erregularraren kuotaren kalkulua				
Diru-kopuru honetaraino		1.161.000	700	138.800	Diru-kopuru honetaraino		730		
Gainerakoa		639.000	% 23	(e)(a)n	Gainerakoa		%	(e)(a)n	731
Batura			702	285.770	Batura			732	
kt = $\frac{702}{690} \times 100$			703	15,88	kt = $\frac{732}{690} \times 100$			733	
Etekin irregularren kuotaren kalkulua					Etekin irregularren kuotaren kalkulua				
Etekin irregularren %50			705	2.375.000	Etekin irregularren %50			735	
Diru-kopuru honetaraino		2.295.000	706	399.620	Diru-kopuru honetaraino			736	
Gainerakoa		80.000	% 28	(e)(a)n	Gainerakoa		%	(e)(a)n	737
Batura			708	422.020	Batura			738	
kt = $\frac{708}{705} \times 100$			709	17,77	kt = $\frac{738}{735} \times 100$			739	
Ezarriko den karga tasa			710	17,77	Ezarriko den karga tasa			740	
$252 \times 4.750.000 \times \% 710$			711	844,075	252×740			741	
Etekin irregular. kuota			711	844,075	Etekin irregular. kuota			741	
Urte bian edo denbora laburragoan sortu gehikuntza irregularren kuotaren kalkulua					Urte bian edo denbora laburragoan sortu gehikuntza irregularren kuotaren kalkulua				
Urte bian edo denbora labor. sortu gehi. irre. %50			715	1.000.000	Urte bian edo denbora labor. sortu gehi. irre. %50			745	
Diru-kopuru honetaraino		467.000	716	0	Diru-kopuru honetaraino			746	
Gainerakoa		533.000	% 20	(e)(a)n	Gainerakoa		%	(e)(a)n	747
Batura			718	106.600	Batura			748	
kt = $\frac{718}{715} \times 100$			719	10,66	kt = $\frac{748}{745} \times 100$			749	
Ezarriko den karga tasa			720	15,88	Ezarriko den karga tasa			750	
$626 \times 2.000.000 \times \% 720$			721	317.600	626×750			751	
Kuota			721	317.600	Kuota			751	
Urte bi baino denbora luzeagoan sortu gehikuntza irregularren kuota:					Urte bi baino denbora luzeagoan sortu gehikuntza irregularren kuota:				
IKE eta FA		628	500.000	% 20	725	100.000		755	
Beste batz.		630	800.000	- 200.000 x %20	726	120.000		756	
Kuota osoa		702	+ 711	+ 721	+ 725	+ 726		727	1.667.445
Txikipena jardueretako gehikuntzengatik			728					728	
Kuota osoa guztira		727	- 728					729	1.667.445
Urte bi baino denbora luzeagoan sortu gehikuntza irregularren kuota:					Urte bi baino denbora luzeagoan sortu gehikuntza irregularren kuota:				
IKE eta FA		628		% 20	755			755	
Beste batz.		630		- 200.000 x %20	756			756	
Kuota osoa		722	+ 721	+ 751	+ 755	+ 756		757	
Txikipena jardueretako gehikuntzengatik								758	
Kuota osoa guztira		757	- 758					759	

XIV. KAPITULUA

KUOTATIKAKO KENKARIAK.

ZERGA ZORRA

FAMILI KENKARIAK

Famili inguruabarrak zehazteko, Zergaren sortzapen datari begiratuko zaio (1998ko abenduaren 31), beste sortzapen data bat sortarazten duten gertakizun berezietarik baten bat dagoenean izan ezik:

- Zerga banaka aitortzen duen subjektu pasiboaren heriotza.
- Ezkontzaren desegitea, epai irmoaz adierazitako ezkontzaren deuseztasuna edo banantzea, edo aita edo ama ezkongabeen heriotza, edo ezkondu barik daudenen heriotza, zerga batera aitortzen dutenean.
- Subjektu pasiboaren ezkontza, ezkondu eta gero zerga batera aurkeztea aukeratzen badute.

1. Subjektu pasiboarekin bizi diren *ondorengo ezkongabeak* (776. gakoa):

- 25.000 pezeta, lehenengoengatik.
- 35.000 pezeta, bigarrenengatik.
- 50.000 pezeta, hirugarren eta gerokoengatik.

Zerga banaka aitortzen denean, subjektu pasibo bakoitzak %50 kendu beharko die kopuru horiei.

Ondorengotzat hartuko dira subjektu pasiboari loturiko pertsonak, baldin eta tutoretzan ba daude edo ordaindu barik etxean hartuta badaude.

Ondorengoak gradu bereko aurrekoekin bizi direnean, kenkaria erdibana egingo da haietarik bakoitzaren aitorpenean. Aurrekoak beste gradu batekoak badira, kenkaria hurreneko graduok egingo dute, urtean 952.560 pezeta edo gutxiagoko errenta lortzen dutenean izan ezik, orduan kenkaria urrutieneko graduok egingo dute eta.

Kenkari hau ez da erabiliko, ondorengoak honako hauetarik izatekotan:

- a) Ondorengo horiek hogeita hamar urte egin badituzte zerga sortu zen data baino lehen, salbu eta itsu, mutilatu edo elbarri, fisiko zein psikiko, jatorrizko edo gertaerabidezkoa izateagatik kenkaria egin daitekeenean.
- b) Zergaldian 952.560 pezeta baino gehiagoko errentak lortu badituzte urtean.

Deuseztasuna, banantzea edo dibortzioa, Kode Zibilean ezarritakoarekin bat etorritik. Ondorengoengatik kenkaria zati berdinetan egingo dute gurasoek, baldin eta epaileak onetsi duen hitzarmenean itundu badira seme-alabentzako mantenurako urtekoak, eta urtekook seme-alabekin bizi ez den gurasoak

ordaindu behar baditu. Horrelakoetan, ekonomi mantenu hori benetan egin dela egiaztatu behar da.

2^a Subjektu pasiboarekin bizi den *aurreko* bakoitzeko, baldin eta urtean 952.560 pezeta baino gehiagoko errentarik lortzen ez badu, [778]. gakoan ondorengo kopuruetarik bat kenduko da:

a) Oro har: 16.500 pezeta.

b) Aurrekoa 75 urtekoa edo nagusiagoa bada: 32.900 pezeta.

Aurrekoak ezkontide biek bizi direnean, kenkari hori erdibana egingo da haietarik bakoitzaren aitortzearen bidez.

Urrutiagoko graduako ondorengoek ezin izango dute kenkari hau egin, gradu hurbilagokoek hartarako eskubidea dutenean.

3^a *Subjektu pasiboa 65 urtekoa edo nagusiagoa denean*, 20.000 pezetako kopurua kenduko da ([779]. gakoa).

4^a *Subjektu pasibo bakoitzeko* eta, egonez gero, *ondorengo ezkongabe edota aurreko* bakoitzeko, haren adina edozein delarik, baldin eta subjektu pasiboaren menpean badago, *itsuak, mutilatuak edo gorputz nahiz buru elbarriak direnean*, eta ondorengo ezkongabea edo aurrekoa izatekotan, urtean 952.560 pezeta edo gehiagoko errentarik ez badu, 56.000 pezetako kopurua kenduko da ([780]. gakoa).

Kenkari hau egin ahal izango da, minusbaliatuak subjektu pasiboarekin duen lotura tutoretza edo ordainketarik gabeko harrerakoa denean.

Kenkari hau egiteko eskubidea sortarazten duten pertsonak zenbait subjektu pasiboren menpean daudenean, kenkaria haietarik bakoitzaren aitortzearen bidez egingo da zati berdinetan.

Zer den minusbaliatua: kenkari honetarako eskubidea ematen duen urripen fisiko zein psikikoaren maila, abenduaren 20ko 26/1990 Legearen xedapen gehigarrietan bigarrenak ezarritako baremoaren arabera, minusbalioa %33an edo gehiagotan duen pertsonaren legezko izatea duenari dagokiona da. Norbera minusbaliatua dela egiaztatzeke, Zuzenbidean onartzen diren frogabideetarik edozein erabili ahal izango da. Hala ere, honako hauetan egiaztatutzat hartuko da:

a) Bizkaiko Foru Aldundiaren menpeko eskudun organoek, Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioek (Gizarte Zerbitzuen Nazio Erakundeak) edota autonomi erkidegoetakoek ziurtatua denean.

b) Gizarte Segurantzak, Klase Pasiboaren Araubide Bereziak, Toki Administrazioaren Aurreikuspenetarako Nazio Erakundeak edo haien ordezkari erakundeak ziurtaturiko egoerak, hala nola, elbarritasun iraunkorrak, erabatekoak edo elbarritasun larriak, sortarazitako prestazioak hartzen dituztenean, baldin eta egoera horiek aintzatezteko %33ko minusbalioa edo handiagoa beharrezko badute.

c) Ospe handiko mediku erakundeak, edo arlo horretako mediku espezialista batek baino gehiagok ziurtatua denean. Ziurtagiri horietan minusbalio maila beren beregi agertaraziko da.

KASU PRAKTIKOA

Alberto jaun eta Marta andrearen arteko ezkontzarekin ondoko ondorengo eta aurrekoak bizi dira:

- 18 urteko semea, minusbaliatua, urtean errentarik lortzen ez duen ikaslea.
- 17 urteko alaba, 1998. urtean ondoko sarrera gordinok lortu dituen: 985.540
- 21 urteko semea, langabezian dagoena, 1998an 890.000 pezetako sarrerak jaso dituena. Igonerekin ezkontuta dago eta 2 urteko alaba dute; Igonek ez du sarrerarik lortzen.
- Marta andrearen amak 78 urte ditu eta alarguntasun pentsioa jasotzen du; pentsio hori 1998. urtean 630.000 pezetakoa izan da.

Ebazpena:

Kenkaria egiteko ematen duten ondorengoak: 2

- Kenkaria egiteko eskubidea ematen du.
- Ez du kenkaririk egiteko eskubiderik sortzen, urteko errentak 952.560 pezetatik gorakoak izan baitira (1998ko lanbidearteko gutxieneko alokairua).
- Semeak ez du kenkaririk egiteko eskubiderik ematen, ezkontua baita. Hala eta guztiz ere, 2 urteko ilobarengatik kenkaria egin ahal izango dute, gurasoen sarrerak 952.560 pezetatik beherakoak baitira.

Kenkariaren zenbatekoa (zerga batera aurkezten denean)= 60.000

Aurrekoen kopurua = 1

Amak eskubidea ematen du, kenkaria egiteko, beraren sarrerak 952.560 pezetatik gorakoak ez izateagatik.

Kenkariaren zenbatekoa = 32.900

Itsu, mutilatu, elbarri fisiko zein psikikoen ziozko kenkaria: 18 urteko semeak eskubidea ematen du, kenkari hori egiteko.

Kenkariaren zenbatekoa: 56.000

Kuotatikako kenkariak					
Ondorengo ezkongabe guztien kopurua	775	2	Ondorengo ezkongabeak (ikus jarraibideak)	776	60.000
Aurreko guztien kopurua	777	1	952.560 pta.-rainoko sarrerak dituzten aurrekoak	778	32.900
65 urtekoa edo zaharragoa den subjektu pasibo bakoitza (20.000 pta.)				779	
Itsu, mutilatu, elbarri fisiko zein psikiko bakoitza (56.000 pta.)				780	56.000
Gaixotasun gastuak (%15)				791	
Ohiko etxebizitzaren alogera (%15. Ikus jarraibideak)				796	
Umeak zaintzeagatik dauden gastuak (%20. Ikus jarraibideak)				799	
Pentsiodunak (20.000 pta. Ikus jarraibideak)				800	
Kapital geroratuaren aseguru mistoko kontratuak (kenkariaren muga: 50.000 pta.)				814	
Ken litezkeen beste aseguru kontratu batzuk				819	

GAIXOTASUN GASTUAK (%15)

Kenkari honek ondokook hartzen ditu:

- a) Subjektu pasiboak zergaldian zehar gaixotasunaren, istripuaren edo elbarritasunaren zioz beregan edota, kuotatik kenkaria egiteko eskubidea ematen dioten pertsonengan ordaindutako gastuak.
- b) Subjektu pasiboaren seme-alaben jaiotzaren zioz ordaindutako medikuntza, klinika eta farmazi gastuak.
- c) Aseguru medikuen mutualitate edo sozietateei ordaindutako kuotak.

Gaixotasun gastutzat, besteak beste, honako hauek hartuko dira:

1. Odontologiakoak (hortz protesiak barru).
2. Oftalmologiakoak (betaurreko eta lentetxo graduatuak barru).
3. Birgaitzeko sendabideak.
4. Aparatu ortopedikoak.
5. Gaixoaren laguntzaileari, holakorik dagoenean, dagozkion klinikakoak.
6. Gaixoen zainketa zerbitzukoak, osasun langileek eginak badira.
7. Itsuei eta gorputz nahiz buru minusbaliatuei sortarazitakoak, baldin eta badira haiek zaintzeko edo bizimodu arrunta aurrera atera ahal izan dezaten, betiere, minusbaliatua izateagatik izan behar du kenkarirako eskubidea.
8. Kontsulta medikuengatik, gaixoak eta lagun batek izan dituzten joan-etorriak eta egonaldiak.
9. Medikuen agindua dela bide, bainuetxe eta urberoetako sendabideak.

Kirurgia estetikoarengatik sortzen diren gastuak ezin izango dira gaixotasun gastutzat kendu, betiere gaixotasun, istripu edo lanbide eskakizunengatik sortzen ez denean.

791. laukitxoa = gaixotasun gastuen zenbateko osoa x %15.

NORBERAK DITUEN BESTE GASTU BATZUK

1. *Ohiko etxebizitzaren alojeragatik* zergaldian ordaindutako kopuruen %15 kendu ahal izango da, urtean dagoen gehieneko muga 100.000 pezetakoa delarik. Honako baldintza hauek beti bete beharko dira:
 - a) Subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza izatea.
 - b) Subjektu pasiboaren zerga oinarria ez da 3.500.000 pezeta baino gehiagokoa izango urtean (5.000.000 pezeta, zerga batera aitortzen denean), eta

- c) Alogeragatik ordaindutako kopuruak subjektu pasiboaren etekin garbien %10 baino gehiagokoa izan behar du.

[796]. laukitxoa = Alogeraren zenbatekoa x %15; eta ezin da 100.000 pezetako zenbatekoa gainditu.

Subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza alogerean hartua denean, inprimaki honen 8. orriko "Ohiko etxebizitzaren errentamenduari buruzko datu"ei dagokien atalean, nahitaez errentatzailearen izena eta IFZ jarriko dira, bai eta kontratuaren data eta ekitaldian zehar errentamenduarengatik ordaindutako zenbatekoa ere ([63], [64], [65] eta [66]. gakoak, hurrenez hurren), nahiz eta kenkaria egitea ezinezkoa izan.

2. *Umeak zaintzeagatik*, zergaldian zehar horrengatik ordaindutako kopuruaren %20 kendu ahal izango da, gehienez ere 50.000 pezeta urtean, baina honako baldintza hauek beti bete beharko dira:
- Zaindu behar diren umeak hiru urtekoak baino gazteagoak izatea.
 - Gurasoek familiaren etxetik kanpora lan egitea, eta
 - Subjektu pasiboaren zerga oinarriak ez du urtean 3.500.000 pezeta baino gehiagokoa izan behar (5.000.000 pezeta, zerga batera aitortzen denean).

[799]. gakoa = zaintza gastuak x %20; eta ezin da 50.000 pezetako zenbatekoa gainditu.

- 3º *Jubilazio, zahartasun, elbarritasun, alarguntasun edo zurztasuneko pentsiodunek* 20.000 pezetako kopurua kendu ahal izango dute, baina beti bete beharko dira honako baldintza hauek:
- Subjektu pasiboak hartutako pentsioen zenbatekoa urtean 1.500.000 pezeta gordin baino handiagoa ez izatea, eta
 - Subjektu pasiboaren urteko zerga oinarriak ez du 2.000.000 pezeta baino gehiagokoa izan behar (4.000.000 pezeta, zerga batera aitortzen denean).

Kenkari honen zenbatekoa [800]. gakoan jarriko da.

INBERTSIOEN ZIOZKO KENKARIAK

Inbertsioen ziozko kenkariak egiteko betekizun bereziak

Bizitza aseguruaren prima, etxebizitzaren erosketa eta kultur intereseko ondasunen erosketaren ziozko kenkariak erabiltzeko, subjektu pasiboaren ondarearen zenbateko egiaztatuak handiagoa izan behar du, epealdiaren amaieran, egiaztapenak epealdiaren hasieran agertarazten duen balioa baino, gutxienez, egindako inbertsioen zenbatekoan.

Inbertsioen ziozko kenkarietatik bakoitzari dagokiona

Zerga banaka aitortzen denean, kontzeptu hauengatik egin daitezkeen kenkariak erabiliko ditu subjektu pasiboak inbertsiopeko ondasun edota eskubideen titulartasunean duen partaidetzaren neurriaren arabera.

BIZITZA ASEGURUEN PRIMAK

KAPITAL GERORATUAREN ASEGURU MISTOKO KONTRATUAK
(KENKARIAREN MUGA: 50.000 PTA.)

Kapital geroratuaren, errenta geroratuen edo bizi osoaren aseguru mistoko kontratuen zioz ordaindutako primen zenbatekoaren %10 kendu ahal izango da, baldin eta kontratuek 10 urtean edo denbora luzeagoan irauten badute. Kenkari honen zenbatekoak ezin du 50.000 pezetatik gorakoa izan.

Ordaindutako zenbatekoak, kontratuaren iraunaldiaren hamar urteko epea igaro aurretik, edozein bide erabilita, berreskuratzen badira, egindako kenkari guztiak galdu egingo dira; hortaz, epea betetzen ez den ekitaldian, zergadunak hauxe egin beharko du: zergaldi horretan sortutako zergaren kuotari gehitu beharko dizkio, alde batetik, kendutako kopuruak, bestetik, kopuru horiei dagozkien berandutza korrituak.

$\boxed{814}$. laukitxoa = Ordaindutako primen zenbatekoa x %10; eta laukitxo honetako zenbatekoa ezin da 50.000 pezetako zenbatekoa gainditu.

KEN LITEZKEEN BESTE ASEGURU KONTRATU BATZUK

Zenbatekoen %10 kendu ahal izango da, kontzeptuak ondokoak badira:

- a) Espainian jarduteko legezko baimena duten erakundeekin sinatutako bizitza, heriotza edo elbarritasunaren aseguruaren, batera nahiz banatuta, kontratuen zioz ordaindutako primak, baldin eta onuradun subjektu pasiboa bera bada edo, bestela, haren ezkontidea, aurrekoak edo ondorengoak badira.
- b) Borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakunde bateko zenbakiko bazkideak edo bazkide arruntak egotzi edo egindako egozketen zioz, zerga oinarrian kendutako kopuruetatik gora doazen zenbatekoak.

$\boxed{819}$. laukitxoa = $(a + b) \times \%10$

$\boxed{814}$ eta $\boxed{819}$. gakoetara bildutako kenkariak ez dira ondoko kasuetan egingo:

1. Hamar urte baino gutxiagoko aseguru mistoaren, kapital geroratuaren, errenta geroratuen edo bizitza osoaren kontratuak.
2. Berehalako errenten aseguru kontratuak.
3. Zergaren zerga-oinarrian oso-osoan edo zati batean txikitu ahal izango diren primak eskaintzen dituzten mutualitateekin hitzartutako aseguru kontratuak.

INBERTSIOA ETXEBIZITZAN

1. Atal honetan, zergaldian, subjektu pasiboaren *ohiko etxebizitza erosi edo birgaitzeko*, ordaindutako kopuruaren %15 kenduko da.

Zer den ohiko etxebizitza

Subjektu pasiboaren ohiko etxebizitzatzat, eten gabeko hiru urteetako epean zehar, beraren ohiko egoitza dena joko da. Hala ere, epe hori igaro gabe ere, etxebizitza nahitaez aldatzea dakarten inguruabarrak gertatzen direnean, hau da, ezkontideak banantzen direlako, lanpostua lekutik aldatzen delako, lehenengo lanpostua lortzen delako, lan hobea lortzen delako edo antzeko beste edozergatik, orduan, etxebizitzak ohiko etxebizitza izaten iraugo du.

Subjektu pasiboa ez bada bizi, erosten diharduen etorkizuneko ohiko egoitzan, aurrerantzean ez da ohiko etxebizitza izango eta kenkariak egin badira, horiek ere galdu egingo dira, baldin eta erosketa edo obren amaiera datatik hamabi hilabete baino gutxiagoko epearen barruan benetan eta iraunkortasunez bizi ez bada. Kargu edo enpleguarengatik, subjektu pasiboak ohiko etxebizitza bat daukanetan, aurreko kasuak ez du lekurik. Orduan, hamabi hilabeteko epea, erosketatik edo obren amaieratik barik, kargu edo enpleguari utzia zaion egunetik zenbatuko da.

Zer den etxebizitzaren birgaikuntza

Ohiko etxebizitza birgaitzeko egindako obratzat honako hauek hartuko dira eta, beraz, kenkari honetarako eskubidea emango dute:

- a) Eusko Jaurlaritzako organo eskudunaren beren beregiko ebazpen batez kalifikazio hori hartu dutenak, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko babespeko jarduketei buruzko uztailaren 17ko 189/1990 Dekretuan ezarritako baldintzak betetzen baitituzte, bai eta abenduaren 29ko 1.932/1991 eta maiatzaren 14ko 726/1993 Errege Dekretuen arabera, babesteko moduko jarduketatzat hartzen direnak ere.
- b) Egitura, fatxada zein gainaldean sendoketa eta tratamendu bidez etxebizitzak berreraikitzeke egindakoak eta beste antzeko batzuk, betiere birgaitzeko eragiketen kostu osoa erosketa prezioaren %25 baino handiagoa denean, aurre-aurreko urte bietan erosi bada, edo, bestela, eraikuntzaren benetako balioa edo birgaikuntza baino lehenagoko eraikuntzaren zatiarena baino handiagoa denean.

Zer den etxebizitza erostea

Etxebizitza erostea beste izango dira etxea zabaldu edo eraikitzeke zergaldian ordaindutako kopuruak; honako hauek dira:

- *Zabalkuntza*: zabalkuntza dago, etxebizitzaren biztanle-gunearen azalera gehitzen denean, bai estali gabeko zatiak itxiz, bai bestelako moduan iraunkortasunez eta urtaro guztietan zehar zabaltzen denean.

- *Eraikuntza*: eraikuntza dago, subjektu pasiboak berak ordaintzen dituen obrak egiteagatik dauden gastuak, edo beraien sustatzaileari kontura ematen dizkionean, baldin eta obra horiek inbertsioa hasten denetik lau urte igaro baino lehen amaitzen badira.

Lau urte igarota baina obrak amaitu ez badira, subjektu pasiboak eskubidea galduko du egin dituen kenkariak egiteko; hortaz, epea bete barik gelditu den ekitaldian sortu den zergaren kuotari gehitu beharko dizkio, alde batera, kendu dituen kopuruak eta, bestera, berandutza korrituak, indarrean dirauen legeriaren arabera. Horri dagokionez, kontuan hartu behar da, epe hori ondoko kasutan luzatu ahal izango dela:

1go.) Sustatzailearen porrota edo ordainketa etendura, biak epaile batek adierazita. Horien ondorioz, sustatzaileak ez baditu eraikuntza obrak amaitzen lau urteko epea igaro baino lehen, edo epe berean ezin baditu etxebizitzak eman, orduan epe hori beste lau urtez luzatuko da. Ezarritako epe-luzatze horrek ondoreak sor ditzan, subjektu pasiboak aitorpena aurkeztu beharko du hasierako epea bete barik gelditu den zergaldiari dagokion zergarengatik; hori ez ezik, aitorpen horri ondokoak erantsi beharko dizkio: etxebizitzan egindako inbertsioak egiaztatzen dituzten frogagiriak, bai eta beste edozein agiri, aipatutako egoeretarik baten bat jazo delako frogatzen duena.

2gn.) Subjektu pasiboari ez dagozkion aparteko beste inguruabarrak, aurrekoak ez direnak, baldin eta obrak gerarazten badituzte. Orduan, subjektu pasiboak Administrazioari eskatu ahal izango dio epea luza dezan. Eskabidea Ogasun eta Finantza Foru Sailera aurkeztu beharko da epea betetzen ez den momentutik ondorengo hogeita hamar egunetan; eskabide horretan ondokoak azaldu beharko dira: alde batetik, epea ez betetzea sortarazi duten zioak; bestetik, eraikuntza obrak amaitzeko beharrezkotzat jotzen den denboraldia; denboraldi horrek, baina, ezin du lau urtekoa baino luzeagoa izan, eta subjektu pasiboak frogagiri egokiak eroan beharko ditu, horri dagokionez.

Honako hauek ez dira inoiz etxebizitzako inbertsioak izango:

- Artapen edota konponketa gastuak, horiek ondasunen erabilera arruntari eusteko egin ohi direnak direla (pintura, entokadura eta antzekoak), ez eta euren funtzionamendu arruntaren ondorioz osagaiak ordeztekoak ere (kalefakzio, igogailu, uren jaitiera, iturgintza eta antzeko konponketak).
- Hobekuntza gastuak, hala nola, altzariak, segurtasun atekak, burdinsare, kontraleiho eta antzekoen ezarketa.
- Garaje, lorategi, parke, igerileku eta kiroldegiak, eta etxebizitza bera ez den beste edozein eranskin erostekoak, baldin eta etxebizitzatik aparte erosiak badira.

Kenkariaren oinarria

Etxebizitza erosi edo birgaitzeko ordaindutako kopuruak osatuko dute oinarria; eta kopuru horien barruan eroslearen pentzuko gastuak egongo dira, korrituak izan ezik.

Kendu ahal den zenbatekoa, berrinbertsioa ohiko etxebizitzan egiten denean

Ohiko etxebizitza erosten denetan, aurreko ohiko etxebizitza zena saldu ondoren, kontuan hartu beharko da, berrinbertsioaren ziozko salbuespena ezartzeagatik zergapetik kanpo gelditu den ondare gehikuntzaren zenbatekoak ezin duela kenkarigai izan.

Ohiko etxebizitza bat erosten bada, eta beste etxebizitza batengatik kenkaria egin bada, orduan kalkulu oinarria, berriaren prezioaren eta aurrekoaren balioaren arteko kendura izango da, haiek kendu diren neurrian.

2. Atal honetan, ondorengo etxebizitzak erosteagatik, zergaldian zehar ordaindutako kopuruen %10 kenduko da:

- Ohiko etxebizitza ez besteak, 1985eko maiatzaren 9tik atzera eta 1988ko urtarrilaren 1a baino lehen erositakoak, %17ko kenkaria izan zutenak, baldin eta oraindik agortu barik badaude.
- Ohiko etxebizitza ez besteak, baldin eta 1990. urtea baino lehen erosi eta aldi hartan %10eko kenkaria izan bazuten (eraiki berri diren etxeak).

Ohiko etxebizitza ez besteak, 1990eko urtarrilaren 1etik atzera erositakoek, ez dute eskubiderik ematen, kenkaririk egiteko.

3. Azkenik eta atal honetan ere, subjektu pasiboek kreditu erakundeetan gordailatzen dituzten kopuruen %15 kenduko da; hori egiteko, beste edozein ezarpen motatetik bereizita dauden kontuetan egon behar dute kopuruok, eta kontu horien saldoak erabili behar dira zergadunaren ohiko etxebizitza erosi edo birgaitzeko bakar-bakarrik. Betekizunak:

- a) Zergadunak ezin izango ditu erabili gordailaturiko kopuruak, ohiko etxebizitza erosi edo birgaitzeko ez bada.
- b) Ohiko etxebizitza erosi, zabaldu edo birgaitu behar da, noiz eta bost urteko epean; epe berean hasi behar da eraikuntza egiteko inbertsioa. Epea, bestalde, kontua zabaltzen den unetik zenbatuko da.
- c) Subjektu pasibo bakoitzeko, etxebizitza kontu bakarrak egon behar du.

Betekizun hauetarik edozein egiten ez bada, egindako kenkarietarako eskubidea galduko da, beraz, subjektu pasiboak, horiek betetzen ez dituen ekitaldiko zergako kuotari, batu beharko dizkio kendutako kopuruak, bai eta indarreko legeriaren arabera dagozkion berandutza korrituak ere.

ZELAN BETE BEHAR DEN PFEZ'1998 INPRIMAKIA

Lerroa: "Helbidea". Etxebizitzaren helbidea adieraziko da, beraien sailkapenaren arabera.

Lerroa: "Probintzia —Udalerrria". Beraietarik bakoitzaren udalerrria eta probintzia agertaraziko dira.

Lerroa: "Etxebizitza erosi/birgaitu den data". Etxebizitzetarik bakoitzaren erosketaren data jarriko da.

Lerroa: "Etxebizitza erosi/birgaitzearen balioa". Etxebizitza bakoitzaren erosketako benetako prezioa edo bestela, birgaitzearena agertaraziko da.

Lerroa: "Diruz ordaindutako kopurua". Etxebizitzak erosteagatik diruz ordaindutako kopurua jarri beharko da.

Lerroa: "Maileguaren zenbatekoa". Etxebizitzak erosteko emandako maileguaren kopuru osoa jarriko da.

Lerroa: "1998ko inbertsioa". [831]. gakoan, ohiko etxebizitza erostearen ziozko kenkariaren oinarria jarriko da, eta [839]. gakoan gainerako etxebizitzen ziozko kenkariarena.

Lerroa: "Kenkariaren zenbatekoa". Kenkarigai diren zenbatekoak jarriko dira. [832]. gakoan, [831]. gakoaren zenbatekoari %15 ezartzetik ateratzen den emaitza adieraziko da; eta [840]. gakoan, berriz, %10eko portzentajea [839]. gakoaren zenbatekoari ezartzetik ateratzen den emaitza.

Lerroa: "Etxebizitza kontua". [841]. gakoan agertaraziko da noiz ireki den etxebizitza kontua. [842]. gakoan agertaraziko da zenbat diru erabili den zergaldian etxebizitza kontu horretan. [843]. gakoan agertaraziko da [842]. gakoan adierazitako zenbatekoari %15eko portzentajea ezartzetik ateratzen den emaitza.

"Etxebizitzan egindako inbertsioa guztira". [844]. gakoa [832], [840] eta [843]. gakoen batura izango da.

KASU PRAKTIKOA

R.R.J. andreak ohiko etxebizitza 1992-VI-4an erosi zuen, 11.000.000 pezetako zenbatekoan. 1998-X-15ean, higiezina 17.000.000 pezetan saldu zuen. Besterentzearen zenbateko osoa berriro inbertitu zuen, ohiko etxebizitza 1998-IX-4an eskuratzeko, 24.000.000 pezetako prezioan. Azken eskuraketa hori finantzatzeko, 5.000.000 pezetako izendatuko mailegua eskatu zuen; mailegutik, 1998. urtean zehar, korritu gisa, 70.000 pezeta ordaindu zituen, eta 10.000 pezeta amortizazio gisa.

Ebazpena

Ohiko etxebizitza besterentzearen zioz sortarazitako ondare gehikuntzaren kalkulua (salbuetsita egongo da berrinbertsioarengatik):

Besterentze balioa = 17.000.000

Erosketa balioa = 11.000.000 x 1,020 = 11.220.000

Δ ondarearena = 17.000.000 - 11.220.000 = 5.780.000

1992-VI-4tik 1996-XII-31rako urteen kopurua = 5

Δ ondare irregular eta txikitua = 5.780.000 - 3 x %11,11 x 5.780.000 = 3.853.526

Ohiko etxebizitzan inbertitzearen zioz gehienez ken daitekeen zenbatekoa = 24.000.000 - 3.853.526 (berrinbertsioaren zioz zergatik kanpo dagoen ondare gehikuntza) = 20.146.474

Maileguaren korrituen zioz gehienez ken daitekeen zenbatekoa (gehienez ken daitekeen maileguaren izendatua) = 24.000.000 - 17.000.000 (berrinbertsioaren zenbatekoa) = 7.000.000

Horrenbestez, ohiko etxebizitzaren eskuraketa finantzatzeko eskatutako mailegua, 5.000.000 pezetako izendatukoa, oso-osorik kendu ahal izango da, korrituak ordaindu eta printzipala amortizatzen joan ahala.

Higiezinen kapitalaren gastuen atalean, etxebizitza eskuratzeko inbertituriko besteren kapitalen korrituen gisa, 1998. urterako, subjektu pasiboak 70.000 pezeta kendu ahal izango ditu.

Kuotatikako kenkariaren atalean, subjektu pasiboak, ohiko etxebizitzan inbertitzearen zioz, 1998. urterako, 10.000 x %15 = 1.500.

KASU PRAKTIKOA

Ramon jaunak 1992-IV-3an ohiko etxebizitza eskuratu zuen, 12.000.000 pezetako zenbatekoan. 1998ko irailaren 20an, higiezin hori eskualdatu zuen 18.500.000 pezetako zenbatekoan. Urriaren 2an, ohiko beste etxebizitza bat eskuratu zuen, 23.500.000 pezetako prezio osoan (gastuak barne), eta ohiko aurreko etxebizitza eskualdatueran lorturiko zenbateko oso berriz inbertitu du horretan. Ohiko etxebizitza berria finantzatzeko, mailegua eskatu dio banketxe bati, 6.000.000 pezetako zenbatekoan, eta horren zioz, 1998. urtean, 60.000 pezeta ordaindu ditu, korrituen gisa, bai eta 30.000 pezeta, printzipala amortizatzeagatik.

Ebazpena

Ohiko etxebizitza besterentzearen zioz sortutako ondare gehikuntzaren kalkulua:

Besterentze balioa: 18.500.000

Besterentze balioa, eguneraturikoa: $12.000.000 \times 1,020 = 12.240.000$

Ondare gehikuntza: $18.500.000 - 12.240.000 = 6.260.000$

1992-IV-3tik 1996-XII-31rako urteen kopurua=5 urte

Ondare gehikuntza irregular eta txikitua: $6.260.000 - 3 \times \%11,11 (6.260.000) = 4.173.542$

Berrinbertsioa: 18.500.000

Gehikuntza irregular eta garbia: 0, berrinbertsioa osoa da eta.

Ohiko etxebizitzan inbertitzearen ondorioz gehienez ken daitekeen zenbatekoa (kuota)
 $23.500.000 - 4.173.542$ (zergapean ez dagoen ondare gehikuntza) = 19.326.458

Beraz, maileguaren amortizazioa oso-osorik kendu ahal izango da.

Maileguaren korrituen zioz gehienez ken daitekeen zenbatekoa: $23.500.000 - 18.500.000$
(berrinbertsioaren zenbatekoa) = 5.000.000

Eskatu den mailegua 6.000.000 pezetakoa denez gero, 1998an eta ondorengo ekitaldietan, korrituen zioz kendu behar den kopurua ehuneko 83,33koa izango da.

Higiezinaren kapitalaren ziozko gastuen atalean:

$60.000 \times \%83,33 = 49.999$

Kuotatikako kenkarien atalean:

$30.000 \times \%15 = 4.500$

KULTUR INTERESEKO ONDASUNAK

%15eko kenkarirako eskubidea ematen dutenak honako hauek dira:

- a) Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeko 14. artikuluan eta Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legeko 69.2. artikuluan xedatutakoaren arabera, Kultur Ondasun Kalifikatuen Erregistroan edo Kultur Intereseko Ondasunen Erregistro Orokorrean inskribatuta dauden ondasunen erosketan inbertitutako kopuruak, baldin eta ondasunak, gutxienez, hiru urteko epealdian zehar titularraren ondarean iraun eta eskualdaketa berri aipaturiko erregistroei emateko beharra betetzen bada.

- b) Aipaturiko ondasunak artatu, konpondu, zaharberritu, hedatu eta erakusteko gastuen zioz ordaindutako zenbatekoa: betiere, ondasunek, gutxienez, hiru urteko epealdian zehar titularraren eskutan irauten dutenean eta, gainera, zerga honetan, zerga oinarria zehazteko, gastu horiek ezin kendu izan direnean. Kenkari hau egiteko, ez da gidaliburu honetako 189. orrialdean dagoen ondare gehikuntzaren betekizuna bete beharko.

854. laukitxoa = inbertsioaren zenbatekoa x %15.

LEHENTASUNeko JARDUERA ETA EGITARAUAK [9/95 FA-KO 33. ART.KO BAT C)]

Zergaren subjektu pasiboek kuota osotik kendu ahal izango dute lehentasunezkotzat aldarrikatutako jarduera edo egitarauetarako erabilitako kopuruaren 100eko 15, enpresa edo lanbide jardueretan aritzen diren subjektu pasiboak direnean, publizitateko babes-kontratuen bitartez ordaindutako kopuruak ere barne direla.

7/1998 Foru Dekretuak 9/1995 Foru Arauaren 33. artikulua garatu zuen, bada, dekretu horren arabera, ondokoak lehentasuneko jarduera edo egitarauak direlako adierazpena jasotzeko modukoak dira:

a) Kirol eremuan:

- Bizkaiko Lurralde Historikoko herri administrazioek eskola kirolen eremuan antolatutako edo sustatutako jarduerak.
- Bizkaiko Lurralde Historikoaren eta lurraldeko udalerrien izena zabaltzen laguntzen duten kirol talde eta kirol ekitaldi edo agerpenei zuzendutako kopuruak.
- 1997-1998ko denboraldiko lehiaketa ofizialen egitarauak.
- Gazteriaren eremuan, haur eta gazte astialdiko hezitzaileen trebakuntza eskolek emandako haur eta gazte astialdiko hezkuntza jardueretako bigirale eta zuzendariak trebatzeko ikastaroak.

b) Ondare eta kulturaren eremuan, kultur ondasun legez kalifikatutako ondasun higiezinak kontserbatu, zaharberritu eta hobetzeko obren burutzapena.

c) Kultura zabaltzeko eremuan:

- Bilboko Orkestra Sinfonikoaren (BOSen) kontzertu denboraldia.
- Getxoko Nazioarteko Folk eta Jazz Jaialdiak.
- Portugaleteko Nazioarteko Folklore Jaialdia.
- ABAOk antolatutako Bilboko Opera Denboraldia.
- Bilboko Zine Dokumental eta Laburmetrajeen Nazioarteko Jaialdia.
- Durangoko Euskal Liburu eta Diskoen Azoka.
- Balmasedako "Gurutze Bide bizia".

Kenkari honetaz baliatu ahal izateko, subjektu pasiboak, zerga aitortpenarekin batera, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko du, bertan, kenkariaren gai diren kopuruak erabili dituzten jarduera edo

egitarauak ekitaldi horretarako, gazte, kirol, eta ondare eta kulturaren eremuetan lehentasunekatuz aldarrikatutakoen artean daudela egiaztatu behar dela.

EMARI EDO DONATIBOAK

Kenkariaren kasuak eta zenbatekoa.

1. *“Emariak, %10eko kenkaria ezarriko dutenak”.*

%10, legez aintzatetsita dauden fundazioentzako emariena, baldin eta fundaziook eskudun babesgo organoari kontuak ematen badizkiote, eta herri onurakotzat adierazi baina %20ko kenkaria ez duten elkarteentzako emariena.

2. *“Emariak, %20ko kenkaria ezarriko dutenak”.*

Atal honetan, fundazioentzako emariak jarriko dira, baldin eta fundaziook abenduaren 5eko 9/1995 Foru Arauaren eta azaroaren 24ko 30/1994 Legearen betekizunak betetzen badituzte, hau da:

- a) Euskal Kultur Ondareko eta Espainiako Ondare Historikoko ondasunen dohaintza huts eta soilen %20.
- b) Bermaturik dagoen kalitatezko artelanen dohaintza huts eta soilen %20; beraien jasotzaileek, berriz, ondokoak izan behar dute: helburuen artean, museo-jarduerak, eta gure arte ondarea suspertu eta hedatzeaz gainera, artelanok jendaurreko erakusketetan jartzeko konpromisoa harturik dutenak.
- c) Erakunde dohaintza-hartzailearen aktibo materialekoak izan behar duten ondasunen dohaintza huts eta soilen %20, baldin eta ondasunak lagungarri badira, gizarte laguntza, hiritargintza, hezkuntza, kulturarako edo interes orokorreko beste edozein xedetarako egiten diren jardueretan.
- d) Dohaintzan emandako kopuruen %20, baldin eta aurreko atalean aipatu, edota Euskal Kultur Ondareko eta Espainiako Ondare Historikoko ondasunak artatu, konpondu eta zaharberritzeko erakunde dohaintza-hartzaileak egiten dituen jardueretarako badira.

Kenkaria egin ahal izango da, baldin eta emarien zenbatekoaren onuradunak ondokoak badira:

- Erregistro egokian inskribaturik dauden fundazioak eta herri onurako adierazpena duten elkarteak, baldin eta abenduaren 5eko 9/1995 Foru Arauan eta azaroaren 24ko 30/1994 Legean ezarritako betekizunak badituzte.
- Bizkaiko Foru Aldundia, estatua, autonomi erkidegoak, beste foru aldundi batzuk, toki erakundeak, unibertsitateak eta beraiek atxikita dituzten irakastegiak, ikerkuntzarako herri erakundeak, “Instituto Nacional de Artes Escénicas y de la Música”, Izadiaren Erakunde Nazionala eta autonomi erkidegoek dituzten antzeko erakundeak.

- Arau bidez ezartzen diren herri izaiki eta Administrazioaren autonomiadun erakundeak.
- Eliza Katolikoa eta espainiar estatuarekin lankidetzak akordioak sinaturik dituzten eliza, konfesio eta erlijio-erkidegoak.
- Gurutze Gorria.
- Pertsona Minusbaliatuentzako Aurreneurrien eta Beraientzako Arretarako Errege Patronatua.
- Euskaltzaindia, Sociedad de Estudios Vascos—Eusko Ikaskuntza, Espainiako Institutua eta bertan sartutako errege akademia ofizialak, berezko hizkuntza ofiziala duten autonomi erkidegoetan "Real Academia Española"ren helburuak bezalatsukoak dituzten erakundeak.
- "ONCE".

3. "Emariak, %25eko kenkaria ezarriko dutenak".

Mezenasgoaren lehentasuneko jarduera eta egitarauak

- a) %25, emariak, baldin eta onuradunak fundazio inskribatuak, herri onurako elkarteak, herri unibertsitateak etab. badira, eta ondoko jarduera eta egitarauak egin nahi badituzte:
 - Espainiako Ondare Historikoko ondasunak artatu, zaharberritu edota birgaitzea.
 - Hirugarren Munduari laguntza emateko proiektuak.
- b) "Instituto Cervantes"i dohaintzan emandako kopuruen %25, bai eta hizkuntza ofizial berezia duten autonomi erkidegoetan antzeko xedeak dituzten erakundeek dohaintzan emandako kopuruen %25, betiere, espainiar hizkuntza eta lurralde ezberdinetako hizkuntza ofizialak sare telematikoez eta teknologia berriez sustatu eta hedatzeko.

Kenkaria egin ahal izango da, baldin eta dohaintzapeko kopuruen hartzaileak ondoko erakundeak badira:

- a) Erregistro egokian inskribaturik dauden fundazioak eta herri onurako adierazpena duten elkarteak, baldin eta azaroaren 24ko 30/1994 Legearen ezarpen eremuaren barruan badaude.
- b) Estatua, autonomi erkidegoak, toki korporazioak, herri unibertsitateak eta beraiek atxikita dituzten ikastetxe nagusiak, ikerkuntzarako herri erakundeak, "Instituto Nacional de Artes Escénicas y de la Música", ICONA, eta autonomi erkidegoetan haren antzekoak diren erakundeak.
- c) Arau bidez ezartzen diren herri izaiki eta Administrazioaren autonomiadun erakundeak.
- d) Eliza Katolikoa eta espainiar estatuarekin lankidetzak akordioak sinaturik dituzten eliza, konfesio eta erlijio-erkidegoak.
- e) Espainiako Institutua eta bertan sartutako errege akademia ofizialak, berezko hizkuntza ofiziala duten autonomi erkidegoetan "Real Academia Española"ren helburuak bezalatsukoak dituzten erakundeak.

- f) Espainiako Gurutze Gorria.
- g) Pertsona Minusbaliatuentzako Aurreneurrien eta Beraienezako Arretarako Errege Patronatua.
- h) "ONCE".

[875]. laukitxoa = Emariko kopuruak x %25.

ZENBAIT KENKARIEN MUGAK

Bizitza aseguruaren primak, Inbertsioa etxebizitzan, Inbertsioa kultur intereseko ondasunetan eta Lehentasuneko jarduera eta egitarauak eta Emari edo donatiboak ataletan dauden kenkariaren oinarriak ezin du subjektu pasiboak likidatuko duen oinarriaren %30etik gorakoa izan

Gainera, *Inbertsioa etxebizitzan* atalean dauden kenkariak ezartzeko, beharrezkoa izango da subjektu pasiboari egiaztatzen zaion zenbatekoa handiagoa izatea, zergaldia amaitzean, zergaldiaren hasieran egiaztatutako balioa baino, gutxienez, egindako inbertsioen zenbatekoan. Horri dagokionez, ez dira kontuan hartuko ondasunek zergaldian zehar izandako balio gehikuntzak edota urripenak, baldin eta ondasunok zergaldiaren amaieran zergadunaren ondarekoak izaten badiraute.

INBERTSIOA JARDUERETAN (ZZ) EDOTA INBERTSIOA ZERGA-GARDENTASUNEN SOZIALTATEETAN

Zer diren

Enpresa, lanbide edo arte jarduerak egiten dituzten subjektu pasiboak, atal honetan, inbertsioak jarriko dituzte, Sozietateen gaineko Zergan pizgarriak edo bultzagarriak dituztenean; edozelan ere, zerga horretan ezarritako kenkariaren tasa eta mugak zainduko dira. Pizgarri hauek ez zaizkie ezarritako enpresario edota profesionalen, baldin eta horiek euren jardueren etekin garbia zenbatespen objektiboaren sistemaz zehazten badute.

Atal honetan, zerga-gardentasunaren araubideko sozietateetako bazkideei egotzi behar zaizkien inbertsioen ziozko kenkariak ere jarriko dira.

Inprimakiaren 7. orrian dagoen laukiak, kenkari honi dagokionez, sailkapen bat egiten du kenkari eskubidea eman dezaketin inbertsio motekin:

A) Aurreko ekitaldietakoak:

Atal honetan adieraziko da zein den aurreko ekitaldietako arautegia, subjektu pasiboak erabiliko duena alegia; hori ez ezik, ekitaldia eta erabiliko duen arautegia zehaztu beharko ditu. Kenkariak sartu ahal izango dira, 1993, 1994, 1995, 1996 eta 1997. urteetan egindako inbertsioengatik. Talde honetan, berriz, kenkarietan bi mota bereizten dira:

- a) Kuotaren gainean muga dutenak.

b) Kuotaren gainean mugarik ez dutenak.

B) 1998ko ekitaldikoak:

Ekitaldi honetan zehar egindako inbertsioek bete beharko dute Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauak ezarritakoa. Talde honetan bi kenkari mota daude:

a) Kenkariak, kuotaren gainean 100eko 40ko muga orokorra dutenak.

Kuota = Kuota osoa - (famili kenkariak + gaixotasun gastuen ziozko kenkaria + norberaren gastuen ziozko kenkariak + bizitza aseguruaren primen ziozko kenkaria + etxebizitzan egindako inbertsioaren ziozko kenkaria + kultur intereseko ondasunetan egindako inbertsioaren ziozko kenkaria + lehentasunekatuz aldarrikatutako jarduera eta egitarauen ziozko kenkaria).

Modalitatea	Portzentajea
- Inbertsioak esportazio jardueretan	%25
- Inbertsioak aktibo finko, material eta berrietan (IAFMB). Lurrak ez dira horretakotzat hartuko - Inbertsioak finantza errentamendua- ren araubidean. Eraikinak izan ezik - Inbertsioak informatikako erabile- retan - Eskualdatzeko, birgaitu diren in- dustri pabiloien eskuraketa - Birgaitzeko, industri pabiloien es- kuraketa - Industri pabiloien birgaikuntza - Inbertsioak ingurugiroa zaindu eta hobetzeko jardueretan eta energia aurreztekoetan	%15
- Inbertsioak aktibo finko, material eta berrietan (IAFMB). Lurrak ez dira horretakotzat hartuko - Inbertsioak finantza errentamendua- ren araubidean. Eraikinak izan ezik - Inbertsioak informatikako erabile- retan - Eskualdatzeko, birgaitu diren in- dustri pabiloien eskuraketa - Birgaitzeko, industri pabiloien es- kuraketa - Industri pabiloien birgaikuntza - Ekoizpen inbertsioetarako erre- serba + - %5eko gehikuntza lan-kontratu mugagabea duen batez besteko plantilan Betekizuna: gehikuntzari hiru ur- tetan eutsi behar zaio	%20

Modalitatea	Portzentajea
- Ekoizpen inbertsioetarako erreserba eta zuzkidura egiten den ekitaldian lan-kontratu mugagabea zuen batez besteko plantilari 3 urtetan eustea.	%15
- Inbertsioak espainiar zinematografiako zein ikus-entzunezko ekoizpenetan - Ekoizpen inbertsioetarako erreserba	%10
- Inbertsioak liburuaren argitalpean	%5
- Ikerketa eta garapeneko jarduerak (I+G)	<p>Baldin</p> $\frac{\sum (I+G) 1996ko urtekoa + \sum (I+G) 1997ko urtekoa}{2} \geq \sum (I+G) 1998ko urtekoa$ <p>Kenkaria: %30 x $\sum (I+G) 1998ko urtekoa$</p> $\frac{\sum (I+G) 1996ko urtekoa + \sum (I+G) 1997ko urtekoa}{2} < \sum (I+G) 1998ko urtekoa$ <p>Kenkaria:</p> $\%30 \times \sum (I+G) 1998ko urtekoa + \%20 \times [\sum (I+G) 1998ko urtekoa - \frac{\sum (I+G) 1996ko urtekoa + \sum (I+G) 1997ko urtekoa}{2}]$

b) Kenkariak kuota gaineko mugarik gabe (%100 kuotaren gainean)

Kuota = Kuota osoa - (famili kenkariak + gaixotasun gastuen ziozko kenkaria + norberaren gastuen ziozko kenkariak + bitzta aseguruaren primen ziozko kenkaria + inbertsioak etxebizitzan egitearen ziozko kenkaria + inbertsioa kultur intereseko ondasunetan egitearen ziozko kenkaria + lehentasuneko jarduerak eta egitarauaren ziozko kenkaria)

Modalitatea	Portzentajea edo kopurua
- Lana sortzea, lan-kontratu mugagabearekin Betekizuna: gehikuntzari eutsi beharko zaio, kenkarirako eskubidea sortu zen ekitaldia itxi zen dataren ondorengo bi urtetan zehar	- 600.000 pezeta, pertsona eta urteko, lan-kontratu mugagabedun plantilaren batez bestekoaren gehikuntzagatik, aurreko ekitaldiari dagokiolarik ($\Delta PB1$) Kenkaria = $\Delta PB1 \times 600.000$
	<p>↑</p> <p>Batera egin ezin daitezkeen kenkariak</p> <p>↓</p>

Modalitatea	Portzentajea edo kopurua
<p>Gutxienez, lanaren denbora %10ean laburtuko da eta, aldi berean, plantila %10 gehituko da Betekizuna: konpromisoa hartu beharko da lan denboraren laburpenari eta plantilari hiru urtetan eusteko</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Amortizazio askatasuna - %35: • Inbertsioa aktibo finko, material eta berrietan • Inbertsioak finantza errentamenduaren araubidean • Inbertsioak informatikako erabileretan • Industri pabiloien eskuraketa, beraiek birgaitzeko • Birgaitu diren industri pabiloien eskuraketa, beraiek eskualdatzeko • Industri pabiloien birgaikuntza - 750.000 pezeta, pertsona eta urteko, lan-kontratu mugagabedun plantilaren batez bestekoaren gehikuntzagaratik, aurreko ekitaldiari dagokiolarik ($\Delta PB2$) Kenkaria = $\Delta PB2 \times 750.000$
<p>- Lanaren sorkuntza, lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten taldeetako pertsoneri dagokiolarik</p>	<p>a) 1.100.000 pezeta, pertsona eta urteko, lan-kontratu mugagabedun plantilaren batez bestekoaren gehikuntzagaratik, aurreko ekitaldiari dagokiolarik ($\Delta PB3$) Kenkaria = $\Delta PP3 \times 1.100.000$</p> <p>b) Lanaren denbora, gutxienez, %10 laburtzen bada eta plantilaren gehikuntza %10ekoa bada, orduan, kenkaria 1.250.000 pezetakoa izango da, pertsona eta urteko, lan-kontratu mugagabedun plantilaren batez bestekoaren gehikuntzagaratik, aurreko ekitaldiari dagokiolarik ($\Delta PB4$) Kenkaria = $\Delta PB4 \times 1.250.000$</p>
<p>- Lanaren sorkuntza, lan-kontratu mugagabearekin; eta lanaren sorkuntza, lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten taldeetako pertsoneri dagokiolarik</p>	<p>a) Kenkaria = $\Delta PB1 \times 600.000 + \Delta PB3 \times 1.100.000$</p> <p>b) Lanaren denbora %10 baino gutxiago laburtzen bada, eta plantilaren gehikuntza %10ekoa bada Kenkaria = $\Delta PB2 \times 750.000 + \Delta PB4 \times 1.250.000$</p>
<p>- Lanbide prestakuntzarako gastuak (LPG)</p>	<p>Baldin</p> $\frac{\sum \text{LPG } 1996\text{ko urtekoa} + \sum \text{LPG } 1997\text{ko urtekoa}}{2} \geq$ <p>$\sum \text{GFP } 1998\text{ko urtekoa}$</p> <p>Kenkaria: $\%10 \times \sum \text{LPG } 1998\text{ko urtekoa}$</p> <p>Baldin</p> $\frac{\sum \text{LPG } 1996\text{ko urtekoa} + \sum \text{LPG } 1997\text{ko urtekoa}}{2} <$ <p>$\sum \text{LPG } 1998\text{ko urtekoa}$</p> <p>Kenkaria =</p> $\%10 \times \sum \text{LPG } 1998\text{ko urtekoa} + \%15 \times \left[\frac{\sum \text{LPG } 1996\text{ko urtekoa} + \sum \text{LPG } 1997\text{ko urtekoa}}{2} \right]$

Ezartzeko mugak eta hurrenkera

Jardueretako inbertsioaren ziozko kenkariaren hurrenkera eta mugak jarraian ezarriko dira:

1. Aurreko araubideetako kenkariak ezarriko dira, baldin eta muga badute kuotaren gainean, baina beraien arautegietan ezarritako muga zainduko da.
2. Kenkariak zenbatuko dira; eta ondorik 1998. urteko kuotak ezarri ahal izango dira, baldin eta beraiek muga badute kuotaren gainean; hala ere, ezin da gainditu kuotaren gaineko %40ko baterako muga.
3. Jarraian, kuotaren gainean mugarik ez duten kenkariak ezarriko dira; kenkariok aurreko ekitaldietakoak izan behar dute.
4. Azkenik, kuotaren gainean mugarik ez duten baina 1998ko ekitaldietatik datozen kenkariak ezarriko dira.

1998. urteko kenkariak, kuota nahikoa ez izateagatik egin ez baitziren, ondorengo zergaldietan zehar egin ahal izango dira; zergaldiok segidako bost urteetan amaituko dira, salbu eta esportazio jardueren ziozko kenkariari dagokiona, hori egin ahal izango baita segidako ondorengo lau urteetan.

Zelan bete behar den PFEZ'1998 inprimakia

1. Aurreko ekitaldien atala

"Araubidea"ren zutabeko M laukitxoa. 1998an erabili diren kenkariak arautzen dituen araubidea jarriko da, baldin eta kenkariok aurreko ekitaldietakoak izan eta muga badute kuotaren gainean.

"Araubidea"ren zutabeko MG laukitxoa. 1998an erabili diren kenkariak arautzen dituen araubidea jarriko da, baldin eta kenkariok aurreko ekitaldietakoak izan eta mugarik ez badute kuotaren gainean.

Zutabea: "Aurreko ekitaldietatik dagoen saldoa". Zutabe honetako laukitxoetan, aurreko ekitaldietatik etorri baina ezartzeko dagoen kenkariaren saldo jarri behar da.

Zutabea: "%". Kenkariaren portzentajea jarriko da.

Zutabea: "Kuotaren muga (%)". Kenkariak kuotaren gainean duen muga jarriko da, portzentaje gisa adierazita.

Zutabea: "Ekitaldi honetan ezarria". Ekitaldi honetan ezarri den kenkariaren zenbatekoa jarriko da.

Zutabea: "Ondorengo ekitaldietarako dagoen saldoa". Ondorengo ekitaldietan egiteko utzi den kenkariaren saldoa agertuko da.

Ondorengo ekitaldietarako dagoen saldoa = Aurreko ekitaldietatik dagoen saldoa - Ekitaldi honetan ezarria.

2. 1998ko inbertsioak: aktibo finko berriak eta beste batzuk.

Zutabea: "Inbertsioaren zenbatekoa". Egindako eta ken litekeen inbertsioaren zenbateko osoa jarriko da.

Zutabea: "%". Egindako inbertsioaren zioz ken litekeen portzentajea jarriko da; izan ere, ken litekeen portzentajea da.

Zutabea: "Kenkariaren zenbatekoa". Inbertsioen eta enplegu sorkuntzaren kenkariaren zenbateko osoa jarriko da.

Zutabea: "Kuotaren muga (%)" . Kenkariak kuotaren gainean duen muga jarriko da, portzentaje gisa adierazita.

Zutabea: "Ekitaldi honetan ezarria" . Ekitaldi honetan ezarri den kenkariaren zenbatekoa jarriko da.

Zutabea: "Ondorengo ekitaldietarako dagoen saldoa" . Ondorengo ekitaldietan egiteko utzi den kenkariaren saldoa gertuko da.

Ondorengo ekitaldietarako dagoen saldoa = Kenkariaren zenbatekoa - Ekitaldi honetan ezarria

[915]. laukitxoa = [886]. laukitxoa + [889]. laukitxoa + [892]. laukitxoa + [895]. laukitxoa + [899]. laukitxoa + [903]. laukitxoa + [907]. laukitxoa + [910]. laukitxoa + [913]. laukitxoa

GAINERAKO KENKARIAK

HIRI-LURREN BALIOAREN GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGAKO KUOTAREN %75

[922]. gakoan, Hiri-lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergako kuotarengatik, zergaldian ordaindutako zenbatekoaren %75 jarriko da, baldin eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren menpean benetan dagoen ondare gehikuntza batetik badator.

CEUTA ETA MELILLAKO ETEKINAK

[923]. gakoan, egoitza Ceuta, Melilla edota euren dependentzietan duten erakunde juridikoen baloreetatik datozen etekinei edota ondare gehikuntzei dagokien kuota osotik, [729] ala [759]. gakoetatik, proportzioaren arabera, dagokion zatia-
ren %50 jarriko da. Likidatuko den oinarri positiboa dagoenean bakarrik, egin ahal izango da kenkari hau.

NORBERAK EGIN DITZAKEEN ATXIKIPENAK

[924]. gakoan, salbuespenik izateagatik, subjektu pasiboak benetan egin ez dituen eta, beraz, kontura sarrerarik egin ez duelako, ezin itzul daitezkeen atxikipenen zatia jarriko da.

Horrela gertatzen da, Kapitalaren Errenten gaineko antzinako Zergan %95eko hobariaren salbuespena zuten sozietateek ordaindutako higikorren kapitalaren etekinak direnean, sozietate horiek aldi baterako oraindik badaukate araubide bat, zeinek etekinen gainean %1,2ko atxikipena egitea baitakar (Kapitalaren Errenten gaineko antzinako Zergako %24ko tasa, %95ean salbuetsita), ken daitekeen atxikipena %24koa izango da. Subjektu pasiboari benetan egindako atxikipena %1,2koa denez, eta higikorren kapitalaren atxikipenei dagokien 80. gakoan kenduko denez, "norberak egin dezakeen" atxikipena itzuli behar ez den kenkari eskubidepeko %24ren eta gorako %1,2ren arteko kendura izango.

Atxikipen eraginkorra = $0,05 \times 0,24 = 0,012 \Rightarrow$ Atxikipen eraginkorra = $0,012 \times 100 = \%1,2$

Norberak egin ditzakeen atxikipenak = $0,95 \times 0,24 = 0,228 \Rightarrow$ Norberak egin ditzakeen atxikipenak = $0,228 \times 100 = \%22,8$

LAN ETEKINAK

Subjektu pasiboek kenkari hau egiteko eskubidea izango dute, baldin eta norberaren lanaren etekinak hartzen badituzte, eta hartzeagatik beragatik bakarrik dute eskubide hori. Hau da, kenkari hau egiteko, nahikoa da aitopenaren A atala bete behar izatea edo F atala, azken kasu honetan, errenta irregularren jatorria norberaren lana izan bada.

Kenkari honen zenbatekoa zehazteko, gauza bi hartuko dira kontuan: 1) norberaren lanaren etekin garbien euren zenbatekoa, eta 2) gainerako etekin garbien zenbatekoa.

- a) Subjektu pasiboaren norberaren lanaren etekin garbiak 1.971.000 pezeta edo gutxiagokoak badira, eta gainerako etekin garbiak, besteren menpeko lanekoak ez direnak, 2.000.000 pezeta baino gutxiagokoak badira, honako kenkari hau egingo da:

Lehenengo kasua:

Norberaren lanaren etekin garbiak 1.071.000 pezeta edo gutxiagokoak badira, kenkaria 72.000 pezetakoa izango da.

Bigarren kasua:

Norberaren lanaren etekin garbiak 1.071.001 eta 1.971.000 pezetan bitartean badaude, kenkaria ondorengo formula erabiltzetik ateratzen den emaitza izango da:

$K = 72.000 - [(NLEG - 1.071.000) \times 0,05]$, bertan:

K: egin behar den kenkariaren zenbatekoa dela.

NLEG: norberaren lanaren etekin garbiak direla.

- b) Subjektu pasiboak betetzen ez baditu aurreko a) letran adierazitakoaren arabera kenkaria egiteko betekizunak, orduan, 27.000 pezetako kopurua kenduko da.

Kenkari honen zenbatekoak ezin izango du ondokoa gainditu: zergaren menpean benetan dauden lan etekin garbiei kargaren batez besteko tasa (703. ga-

koa) ezartzetik ateratzen den emaitza, betiere, etekin horiek zergaren subjektu pasiboan arabera banan-banan kalkulatu dira.

c) *Zerga batera aurkeztea aukeratzen denean*, kenkaria honako emaitza hau izango da: 27.000 pezeta famili unitatearen barruko norberaren lanaren etekinen hartzaileen kopuruaz biderkatetik ateratzen dena.

Kenkari honen zenbatekoa ezin izango du ondokoa gainditu: zergaren menpean benetan dauden lan etekin garbi guztiei kargaren batez besteko tasa (733). gako) ezartzetik ateratzen den emaitza (61). gako).

925). gakoan, honengatik egin daitekeen kenkariaren zenbatekoa jarriko da.

ADIBIDEA

Leonor andrearen eta Vicente jaunaren arteko ezkontzak, 1998. urtean zehar, norberaren lanaren etekin garbi hauek lortu dituzte besteren kontura:

Leonor andrearen lanaren etekin garbiak = 695.000 Pta.
Vicente jaunaren lanaren etekin garbiak = 3.500.000 Pta.

- Aitorpena batera aurkezteko aukera egin badute eta kargaren batez besteko tasa %19,15ekoa bada, orduan zein izango litzateke kuotan, lan etekin zioz, egin dezakeen kenkaria?

Ebazpena

Leonor andrearen kenkaria: 27.000 Pta.
Vicente jaunaren kenkaria: 27.000 Pta.

- Zerga nork berea aitortzeko aukeratzen badu, orduan Vicente jaunaren karga tasa %20,97koa da; Leonor andrearena, berriz, %5,52koa. Beraietarik bakoitzak zein kenkari egingo luke lan etekinengatik?

Ebazpena

Leonor andrea:

72.000 pezeta; muga izango litzateke, zein eta kargaren batez besteko tasa norberaren lanaren etekin garbiei ezartzetik ateratzen dena izango da: $695.000 \times \%5,52 = 38.364$
Kenkaria: 38.364 Pta.
Vicente jauna:
Kenkaria: 27.000 Pta.

Orain arteko kenkariak guztira

926). gakoan ondoko gakoan batura jarriko da: 776, 778, 779, 780, 791, 796, 799, 800, 814, 819, 844, 854, 864, 871, 873, 875, 915, 922, 923, 924, 925).

SOZIJETATEEN DIBIDENDUAK

PKenkari hau ezartzeko, ikus jarraibideen gidaliburu honetako III. kapituluaren lauki erantsia, higikorren kapitalaren etekinei dagokiena. Inprimaki arruntaren 933). gakoan edo inprimaki erraztuaren 931). gakoan, zenbateko bat jarriko da;

zenbateko hori, berriz, honelaxe lortuko da: kasuan-kasuan dagoen portzenta-jea ezarriko zaio subjektu pasiboak zergaldian zehar hartutako dibidenduen zenbateko osoari. Eta emaitza hori jarriko da.

Honako hauek hartuko dira dibidendutzat kenkari hauek egin ahal izateko bakarririk: batzetara joateagatik primak eta, oro har, subjektu pasiboak jasotzen dituen hartukizun guztiak, baldin eta azkenok badatoz hark edozein erakunderen beraren fondoetan duen partaidetzatik, esangura hertsian dibidenduak izan barik.

Kenkaria egin ahal izateko, honako hauek behar dira:

- a) Dibidenduak banatuak dituen sozietatearen egoitza espainiar lurraldean izatea, eta
- b) Mozkina banatua duen sozietateak, Sozietateen gaineko Zergan, ez hobari, ez gutxipen barik, zerga ordaindu izana.

Honi dagokionez, honako hauek ez dira gutxipen edo hobaritzat hartuko:

- Sozietate ordaintzaileak atzerrian ordainduak dituen zergen zioz, kuotatik egin beharreko kenkariak.
- Lurraldearen zioz, araubide berezietatik bakarrik etortzen diren kenkariak.
- Sozietateen gaineko Zergan ezarritako inbertsio eta enplegurako pizgarrien araubidetik etortzen direnak.
- Errentak atzerrian lortzen dituzten sozietateen mozkinen zatia, nazioartean zergapean bi bider ez jartzeko dauden hitzarmenetan ezarritakoaren arabera, errenta horiek Zergatik salbuetsi behar direnean.

Kasu bereziak:

- *Sozietateak desagiten direnean*, kenkari hau egiteko, mozkin banatugabeei dagokien Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren menpean benetan dagoen sozietatearen likidazioaren kuotaren zatia hartuko da dibidendutzat eta, beraz, atal honetan ezarritako kenkaria izango du.

- *Sozietate gardenak*. Sozietate garden batek subjektu pasiboari egotzi dion zerga oinarritik, hark hartutako dibidenduei dagokien zatiak kenkari honetarako eskubidea emango du, baldin eta ordaintzaileak Sozietateen gaineko Zergan hobari edo gutxipenik gabe zerga ordaindu duten sozietateak badira.

Oharra: zerga-gardentasunaren araubideko sozietateek ematen dituzten dibidenduak direnean, kenkariaren oinarria kalkulatzeko gidaliburu honen 125. orrian ezarritakoa hartuko da kontuan.

Behar den beste kuota oso ez egoteagatik kendu gabe gelditzen diren kopuruak ondorengo bost urteetan kendu ahal izango dira.

Zelan beteko den PFEZ'1998 inprimakia

1. "Kenkariaren zenbatekoa"ren atala.

"Kenkariaren zenbatekoa"ren zutabeko [927] eta [930]. laukitxoetan, aurreko ata-

lean ezarritako erregelak ezarriaz dibidenduen zioz ateratzen den kenkariaren zenbateko osoa jarriko da.

2. "Ekitaldi honetan ezarria"ren atala

[928] eta [931]. laukitxoetan, "Ekitaldi honetan ezarria"n, araubide bakoitzeko dibidenduen ziozko kenkariaren zenbatekoa jarriko da, ondoko muga duelarik: Kuota osoa – Orain arteko kenkariak.

[928]. laukitxoa + [931]. laukitxoa = [729]. laukitxoa edo [759]. laukitxoa – [926]. laukitxoa.

3. "Ondorengo ekitaldietarako saldoa"

"Ondorengo ekitaldietarako saldoa"ren zutabeko [929] eta [932]. laukitxoetan, ondorengo ekitaldietan ezartzeko dagoen kenkariaren saldoa ageriko da.

Ondorengo ekitaldietarako saldoa = Kenkariaren zenbatekoa – Ekitaldi honetan ezarria.

"Sozietateen dibidenduen ziozko kenkariak guztira"

[933]. gakoan jarriko da kenkariaren zenbateko osoa, eta [928] eta [931]. gakoetako zenbatekoen batura izango da.

Adibidea

R.B. andreak 1998ko ekitaldian zehar dibidendu eta partaidetza batzuk jaso ditu, erakunde batzuen mozkinetatik:

Jatorria	Zenbateko osoa
"S" banku espainiarraren akzioetatik	175.000
"N" kooperatiba bereziki babestuen kooperatiba-itzulkinak	85.000
"R" higikorretako inbertsioko sozietatearen akzioetatik	150.000

Zenbateko gordinaren gainean ehuneko 25eko kenkaria egin da.

PFEZ'1998ko aitortenaren kuota osoa 175.000 pezetakoa da. Egin diren kenkariaren zenbateko osoa, berriz, 135.000 pezetakoa da, baina kenkari horietatik kanpo gelditu da dibidenduen ziozko kenkaria.

Ebazpena

Jatorria	Jasotako zenbateko osoa	Zenbatuko den zenbateko osoa	Portzentajea	Kenkaria
"S" bankuaren dibidenduak	175.000	245.000	%40	70.000
"N" kooperatibaren itzulkinak	85.000	85.000	%5	4.250
"R" sozietatearen dibidenduak	150.000	150.000	%0	0

Kenkariaren zenbateko osoa	Ekitaldi honetan ezarria (*)	Ondorengo ekitaldietarako saldoa
74.250	40.000	34.250

(*) "Ekitaldi honetan ezarria"ren atalean, dibidenduen ziozko kenkariaren zenbateko osoa zenbatuko dugu, ondoko mugarekin:

Kuota osoa – Kenkariak guztira = 175.000 – 135.000 = 40.000

Kenkari guztien batura

Kenkari guztien batura [934]. gakoan jarriko da, eta "Orain arteko kenkari"en [926]. gakoaren zenbatekoaren eta dibidenduen ziozko kenkariaren [933]. gakoaren zenbatekoaren arteko batura izango da.

Diferentzia

[729] ala [759]. gakoaren kuota osoari [934]. gakoaren kenkari guztiak kenduko zaizkio; eta kendura hori [935]. gakoan jarriko da.

KENKARIA, NAZIOARTEAN ZERGAPEAN BI BIDER JAR-TZEAGATIK

Subjektu pasiboaren sarreraren artean, atzerrian norberak duen zerga batengatik kargaturik egon diren etekinak edota ondare gehikuntzak daudenean, atal honetan, ondorengo kopuru bietarik txikiena kendu ahal izango da:

- Atzerrian etekin edo ondare gehikuntza horiengatik ordaindutako zergaren zenbatekoa, edo
- Kargaren benetako batez besteko tasa, dezimal birekin adierazita, atzerrian kargatu eta likidatuko den oinarriaren zatiari ezartzetik ateratzen den zenbatekoa. Horri dagokionez, kargaren benetako batez besteko tasa honelaxe lor-

tuko da: kuota likidoa zati likidatuko den oinarriaz egingo da; zatidura hori 100ez biderkatuko da eta horixe da tasa.

$$\frac{\text{Kuota osoa } (\boxed{729}) \text{ ala } (\boxed{759}) - \text{Kenkarien batura } (\boxed{934})}{\text{Likidatuko den oinarria guztira } (\boxed{692})} \times 100$$

Kendu behar den zenbatekoa $\boxed{936}$. gakoan jarriko da.

ONUREN GALERAREN ZIOZKO GEHIKUNTZA

$\boxed{937}$. gako honetan, aurreko ekitaldietan egindako inbertsioengatik kenkari legez kendu diren zenbatekoak jarriko dira, baldin eta haiek bete beharko zituzten baldintzetarik baten bat ez betetzeagatik, kendutako kopuruak sartu behar badira. Gako hau erabiltzeko adibide bat hau da: etxebizitza kontuek, edo kapital geroratuaren aseguru mistoko kontratuen zioz ordaindutako bitzitza aseguruaren primetik bete behar dituzten baldintzak ez betetzea.

KUOTA LIKIDOAREN ZEHAZTAPENA

Honela lortuko da: $\boxed{935}$. gakoaren zenbatekoari $\boxed{936}$. gakoarena kenduko zaio, eta kenketa horren emaitzari $\boxed{937}$. gakoaren zenbatekoa batuko zaio. Ateratzen den kopurua $\boxed{938}$. gakoan sartuko da.

ATXIKIPENAK ETA KONTURA EGINDAKO SARRERAK

1. *Norberaren lanaren atxikipenak + Gauzazko ordainketen konturako sarrerak*

Atal honetan, norberaren lanaren etekinengatik, diruzko ordainketa edota gauzazko ordainketen gainean egindako atxikipenak eta konturako sarrerak kenduko dira, baldin eta aitopeneraren inprimakiaren A ataleko $\boxed{2}$, $\boxed{17}$, $\boxed{32}$, $\boxed{47}$, $\boxed{3}$, $\boxed{18}$, $\boxed{33}$, $\boxed{48}$, $\boxed{6}$, $\boxed{21}$, $\boxed{36}$ eta $\boxed{51}$. gakoetan, hurrenez hurren, agertarazi badira. Batura osoa $\boxed{939}$. gakoan adieraziko da.

2. *Higikorren kapitalaren atxikipenak + Konturako sarrerak*

Atal honetan, higikorren kapitalaren etekinengatik, diruzko ordainketa edota gauzazko ordainketen gainean egindako atxikipenak eta konturako sarrerak kenduko dira, baldin eta beraien batura osoa aitopeneraren inprimakiaren B ataleko $\boxed{80}$. gakoan agertarazi badira. Zenbateko hori atal honetako $\boxed{80}$. gakora eroango da.

3. *Higiezinen kapitalaren atxikipenak*

Atal honetan, higiezinen kapitalaren etekinen gainean egindako atxikipenak jasoko dira, baldin eta etekin horiek ondasun higiezinaren errentamendutik badatoz. Zenbateko hori $\boxed{940}$. laukitxoan agertuko da.

4. *Aitortzailearen lanbide jardueren atxikipenak*

Atal honetan atxikipenak eta konturako sarrerak kenduko dira, baldin eta horiek guztiok diruzko ordainsarien gainean zein gauzazkoen gainean egin badira, aitortzailearen lanbide edo arte jarduerak egitearen ondoriozko etekinengatik. Zenbateko osoa [961]. laukitxoan jarriko da.

5. *Ezkontidearen eta bestelakoen lanbide jardueren atxikipenak*

Atal honetan atxikipenak eta konturako sarrerak kenduko dira, baldin eta horiek guztiok diruzko ordainsarien gainean zein gauzazkoen gainean egin badira, ezkontidearen eta famili unitateko beste kide batzuen lanbide edo arte jarduerak egitearen ondoriozko etekinengatik. Zenbateko osoa [962]. laukitxoan jarriko da.

6. *Enpresa jardueren atxikipenak*

Atal honetan atxikipenak eta konturako sarrerak kenduko dira, baldin eta horiek guztiok diruzko ordainsarien gainean zein gauzazkoen gainean egin badira, higikorren kapitalaren ondoriozko etekinengatik, baldin eta etekin horiek eratorri dituzten kapitalak subjektu pasiboak egikaritzen dituen enpresa jardueren menpean badaude. Atxikipen horien eta, honelakorik egonez gero, konturako sarren zenbateko osoa [963]. laukitxoan jarriko da.

7. *Etekin irregularren atxikipenak*

Atal honetan, subjektu pasiboak eskudiruz zein gauzaz hartutako etekin irregularren gainean egindako atxikipenak eta konturako sarrerak kenduko dira. Atxikipen horien zenbateko osoa eta, honelakorik dagoenean, kontura egindako sarrearena [942]. gakoan jarriko dira.

8. *Sarien gainean kontura egindako sarrerak*

Atal honetan, joko, lehiaketa, zozketa edota ausazko konbinazioetan parte hartzeagatik, diruz edota gauzaz hartutako sarien gainean egindako atxikipenak eta konturako sarrerak kenduko dira. Atxikipen horien guztien zenbatekoa eta, egonez gero, kontura egindako sarrearena [943]. gakoan jarriko dira.

9. *Zerga-gardentasuneko atxikipenak eta Sozietateen gaineko Zergako kuota*

Atal honetan, zerga-gardentasunaren araubideko sozietateei egindako atxikipenarik eta konturako sarreretarik, eta bazkide bakoitzari sozietate gardenak Sozietateen gaineko Zergaren zioz ordaindu eta sozietatearen estatutuen eta, bestela, sozietateren kapitalean duen partaidetzaren ginoan, egotzi behar zaion zatiaren batura osoa aitordenaren inprimakiaren E ataleko [174]. gakoan agertarazi bada. Zenbateko hau atal honetako [174]. gakora eroango da.

10. *Zatikako ordainketak*

Atal honetan, 1998ko ekitaldian egin diren zatikako ordainketen zenbateko osoa kenduko da, eta [944]. gakoan jarriko, baldin eta haiek enpresa, lanbide edo arte jarduerak egitetik badatoz.

Lerroa: "Atxikipenak, konturako sarrerak eta zatikako ordainketak guztira (Kontura egindako sarrerak)". [945]. gakoan, kontzeptu horiengatik dauden [939], [80], [940], [961], [962], [963], [942], [943], [174] eta [944]. gakoan baturaren zenbatekoa jarriko da.

DIFERENTZIAZKO KUOTAREN ZEHAZTAPENA

Diferentziazko kuota [938]. gakoaren kuota likidoaren eta [945]. gakoaren kontu-rako sarreren arteko kendura izango da. Eraitza [946]. gakoan jarriko da.

Eragiketa horren eraitza negatiboa bada ([945]. gakoa > [938]. gakoa), eroan eraitza hori [960]. gakora, eta hartu kontuan itzuli behar den zenbatekoak ezin duela inoiz [945]. gakoan aditzera emandakoa baino handiagoa izan.

8/88 FORU ARAUTIK EGITEKO DAGOEN ZERGA-KREDITUA, 1998AN ERABILIA

Aurreko ekitaldietan nahikoa kuotarik egon ez delako, egin barik gelditu diren kopuruak jarriko dira, baldin eta ekitaldi honetan kendu nahi badira.

[947]. gakoan, 1993ko ekitaldiko kreditua jarriko da, baldin eta kreditu hori kon-pentsatzen bada, eta berari dagokion laukitxoan agertarazi bada.

PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAKO ZERGA ZORRAREN LORPENA

1. *Diferentziazko kuotatik* ([947]. gakoa), *zerga-kredituen ziozko kenkarien batu-
ra* ([946]. gakoa) kenduko da.
2. Honela lortutako diferentzia [948]. gakoan emango da aditzera.
3. [948]. gakoan aditzera emandako zenbatekoa [950]. gakora eroango da, behar denean, *berandutza korrituen* [949]. gakoaren zenbatekoan gehituta.
4. Likidazioa sartzekoa ateratzen bada, honako aukera hauek daude:
 - a) *Zerga zorra guztira* [950]. gakoaren zenbateko osoa aitortpena aurkezten deneantxe sartzea edo
 - b) Aitortpena aurkezten denean, [951]. gakoaren zenbatekoa, [950]. gakoaren gainean %60 ezartzetik ateratzen den eraitza dena, sartu eta gainerako %40, 1999ko azaroaren 10a bitartean sartuko da. Bigarren aukera honeta-rako, nahitaezkoa da aitortpena arauzko epearen barruan aurkeztea.
5. Aukeratu duzun zenbatekoa [952]. gakora eroango da, eta ezarritako epeen barruan sartu beharko da.

INPRIMAKI ERRAZTUAREN ALDAKIA



Bizkaiko Foru Aldundia

Ogasun eta Finantza Salla

Diputación Foral de Bizkaia

Departamento de Hacienda y Finanzas

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga 1998 Erraztua

100

Likidazio zk.

Aitorpen - Likidazioa

Marra lodiagoa duen laukia identifikazio etiketa jartzeko dago. Ez baduzu horrelako etiketarik, jarri zeure datuak atal hauetan										Bete itzazu beti datu hauek:						
Aitorzailea	IFZ	Lehen deltura			Bigarren deltura			Izena			970	Jaioturtea	Elbarria			
	Zerga egoliza (sartu etxe-multzoko zenbakia, baldin eta baduzu)										Etxe zk.		Solairua	Aldea	Telefonoa	
	Udalerrria				Posta kodea			Probintzia			Egoliza atzerrian baduzu					
	Helbideraketa egiteko finantza erakundea, zerga sartu edo itzultzeko										E. zibilia		Erkondua	Alarguna		
Ezkontidea	Banku edo Auzokari Kutxa										Sukurtsalaren zk.		KD	Kontuaren zk.		
	Egiaztazu kontuaren datu guztiak zuzen beteta daudela										966		Erkongabtea Bestelakoa			
IFZ	Lehen deltura			Bigarren deltura			Izena			972	Jaioturtea	Elbarria				

Oharra: atal hau derrigor bete behar da (Markatu X batez zuri dagoekun zerga ordainkera)														
Zerga ordainkera	Famili unitatearen zerga ordainketa				Arautide ekonomikoa	Bizkaiko foru komunikazioa				976	Zergaldaren zatikapena	Hasiera eguna 98/ /		
	Banakakoa					973	Irabazpidezko sozietatea					977	Zergaldia amaitzen den eguna 98/ /	
	Baterakoa					974	Ondasun banantzea					978	Egun kp. 980	
Famili unitatetik kanpoko subjektu pasiboa				975	Beste batzuk				979					

Famili unitatearen kodeak, kentzeko esabidea daramak	IFZ	GK	Lehen deltura	Bigarren deltura	Izena	Ahaldetasuna	Jaioturtea	Elbarria
		1. S-A					981	
		2. S-A					982	
		3. S-A					983	
Gainerako kentkardunak		4. S-A					984	
							985	
							986	
							987	
						988		

Ordezkarria	IFZ	Deliturak eta izena edo sozietatearen izena							
	Egoliza	Etxe zk.			Udalerrria	Posta kodea	Telefonoa		

Zerga zorra	Sartu beharrekoa (ikus jarraibideak)	950	Itzuli beharrekoa (ikus jarraibideak)	960	
	Zure aitorpenak dirua sartzeko eman badu, jarri "X" zuk aukeratu duzun aukeran:				
	EZ dut zorra epe bitan ordaindu nahi		<input type="checkbox"/>	%100	950
Zorra epe bitan ordaindu nahi dut		<input type="checkbox"/>	%60	951	
		<input type="checkbox"/>	%40	989	
		BAI, zorraren bigarren epea helbideratu nahi dut (zorraren %40)			<input type="checkbox"/>
		EZ dut zorraren bigarren epea helbideratu nahi (zorraren %40)			<input type="checkbox"/>

Data eta sinadurak	Data, eta aitorzailearen eta ezkontidearen sinadurak			Zerga estelepena	Erlijio xedeatarako edo beste batzuetarako dagoen zerga estelepena, 1998ko dena, honako honetarako eman nahi dut:		
					A) Eliza katolikoa-ren laguntza ekonomikorako B) Gizarte intereseko beste xede batzuetarako		
Aukera adierazten ez denean, (B) joko da hautatutzat.							

Sarrera frogagarria	Kargu taloia			
	Zigilu eta sinadura	Erakundearen gakoa	Data	Zenbatekoa

Administrazioarentzako alea

IFZ	Lehen deltura		Bigarren deltura		Izena		1998
A	Norberaren lanaren etekinak						
Hartzailea (A, E, 1. S-A, 2. S-A)	1	16	31	46			
Atxikipenak	2	17	32	47			
Lang. jasan. konturako sarrerak	3	18	33	48			
Diru-sarrerak	4	19	34	49			
Gauzako ordainsariak	5	20	35	50			
Lang. jasan gabeko kont. sar.	6	21	36	51			
Sarrerak guztira	7	22	37	52			
Sindikatuoen kuotak	8	23	38	53			
Gizarte Segurantz	9	24	39	54			
Lan harreman bereziak	10	25	40	55			
Minusbaliatuak (%15)	11	26	41	56			
Sarrera osoen %5	12	27	42	57			
Gastuak guztira	13	28	43	58			
Enpresen ekarpena BGAE eta IPentzi	14	29	44	59			
Etekin garbia	15	30	45	60	61		
B	Higikorren kapitalaren etekinak		Atxikipenak / Konturako sarrerak		Sarrerak		
Dibidenduak, sozietateen mozkinetako partaidetza	75	81					
Obligazio, bonu eta etekin inplizituak eta abarren korrituak	76	82					
Ageriko, aurrezki eta eperako k/k.en korrituak, eta gordailu ziurtagirienak	77	83					
Higikorren kapitalaren beste etekin batzuk	78	84					
Gauzako ordainsariak (79 ko zenbateko sarrerren zutabeko zenbaki berekora eroango da)	79	85					
Gauzako ordainsarien konturako sarrerak	79	85					
Atxikipenik gabeko etekinak	86	87					
Atxikipenak / Konturako sarrerak guztira eta Sarrerak	80	88					
Administrazio eta zainza gastuak	88	89					
Kendu litezkeen beste gastu batzuk	89	90					
Gastuak guztira [88] + [89]	90	91					
Aurretziazko etekin garbia [87] - [90]	91	92					
Etekin garbi txikitua: [91] - 29.000 pta.	91	92					
C	Higiezinaren kapitalaren etekinak						
Datuk		Ohiko etxebizitza	Beste higiezin batzuk	Errentaturiko higiezinak			
Higiezinaren kopurua	100	106	111				
Sarrerak	101	107	113				
Ondasun Higiezinaren gaineko Zergako kuota eta errekaratuak	102	108	114				
Etxebizitzan sarturiko besteren kapitalen korrituak	103	115	116				
Ken litezkeen beste gastu batzuk	104	109	117				
Ken litezkeen gastuak guztira	104	109	117				
Etekin garbia	105	110	118				
Etekin garbia guztira [105] + [110] + [118]	105	110	118	119			
G	Ondare gehikuntza eta urripen erregularrak						
Hartzailea (A, E, 1. S-A, 2. S-A)	255	265	275	285			
Gakoa (I, A, G)	256	266	276	286			
Besterentze balioa (a)	257	267	277	287			
Eskuraketa balioa (b)	258	268	278	288			
Gehik. edo urripena (c)-(a)-(b)	259	269	279	289			
Titulartasunaren portzentajea	263 %	273 %	283 %	293 %			
Égotzi gehi.edo urripena (g)	264	274	284	294			
Urripen erregular garbia (UEG), g < 0 bada	295		Urripen erregular garbia (UEG), g > 0 bada	296			
I	Denbora igarotzeagatik zergaren menpean ez dauden ondare gehikuntzak						
Hartzailea (A, E, 1. S-A, 2. S-A)	510	514	518	522			
Gakoa (I, A, G)	511	515	519	523			
Eskuraketa data	512	516	520	524			
Besterentze balioa	513	517	521	525			
K	Konpentsatu gabe dauden ekitaldiko kopuruak						
Ekitaldiko urripen erregular garbia					640		
L	Zerga oinarri erregularra guztira [61] + [92] + [110] + [296]						650

IFZ		Lehen ditura		Bigarren ditura		Izena		1998	
Txikipenak Mortuaz indultsioak	Erakundearen IFZ			Part./Baz. (A, E, 1, S-A, 2, S-A)		Ekarpena		Ekarpen txikitua	
	660			661			662	663	
	664			665			666	667	
	Erakundearen IFZ			Ekarlea (A, E, 1, S-A, 2, S-A)		Ekarpena		Ekarpen txikitua	
	668			669			670	671	
	672			673			674	675	
Konpertsia pertisioak		Izena	Hartzailearen IFZ		Zentzatekoa		676		
Txikipenak guztira $663 + 667 + 671 + 675 + 676$								677	
Likidatuko den oinarri erregularra $650 - 677$								678	
O Zerga banaka aurkeztea aukeratu bada					P Zerga batera aurkeztea aukeratu bada				
Likidatuko den oinarri erregularraren kuotaren kalkulua					Likidatuko den oinarri erregularraren kuotaren kalkulua				
Diru-kopuru honetaraino 700					Diru-kopuru honetaraino 730				
Gainerakoa %(e)(a)n 701					Gainerakoa %(e)(a)n 731				
Batura 702					Batura 732				
Kuota osoa guztira 729					Kuota osoa guztira 759				
Kuotatikako kenkariak (ikus jarraibideak)									
Ondorengo ezkon. guztien kopurua 775					Ondorengo ezkongabeak (ikus jarraibideak) 776				
Aurreko guztien kopurua 777					952.560 pta.-rainoko sarrerak dituzten aurrekoak 778				
65 urtekoa edo zaharragoa den subjektu pasibo bakoitza (20.000 pta.) 779									
Itsu, mutilatu, elbarri fisiko zein psikiko bakoitza (56.000 pta.) 780									
Gaixotasun gastuak (%15) 791									
Ohiko etxebizitzaren alojera (%15, ikus jarraibideak) 796									
Urmeak zaintzeagatik dauden gastuak (%20, ikus jarraibideak) 799									
Pentsiodunak (20.000 pta. ikus jarraibideak) 800									
Kapital geroratuaren aseguru mistoko kontratuak 814									
Ken litezkeen beste aseguru kontratu batzuk 819									
Ohiko etxebizitzaren erosketa/birgaikuntza (%15) 832									
Data 827					Erosketa balioa 828				
Beste etxebizitza baten erosketa/birgaikuntza (%10) 840									
Data 835					Erosketa balioa 836				
Etxebizitza konturako ekarpenak (%15) 843									
Irekiera data 841									
Emariak, %10eko kenkaria ezarriko dutenak (ikus jarraibideak) 871									
Emariak, %20ko kenkaria ezarriko dutenak (ikus jarraibideak) 873									
Emariak, %25eko kenkaria ezarriko dutenak (ikus jarraibideak) 875									
Norberak egin ditzakeen atxikipenak 924									
Lan etekinak 925									
Sozietateen dibidenduak: Kenkariaren zenbat. 930					Ekitaldi honetan erabilia 931				
Ondorengo ekitaldiatarako dagoen saldoa 932									
Kenkari guztien batura 934									
Diferentzia 729 edo $759 - 934$ 935									
